

Garapenerako Hezkuntzako gure jardunetik abituta

# ERRONKAK EHUNDUZ

SISTEMATIZATURIKO  
LAU ESPERIENTZIA ETA  
ERRONKA BERRI



euskadiko  
karbidea  
circulo solidario euskadi



INICIATIVAS DE  
COOPERACIÓN  
Y DESARROLLO

ERRONKAK TEJIENDO



RETOS  
EHUNDUZ

Garapenerako Hezkuntzako gure jardunetik abiatuta

# **ERRONKAK EHUNDUZ**

SISTEMATIZATURIKO  
LAU ESPERIENTZIA ETA  
ERRONKA BERRI

Garapenerako Hezkuntzako gure jardunetik abiatuta

# ERRONKAK EHUNDUZ

SISTEMATIZATURIKO  
LAU ESPERIENTZIA ETA  
ERRONKA BERRI



**Argitalpena koordinatzaileak:**  
**Fernando Altamira Basterrechea**  
**Esther Canarias Fernández-Cavada**  
**Almudena Martín Parra**

**Genero ikuspegia**  
**txertatzeko akonpainamendua:**  
**Arkaitz López Gorritxo**

**Editaia:**  
**Euskadiko Elkarbidearen**  
Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazio Departamentua  
C/ Ramón y Cajal 43, Ionia – 48014 – Bilbao  
Telefonoa/Faxa: 94 475 49 07  
e-mail: [euskadi@circulosolidario.org](mailto:euskadi@circulosolidario.org)  
[www.circulosolidario.org](http://www.circulosolidario.org)  
NIF: G48655799

**Finantzatzaileak:**



**Argitaratze disena:**  
Daniel Hernández Prieto ([www.lobotipo.com](http://www.lobotipo.com))  
**Imprimategia:**

Gestingraf  
**Itzulketak:**  
Hitzurrun

**Lege gordailua:**  
BI-1470-2012

This work is licensed under the Creative Commons Attribution-NonCommercial-ShareAlike 3.0 Unported License. To view a copy of this license, visit <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/> or send a letter to Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

**2012ko abustua**

# AURKIBIDEA

Prozesuaren sustatzaile eta laguntzaileak	2
Aurkezpena	3
<b>ERRONKA BERRIEI LOTURIKO HAMABI GAI</b>	<b>7</b>
Antolakunde egitura eta kultura: <i>Aldaketa, partaidetza eta genero prozesu kolektiboak</i>	8
Metodologiak eta berrikuntza: <i>Berritzea edo sortzea, jabetzea eta alderdi subjektiboa, eta generoa</i>	11
Produktuak: <i>Publiko hartzaileak, generoa eta itxaropena</i>	15
Eragin eta dimentsio politikoa: <i>Generoa, subjektuak eta dimentsio politikoa</i>	18
<b>HAMABI GAI HORIEN JATORRIA: SISTEMATIZAZIOA, LAU EREMUTAN</b>	<b>23</b>
<b>1. Antolakunde egitura eta kultura</b>	<b>25</b>
<i>Hego haizea-setemen sukaldeko errezeta bilduma berria</i> SETEM Hego Haizea	
<b>2. Metodologiak eta berrikuntza</b>	<b>37</b>
Garapenerako hezkuntzaren ebaluaziorako tresna bat: «ebaluazio txantiloia» Euskadiko Elkarbidea	
<b>3. Produktuak</b>	<b>51</b>
<i>Cubainformación: kubarekiko komunikaziorako eta elkartasunerako nazioarteko sarea</i> Euskadi – Cuba	
<b>4. Eragin eta dimentsio politikoa</b>	<b>61</b>
<i>Zer da eragin politikoaren kontu hori? Unibertsitate ikuspegia</i> Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza	
Esker Ematea	75

# SUSTATZAILEAK



círculosolidarioeuskadi

Euskadiko Elkarbidea garapen eta sustapen pertsonala lantzen dituen GGKE bat da, eta bide horretatik El Salvador, Peru eta Filipinetako auzo urbano baztertuetan pobrezia gainditzea eta gizarte zibil aktiboa eraikitzea du xede. Gure jardunean funtsezko alderditzat daukagu, halaber, Iparraldean pentsamolde aldaketa sustatzea.



INICIATIVAS DE  
COOPERACIÓN  
Y DESARROLLO

Iniciativas de Cooperación y Desarrollo gizarte aholkularitzako enpresa bat da, erakundeei sendotasuna emateko prozesuak sustatzen dituena, honako gai hauei buruzko prestakuntza eta aholkularitza eskainiz: ebaluazioa, sistematizazioa, plangintza estrategikoa, diagnostikoa, ikaskuntza estrategikoak, aholkularitza metodologikoa eta antolakundeen bizimodu egokia.

Zeregin horretan, funtsezko zeharlerro bati jarraitzen dio: partaidetza, hain zuzen ere, giza garapen iraunkorra, berdintasunezkoa eta erabatekoa eraikitzeko kezka duten pertsonen eta erakundeen jabetasuna sustatzen duen heinean.

## GENERO IKUSPEGIARI BURUZKO LAGUNTZA

Una Gestión y Comunicación Genero berdintasunean eta garapenerako lankidetzan espezializatutako aholkularitza etxea da.

Antolakunde eta erakundeei laguntza ematen diegu beren eraldaketa gaitasuna areagotzeko eta ekintzak ezagutarazteko.

Gure jardunean, honako konpromiso hauei jarraitzen diegu: genero berdintasuna, baliabideen erabilera iraunkorra, gaitasunak sortzea eta ekonomia alternatiboa sustatzea.

Gure ikuspegia feminismoan, maskulinitate berrietan eta banakako nahiz taldeko eskubide guztien defentsan oinarritua da.



# AURKEZPENA

## HISTORIA APUR BAT

---

Argitalpen hau «Erronkak Ehunduz. Garapenerako Hezkuntza Euskadiko GGKEetan: hurbilketa bat. Diagnostiko parte-hartzailea» proiektuarekin abiatutako prozesuan txertatuta dago; partaidetzan eta talde gogoetan oinarrituriko ikaskuntza proiektu bat izan zen, eta 2011ko martxoan argitaratu zen haren emaitza biltzen duen lana, EAEko 32 GGKEren eta lau erakunde publikoren arteko elkarrizketaren emaitza oparoa. Lanak oinarritzko bi ardatz hauek izan zituen: Garapenerako Hezkuntzaren gaur egungo egoera ikusaraztea, arlo horretan lanean ari diren kideen ikuspegitik, eta GGKEen arteko nahiz erakundeekiko gogoetarako guneak eta topalekuak eskaintzea. Helburu horiek abiapuntu hartuta, antolakundeen arteko koordinazioa sendotu nahi izan zen, eta etorkizunerako Garapenerako Hezkuntzako lan agenda osatzeko bidea emango duten lan ildo komun batzuk finkatu.

Proiektuan parte hartu zuten kide eta antolakundeek bereziki nabarmendu zuten Garapenerako Hezkuntzaren arloko prestakuntza eta gogoeta guneen falta. Eta, hain zuzen ere, premia horri erantzuteko sortu da «Parte-hartzean oinarrituriko prestakuntza eta ikerketa» proiektu berria; izenak adierazten duenez, partaidetzan oinarrituriko prestakuntza prozesua eta ikerketa uztartzen ditu, biak ere herri hezkuntzaren metodologiak gidatuak, eta, beraz, sistematizazioa funtsezko tresna dutela. Proiektu horretan, genero ikuspegiari loturiko ekarpenak egin ditugu, ezinbesteko ikuspegia baita berdintasunezko gizartea eraikitzeko.

Argitalpen honek prestakuntza prozesuari erantzuten dio. Partaidetzan oinarrituriko prozesua izan da, beren esperientzia sistematizatu eta beste erakunde batzuekin partekatatu duten lau antolakunderen jardunetik abiatutako gogoeta, eta bidea eman du ezagutza berriak lantzeko, prozesu horretatik ateratako diagnostikoaren lau ardatzetan: antolakunde egitura eta kultura, eragin politikoa, metodologiak eta berrikuntza eta, azkenik, produktuak.

Sistematizazio-prestakuntza proiektua ikuspegi pedagogiko eta politiko jakin batetik landu da; hain zuzen ere, proiektuan parte hartu duten kide guztien esperientziak aintzatetsiz, ezagutzaren eraikuntzaren eta sorkuntza kolektiboaren aldeko apustua eginenez, herri hezkuntzaren ikaskuntzak aintzat hartuta, eta honako hiru ezaugarri bereizgarri hauek txertatuta:

1. Elkarrizketan ardatz duen ikuspegia bat, horizontaltasunean oinarritua, esku-hartze guztien balioa aintzat hartzen duena, esperientziak partekatuz ikaskuntza kolektibo bat sortzeko tresnak eskaintzen dituena.
2. Baterako hezkuntzari begirako ikuspegi bat, genero berdintasunean oinarritua, aintzat hartzen duena gizonen eta emakumeen komunikazio trebetasunen,

espazio publikoaren okupazioaren eta ezagutzarako sarbide eta kontrolaren berdintasunik eza, eta neurri espezifikoak planteatzen dituen gabezia horri aurre egiteko eta berdintasuna lantzeko, talde lanaren ingurunetik ezabatuz haren kutsua eta ikuspegi hori txertatzeko jarraibideak emanen parte-hartzaileei.

3. Eta gaitzea aintzat hartzen duen ikuspegi bat, hezkuntza eragileak aukeratzen dituen Garapenerako Hezkuntzako tresna metodologiko berriak erabiltzen gaitzeko, hezkuntza jardueren biderkatzaile diren heinean.

Gure diskurtsoa praktika da. Guztiok ikasten baitugu arituz, horizontalean arituz, ez bertikalean, eta ez irakasten duen horrek subjektuari irakatsiz, subjektuari hezkuntza eginkizunik aitortu gabe. Hezkuntza askatzailea, emantzipatzailea eta beren garapeneren protagonista diren subjektuen sortzailea dela aldarrikatzen dugu.

Jardueren koordinazio lana honako bi erakunde hauek gauzatu dute: **Euskadiko Elkarbidea (CSE)** eta **Iniciativas de Cooperación y Desarrollo**, prozesu osoan genero ikuspegia txertatzeko laguntza eman duen UNA Gestión y Comunicación etxearen lankidetzaz.

## ZERTAN DATZAN SISTEMATIZAZIOA, NOLA GAUZATU DUGUN ETA ARGITALPEN HONETAN ZER AURKITUKO DUZUN

Proiektu honen ikuspegi pedagogikoaren eta politikoaren oinarria elkarrizketa, baterako heziketa eta eraldaketarako gaitzea dira, eta prozesua gauzatzeko funtsezko aliatu bat izan du: sistematizazioa.

Zer esan nahi dugu sistematizazioaz mintzo garenean? Prozesu kolektibo bat da, aukera ematen diguna, praktika gauzatutakoan, haren historia biltzeko, ordenatzeko, eta hari buruzko gogoeta egiteko, analisiaren eta interpretazio kritikoaren bidez. Eta hori guztia, norberaren aurrera begirako praktikak hobetzeko eta beste antolakunde eta kide batzuekin partekatze ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak lortzeari begira<sup>1</sup>.

Hala, aurrez aurre genituen SETEM Hego Haizeak, EUSKADI – CUBAk, Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzak eta Euskadiko Elkarbidetzak sistematizazioa gauzatzeko osagai guztiak. Eta horretarako eta gerora beste antolakunde batzuekin partekatze moduko ibilbide egoki bat antolatzeari ekin genion. Ondoren adieraziko dugun moduan.

**Sistematizazio prozesuan**, lau antolakundeetako bakoitzak honako urrats hauek egin zituen, lau tailerren bidez: (i) bere sistematizazioaren helburua, xedea eta ardatza zehaztea, (ii) historiaren kiribila eta (iii) galdera kritikoaren gida prestatzea, (iv) galderei

---

1.— Sistematizazioari buruz gehiago jakin nahi izanez gero:

<http://www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com> y <http://centroderecursos.alboan.org/sistematizacion>



erantzutea, (v) bere gogoeta beste pertsona eta antolakunde batzuen ikuspegiarekin alderatzea<sup>2</sup>, eta (vi) ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak lantzea.

Sistematizazioak amaitutakoan, **prestakuntza tailerrak** egin ziren, beste antolakunde batzuekin bateratze lana egiteko. Lau tailer izan ziren, antolakunde bakoitzak sistematizazioa lantzeko aukeratutako gai multzo nagusi bakoitzeko bat. Tailerretan parte hartu zuten kideek prestakuntzarekin zerikusia duen prozesuren bati buruzko gogoeta egin zuten aldez aurretik, ikaskuntzak berreskuratzeko fitxa baten bidez (IBF). Lan honen xedea zen prestakuntza tailerretara iristerako aldez aurretik gogoeta eginda edukitzea, ekimenean parte hartzen ari diren beste talde batzuetako kideen eta sistematizazioen arteko loturak eratzeko eta hortik abiatuta talde gogoetari jarraipena emateko. Tailerretan, IBFen ekarpenak aurkeztu genituen, lau antolakunde sistematizatzaileetako bakoitzak bere ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak azaldu zituen, taldeka lan egin genuen eta osokoa elkartu ginen, sistematizazio eta gai bakoitzarekin loturiko hiru gogoetagairi buruz elkarriketa egiteko, betiere genero ikuspegiari arreta emanez.

Honako dokumentu honetan, lau prestakuntza tailerretako hamabi gogoetagaiak bildu ditugu, lehenik, eta lau sistematizazio prozesuak, jarraian. Eduki osoa lau gai multzo nagusi hauen inguruan egituratu da: antolakunde egitura eta kultura, eragin politikoa, metodologia eta berrikuntza, produktuak, eta eragin eta dimentsio politikoa..

## ERRONKA BERRIEI LOTURIKO HAMABI GAI

- **Antolakunde egitura eta kultura:** (1) aldaketako prozesu kolektiboak, (2) partaidetza eta (3) generoa.
- **Metodologia eta berrikuntza:** (4) berritzea edo sortzea, (5) jabetzea eta alderdi subjektiboa eta (6) generoa.
- **Produktuak:** (7) Garapenerako Hezkuntzako produktuen publiko hartzaileak, (8) generoa eta (9) Garapenerako Hezkuntzako lan taldeek guk landutako produktuak gauzatzeko behar dugun itzaropena.
- **Eragin eta dimentsio politikoa:** (10) generoa, (11) subjektuak eta (12) dimentsio politikoa, gure lanean.



2.– Kanpo kontraste horretan, honako kide hauek parte hartu dute: Raquel Celis (CEAR-Euskadi), SETEM Hego Haizearen esperientzian; Lidia Eguskiza (Mugarik Gabe), Cubainformaciónekoan; Jesús Chocarro (Medicusmundi Nafarroa), Euskadiko Elkarbidean; eta Roberto Porras (ALAMBIQUE bazterketaren kontrako elkarte), Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzan.

# HAMABI GAIEN JATORRIA: SISTEMATIZAZIOA, LAU ALDERDITAN

## 1 Antolakunde egitura eta kultura

«Hego Haizearen SETEM sukalde errezeten bilduma berria», SETEM Hego Haizea: antolakundearen aurkezpenetik abiatu eta historia aurkeztu dugu, eta, azkenik, ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak, honako bloke hauetan antolatuta:

1. Hedadurak Mapatzeko prozesuaren hasiera
2. Pertsonak, arloak eta barne koordinazioa
3. Efektuak

## 2 Metodologiak eta berrikuntza

«Garapenerako Hezkuntzaren ebaluaziorako tresna bat: ebaluazio txantiloia», Euskadiko Elkarbidea, antolakundearen aurkezpenetik abiatu eta historia aurkeztu dugu, eta, azkenik, ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak, honako bloke hauetan antolatuta:

1. Ebaluazio tresna lantzea
2. Ebaluazio tresna erabiltzea
3. Genero ikuspegia, tresnak prestatzeko eta erabiltzeko lanean

## 3 Produktuak

«Cubainformación: Kubarekiko komunikaziorako eta elkartasunerako nazioarteko sarea», EUSKADI – CUBA: antolakundearen aurkezpenetik abiatu eta historia aurkeztu dugu, eta, azkenik, ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak, honako bloke hauetan antolatuta:

1. Cubainformación, produktua; Euskadi-Cuba, elkartea
2. Cubainformación eta haren partaideak
3. Cubainformación eta genero ikuspegia
4. Cubainformación, kanpora begira

## 4 Eragin eta dimentsio politikoa

«Zer da eragin politikoa kontu hori? Unibertsitate ikuspegia», Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza: antolakundearen, historia eta ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak, honako bloke hauetan antolatuta:

1. Eragin politikoa... baina zer da guretzat? ISF-MGIren eraginguneak.
2. Unibertsitatearekiko erlazioa. Nola aurre egiten diogu unibertsitatearen zurruntasunari?
3. ISF-MGIren ikusgarritasuna.
4. Eta eragiteko egiten dugun lanak... aintzat hartzen du genero ikuspegia?
5. Nola uzta ditzakegu alderdi tekniko eta humanoak? Pertsona boluntarioen eta kontratupekoen eragina. Diskurtso ideologikoa eta eragina.

Azkenik, argitalpenaren amaieran prozesuan nola edo hala parte hartu duzuen eta hura gauzatzen lagundu duzuen pertsona eta erakunde guztiei esker ona adierazi dizuegu.

Orrialde hauetan bildu diren analisi, ikaskuntza eta erronkek Garapenerako Hezkuntzaren arloan gogoeta elikatuko duten uste osoa dugu, eta, ildo horretatik, eraldaketa duintasunez eta berdintasunez bideratzeko lagungarriak izango direlakoan gaude.

# ERRONKA BERRIEI LOTURIKO **HAMABI GAI**

Lau sistematizazio prozesuen ondorengo prestakuntza tailerretan, elkarrekin landu genuen gai multzo nagusi bakoitzaren sistematizazioa. Tailer horiek prestatzean, hainbat galdera sortu zitzaizkigun gai multzo bakoitzarekin lotura zutenak eta tailerreko esperientziak aurretiko ikaskuntzak berreskuratuz iradokitzen zizkigutenak. Oso interesgarriak ziren gogoetagai guztiak, eta sakontzeko modukoak. Baina, denbora kontuak zirela eta, hiru gai lehenetsi genituen, lau gai multzo nagusietako bakoitzaren barruan.

Hurrengo atalean bildu ditugu hamabi gai buruzko prestakuntza tailerretako elkarrizketa eta gogoeta; horiek aztertuta ikusi ahal izango dugu zer erronka berri dakartzan Garapenerako Hezkuntzak, justizia, berdintasuna eta duintasuna bereizgarri izango dituen eraldaketa bideratzeari loturik.



### 01 Aldaketa prozesu kolektibo01ei buruz Nola sor ditzakegu aldaketa prozesu kolektiboak antolakunde egituraren eta kulturaren esparruan?

Aldaketa prozesu kolektiboak bideratzeko zenbait faktore laguntzarri daude, hala nola:

1. Prozesua sustatzen dutenek horretarako **motibazio argia** izatea,
2. Antolakunde egituraren eta kulturaren **analisi** oinarri hartzea,
3. Aldaketa prozesu hori proposatzeko **zilegitasuna** bilatzea eta aztertzea,
4. Prozesuari loturik erakundeak izango dituen **ekintzarako tartea, inpaktua eta erresistentziak kalkulatzeko**, eta
5. Aldaketa **nola formalizatu** erabakitzea, espazio formal nahiz informaletan nola gauzatu den erabakitzea eta horretarako egutegia finkatzea.

Motibazio argiari eta zilegitasunari dagokienez, antolakundeko pertsona **talde batek** aldatetarako premia hori argi ikustea da gakoa. Antolakunde aldaketa gauzatzeko, aldaketa horrek ezinbestean izan behar du antolakundeko kide guztiek edo gehienek onartua eta eskatua. Era berean, gaia mahai gainean jartzea eta **antolakundearen agendan** txertatzea lagungarria izango da eragozpenak gainditzeko eta maniobra tarte handiagoa izateko.

Antolakunde egitura eta kultura aldatzeko motibazio argirik badago... **eraike gaitzen partaidetzaren bidez!** Horretarako, inplikaturako **alderdi guztiek** parte hartu behar dute prozesuan (estamentuak, egitura), **genero** harremanak eta **benetako partaidetza** kontuan harturik. Horrela, sortzen ditugun **egituretan** nabarmenagoak izango dira **aldagarritasuna, partaidetza eta berdintasuna**. Gerta liteke **bideratutako aldaketa ez izatea** **guk espero izandakoa adinakoa**, parte hartzeak negoziazioa esan nahi baitu eta norberak nahi zituenez bestelako akordioak eta aldatetak sustatzeko prestutasuna behar baita.

Motibazio argiaz gainera, aldatetarako prozesu kolektiboen akuilu nagusia eta ondorio oparoenak lortzeko bidea **noranzko bikoitzekoak izatea da: pertsonaren eta antolakundearen artekoak izatea**. Antolakundeari proposatu nahi diogun hori pertsona gisa esperimenteratuta, errazagoa gertatuko zaigu proposamena egitea, egingarriagoa irudituko zaigu eta antolakundearen aldatetan aurrera egiteko sintonia gehiago aurkituko dugu.

Gerta liteke elementu horiek falta izatea eta modu jakin batean eta filosofia jakin batekin jarduteari begirako aldateta bideratu ezin izatea. Egiturak **ez dira asko aldatzen**, indarrean daudelako botere harreman jakin batzuk, sustrai sakoneko genero berdintasunik eza, eta zurrinak izaten direlako barne dinamikak, horiek askatzea lan nekeza izanik. **Prozesu luzeak** direnez, une batzuetan bide onetik joaten dira, eta beste batzuetan, berriz, etenak gertatzen dira, mantsotu egiten dira, «baina» sinbolikoak agertzen dira...

Hala, funtsezkoa da prozesu horietan sor daitezkeen nekeari eta etsipenari **aurre egitea**. Horretarako ideia egokiak izan daitezke, besteak beste: ahalegina **kolektibo**a izatea, eta ez indibiduala; onartzea antolakunde aldaketa **epe luzera** sumatuko dela, edo aldaketa **etengabe ikuskatzea, aurrera egitea** dela eta aldaketa osoa antolakundeko hurrengo

belaunaldiak ikusiko duela, hamabost edo hogeitun urteren buruan. Horregatik, garrantzizkoa da **bitarteko helburuak** finkatzea, barneratzea disfuntzioa gertatzen dela gaur egungo egiturari, kulturari, funtzionamenduari, eta, erabateko aldaketara iritsi bitartean, badaukagula urrats batzuk egitea, beste puntu batera iristea eta zertan eta norentzat hobetu dugun aztertzea. Era berean, gerta liteke antolakunde horretan ezinezkoa den zerbait sortzen tematzea. Egin nahi duguna beste guneren batean egin beharko litzatekeen zerbait izatea, edo antolakundeak eztabaidaren bidez egindako aurrerapen hori bide beretik egin ez izana antolakundeko kide batzuek modu naturalean. Halaber, garrantzizkoa da antolakundean sartzen diren kideekin hitz egitea antolakundearen nortasunari buruz, haien igurikapenei buruz eta antolakundean ongi txertatzeko aukerei buruz, etsipenik eta gaizki ulerturik sor ez dadin. Nolanahi ere, beti da zentzuzkoa aldaketa prozesuak eta barne gogoetak proposatzea, baina kontuz aztertu eta neurtu beharra dago zenbateraino diren bideragarriak edo neurritzkoak.

## 02 Partaidetzari buruz

Nola lortu dezakegu antolakundean benetako partaidetza gauzatzea? Zer gunetan sustatzen da? Zer gunetan ez?

Hiru urrats planteatu ditugu antolakundean benetako partaidetza sustatzeko:

1. Antolakundean **partaidetzaren kontzeptua** argitzea;
2. Partaidetzaren «**zertarako**» argitzea; eta
3. **Genero ikuspegiari oinarrituriko partaidetza estrategia lantzea**, hainbat elementu kontuan hartuta, hala nola, (i) gaitasunak garatzeko prestakuntza, prestakuntza hobetzeko tresnen ezagutza, etab.; (ii) elkarriketarako, gogoetarako, gatazken konponbiderako guneak; (iii) antolakundearen, lan taldeen eta abarren denborak; (iv) partaidetza sustatzeko komunikazio bide egokiak edo komunikazio tresna egokiak; (v) parte hartzeko borondatea, eta hori lortzeko askotariko partaidetza mailak eta guneak eskaintzea, parte hartu nahi den, ahal den, nahi ez den edo ezin den kontuan hartuta; (vi) beharrezko baliabideak; (vii) genero ikuspegia eta, zehazki, aztertzea estrategia hori lagungarria den botere erlazioak eraldatzeko eta agerian uzteko erabakiak nola hartzen diren, hitza nola erabiltzen den, zer partaidetza mota dauden, espazioaren okupazioa nolakoa den, rol maskulinoak eta femeninoak nola adierazten diren; (viii) gogoeta eta akordio guztiak «amaierako txosten» orokor batean biltzea.

Horretarako, beharrezkoa izango da prozesuan denbora, errekurtsoak, ahalegina, burua... jartzeta eta partaidetzari oinarriturik jarduteak **lana bikoiztu dezan saihestea**.

Funtsezkoa da **parte hartzeko baldintza egokiak** izatea; esaterako, eroso sentitzea, jendeak esaten dena barneratzea, egiten diren ekarpenak zuzen erabiliko direla seguru egotea, etab. Litekeena da kanal berriak sortu behar izatea, orain erabiltzen ditugun azterketa eginek (segurtasuna, konfiantza, etab. bermatzeko egokiak diren; espazio femeninoa edo maskulinoa den,...) partaidetza bermatzeko desegokiak direla ondorioztatuz gero.

Estrategiaren funtsezko alderdia da, halaber, argi identifikatzea **nork** parte hartuko duen, nola parte hartuko duten eta haien partaidetza nola susta eta berma daitekeen. Ez da gauza bera partaidetzarako estrategia sustatzea –ez du zertan izan zuzendaritzaren ekimenez– eta prozesua bermatzea, hura egokia izan dadin nork eta nola parte hartuko duen zehaztuta. Estrategia horretan guztian, taldez talde aztertu beharra dago partaidetza nola sustatu eta bermatu daitekeen. Izan ere, boluntarioen partaidetza antolakundeak kontratatutako langileen partaidetzaz oso bestelakoa da, eta haien interesa erakartzeko ekintza egokiak garatu beharko dira. Barne eragileekin batera, prozesua errazteko, egiaztatze eta sendotzeko kanpo eragile batzuk beharko diren ere azter daiteke.

Partaidetzaren bidez elkarrekin eraikitzeaz ari garelarik, kontsulta soilaz harago jo beharko dugu. Hori dela eta, garrantzizkoa da ezer baino lehen partaidetzaren kontzeptua elkarrekin argituz joatea, eta horren aldeko apustua egiteak kontsulta, baterako gestioa, etab. eskatuko dizkigu. Partaidetza eraldaketara bideratu behar dela iritiz gero, eraldaketa bideratzeko prest egongo diren boluntarioak bilatu beharko dira.

Prozesuetan, antolakundeetan... **gune formalak nahiz informalak** bereizten dira. Eta berebiziko garrantzia dute nola batzuek hala besteek. Gune informalak ez dira erabaki guneak, baina aukera eman dezakete partaidetzari begira funtsezkoak diren zenbait alderdi lantzeko, hala nola, motibazioa, hurbiltasuna, etab. Gune guztien ahalmenak baliatu behar dira, oso argi utzita gune informaletan **ez dela hartuko** antolakundeari edo jarduera jakin bati eragingo dion **inolako erabakirik** eta gune horretan eztabaidarik sortuz gero, gune formal batera bideratu beharko dela.

## 03 Generoari buruz

Nola bizi ditugu genero harremanak, antolakundearen kulturen? Zer eragin dute erabakiak hartzeko unean, lidergoetan, aginte guneetarako sarbidean, etab.?

Oro har, gaizki. Jabetzen gara **nola eragiten duten genero harremanek antolakunde kulturen**; pertsona batzuek gure **kabuz amore emanez** eta besteek **borroka eta aldarrikapen prozesu gisa bizi ditugu**.

Gure kabuz amore emateak esan nahi du kontrolatu egin behar dugula daukagun espazioaren gainokupaziorako joera, gizon gisa eraikia naizelako. Eta nire antolakunde hori bideratzeak esan nahi du nire kabuz amore eman behar dudala eta nire lankideek lagundu egiten didatela, halako gainokupaziorik gerta ez dadin. Amore emate hori eta kontrol hori beharrezkoak dira bestelako antolakunde kultura bat eraikitzeko. Baina, aldi berean, norberaren rola zalantzan jartzea dakarte, eta genero nortasunaren krisia ere bai, gizon garen heinean espazioa betetzeko agindua jaso baitugu, horretarako tresnak ez ezik.

**Egiturak eta kulturak elkar elikatzen dute.** Egituran garrantzia zeri ematen zaion (lanpostuak, arloak, etab.), berebiziko eragina izango du horrek antolakundearen kulturen, nortasunean. Eta, aldi berean, kulturari loturik transmititzen den horrek eragina izango du egituran. Antolakundeetako lidergoen oinarrizko balioak genero harremanen mende daude. Izan ere, genero harremanek **lidergoei** eragiten diete, emakumeek eta gizonen ez

dutelako lidergoa modu berean gauzatzen eta liderrari atxikitzen zaizkion balioak ikuspegi maskulinoari lotuak izaten direlako ia beti. Lidergoa emakume batek gauzatzen duenean, lehenik eta behin, gainditu egin behar izaten du antolakunde osoak lidergo hori gizon baten modura (ekimenez, erabakiak hartuz) gauzatzeko duen igurikapenak sorturiko tentsioa, eta molde femeninoagoak hartuz gero (horizontalagoak, adostuagoak, norberaren gaitasunei eta ez soilik helburuei begirakoak) bestelako kultura bat sortzen da, gizarteak balioztat ez duena. Antolakundeak ez dira ohartzen dinamika horretaz eta lidergoan gizon bat edo emakume bat jartzeak kulturaren duen eraginaz.

Lidergoa gizon batek duenean, jakintzat ematen da erabakiak hartuko dituela; eta, aldez, emakume batek duenean, kontsulta egingo dela jotzen da, besteak beste, eta beste karguren bat duen beste gizon baten eraginpean arituko dela. Lidergoei atxikitako ezkutuko boterearen mendean (pertsona batek –oro har, gizona– erabakien bozeramailea den beste pertsona batek –oro har, emakumea– boterea gauzatzeko duen moduarengan eragiten duen botere gisa ulertuta). **Akats profesional**ei oso bestelako moduan aurre egiten zaie akatsa gizonak egin edo emakumeak egin: emakumeak arlo pertsonalera eramaten du, eta gizonak baino gogorrago hartzen du bere burua.

**Koherentzia falta** sumatzen da **diskurtsoaren** (parekidetasuna, berdintasuna, berdintasunezko balioak, etab. aipatzen dira) eta **praktikaren artean** (askotan, guztiz maskulino tradizionalak edo hegemonikoak diren egoera, egitura, erabaki eta abarrei erantzuten die praktikak, alderdi produktibo, exekutibo atxikita, alde batera utzirik alderdi afektiboa, emozionala...). Edonola ere, gure ustez, badago bestelako antolakunde kultura bat egitea!

## METODOLOGIAK ETA BERRIKUNTZA

### 04 Berritzeari edo sortzeari buruz

Zer hautemate eta iritzi dugu berritzen edo sortzen dugu horri buruz? Zer zeregin dute prozesuek eta fresnek?

Hauxe izan zen gogoetaren abiapuntua: **berritzea zeri deritzogun**, edo enpresan, politikan, kulturaren eta GGKEetan gauza bera hartzen den berrikuntza gisa. Berrikuntzaren kontzeptu klasikoa eredu desarrollista eta merkantilista batetik eratorria da, eta produktu batean berrikuntzak egitearen ideiarri lotuta dago. Ideia hori alde batera uztearen aldeko apustua egiten dugu guk, eta iruditzen zaigu **beti dagoela prozesuetan, produktuetan eta abarretan berrikuntzak txertatzeko aukera**. Eta berrikuntza hori benetakoa izan dadin, **balioa** izan behar du, zerbitzitarako baliagarria izan behar du, helburu jakin bat eduki behar du.

Berrikuntzak beldurra ematen digu. Beldurra ematen digu aldatzeak, huts egiteko arrisku handiagoa dugulako. Hortaz, **aldaketari diogun beldurra gainditzeko** ahalegindu behar dugu. Berritzea ez da soilik **aldaketa handiak** egitea; aitzitik, **prozesuen bidez aldaketa txikiak eginez** ere berritu daiteke, eta aldaketa handiagoak ekar ditzake horrek, gainera. Berrikuntzak txikitik abiatu eta handirako bidea egin beharko luke, prozesuen ikuspegitik.

**Berrikuntza, zertarako?** Berrikuntza **hobekuntza iraunkorrera bideratu** behar da; hobetzea da berrikuntzaren zertarakoa.

**Berrikuntza, zertan?** Berrikuntzaren bertsio klasikoak **produktu eta teknologia berriak** ditu oinarri. Gure ustez, hori faltsua da, ordea; izan ere, **prozesuetan, giza harremanetan, alderdi subjektiboan eta emozionalean** ere egin daitezke berrikuntzak. Batzuetan ez gara ohartzen gure ekintzak berritzaileak direla metodologiaren, dinamikaren eta abarren ikuspegitik.

Tentsioa ikusten dugu garapenerako lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren arloen artean. Berrikuntzak kalitatea hobetzea esan nahi du, eta hobekuntza hori neurtzeko adierazle kuantitatiboak nahiz kualitatiboak erabili beharra dago. Baina lantegi zaila izaten da **neurketa**, alderdi kualitatiboarena bereziki, oso lotuta baitago subjektibotasunarekin. Neurketa tresnak gehienak lankidetzaren esparrutik hartuak dira, eta ez dira neurketa horretarako egokiak. Hala, alderdi kualitatiboari buruz ari garela ere, ikuspegi kuantitatibotik aritzen gara. **Sistema sexistaren parte da:** balioa zenbakiek dute, ez hautemateek. Zenbakia objektiboa da; eta alderdi kualitatiboa, berriz, subjektiboa, eta horrek ez du baliorik sistema honentzat. Interesgarria da erreparatzea **balioa zenbakiei edo hautemate eta iritziei ematen zaien**. Alderdi kualitatiboa «modu kuantitatiboan neurtzerik» ez badago ere, enuntziatu, adierazi, nabarmendu, aintzat hartu, sentsibilizatu egin daiteke. Ideologia eraldaketarekin zerikusia duten prozesu kualitatiboak «neurtzeko» **galdera sorta** bat egitea da onena, eta galdera horiei emandako erantzunak aztertuz egiaztatzea lortu dugun edo ez, aurrera zer neurritan egin dugun, etab.

Batzuetan, zaila da **antolakunde egitura zurrunen** baitan (zuzendaritzan, hierarkian, nortasunean...) berrikuntzak egitea, ez dituztelako sustatzen informazio prozesuak. Beste batzuetan, tarte handiagoa izango da **moldatzeko**.

**Berrikuntza, norentzat?** Berrikuntza beharkizun modura hartzen dugu. Bere garaian, eskakizuna zen generoaren gaia. Eta, itxuraz, orain, erakundeek eskakizun modura hartzen dute berrikuntza ere. Gure ustez, generoaren azuzian bezala, ez da **aski eskakizuna izatea; eztabaida gaia izan behar du**. Berrikuntzaren oinarrian **berritzeko nahiaren kontzientzia kritikoa** jarri behar dugu.

Litekeena da hirugarren sektoreak berrikuntzak egin nahi izatea, baina erakundeek sektore hori berritzen ez badute eta estilo direktiboari jarraitzen badio, muga handiak izango ditugu. Errealitate horrek lotura estua du estilo direktiboak erabili ordez bote-rearen kudeaketa femeninoa egitearekin, eta zer berritu asko dugu arlo horretan. Era berean, hirugarren sektoreko zenbait tresna, prozesu eta dinamika ez dira egokiak ez berrikuntzarako ez sorkuntzarako. Eta **barruan ere badira eragozgarriak**, era honetako esapideek erakusten dutenez: «ez dugu ezer asmatuko, dena eginda dago». Futbolaz ariko bagina bezala, eta ez lankidetzaz eta Garapenerako Hezkuntzaz.

Eta, batzuetan, **lan molde jakin batzuk berreskuratzen ditugu, ikuspegi berri batetik**, eta ez dugu berrikuntza modura hartzen berez berrikuntza izan litekeena: bilera egitea –betidanik egin izan dena–, esaterako, berritzeko beste modu bat izan daiteke. Ebaluazioa eta sistematizazioa atzera begiratzeko, aztertzeko, gogoeta egiteko, ikasteko eta aldaketa bideratzeko tresnak dira. Eta hori ere bada berrikuntza.



Berritzailea den zerbait egiteko bidean behin baino gehiagotan huts egingo dugu, eta prest egon behar dugu arrisku hori gure gain hartzeko. Horregatik dira prozesu **mantsoak**; baina, nolana ere, «gaurtik biharko» aldaketak ez izateak ez du esan nahi ez direnik berritzaileak.

## 05 Jabetzeari eta alderdi subjektiboari buruz

Eta berrikuntzaren ondoren, zer? Nola lortuko dugu pertsonak eta antolakundeak lortutako prozesu eta tresnez jabetzea?  
Zer egiteko dauka horretan alderdi subjektiboak?

Erresistentzia asko ikusten ditugu hori lortzeko. **Tresnaz jabetzeak ez du ezinbestean esan nahi prozesuaz jabetzea.** Eta horrek askotariko egoerak sor ditzake antolakundearen baitan: lan talde bat puntu batean egon daiteke, zuzendaritza beste batean... eta egoera hori nola gobernatu aztertu beharko da, zer aukera eskaintzen dituen ikusi. Barne logikekin ere lotuta dago, eta, oreka horiek lantzeko aukera dagoen heinean, positiboa izango da.

Litekeena da «**goitik beheranzko**» **berrikuntza prozesu** bat planteatzea, eta beheraino iristea, edonolako erritmotan. Baina, batzuetan, berrikuntza prozesuak ez dira hasten berrikuntza prozesu modura, talde edo kide jakin baten ekintza modura baizik. Egokiena zuzendaritza inplikatzeko da. Baina ia inoiz ez da hala gertatzen, berrikuntza ez baita abiatzen prozesu gisa, ekintza gisa edo beste nolabait baizik, nahiz eta abiapuntu horretatik prozesu zabalagoa bideratzen den gerora eta horrek bultzatuta gehiago definitzen garen, talde gisa adibidez. **Prozesuak alde aurreko plangintzarik gabe sortzen dira, askotan.** Beste batzuetan, berriz, zuzendaritzak argi izaten du, eta prozesuak lan talde batetik beste batzuetara helaraztea izaten da kasu horietan erronka.

Arlo edo sail batean ikaskuntza prozesu bat bideratu bada eta estrategikoa bada, garrantzizkoa da **prozesu hori antolakunde osoan errepikatzea**; eta horretarako, ezinbestekoa da zuzendaritza inplikaturik egotea. Prozesua **igurikapenetatik, subjektibotasunetik** abiatuta errepikatzea litzateke kontua; alde aurretik bizi duen horrek ikuspegi bat izango zuen, zuzendaritzak beste bat... Norberak bizi duena abiapuntu hartzea eta kontuan izatea. Errepikapen horrek eraldatu egin dezake jatorrizko prozesua, guregana itzuli eta gauza berriak ekar ditzake, eta horiek txertatzeko prest egon behar dugu. Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu bat da.

Badira **gutxieneko negoziak ezin batzuk** –lurrik gabe, ezin erein–, orekak aukera ematen badu. Kasu edo/eta une batzuetan, tresna berri bat erabiltzea izango da jomuga, eta ez da ukitutik, adibidez, nortasuna.

Batzuetan, **barne erresistentziak** ere izaten dira, eta, halakoetan, **aztertu beharra dago iritzi kolektibo eta partekatua den edo pertsonala den.** Kontu pertsonala bada, ongi neurtu beharko da ea merezi duen taldea ahal duen tokira iristea, edo dagoen puntuan gelditzea, jakinik jendea atzean gelditzen ari dela...; planteatu beharko dugu antolakunde horretan **aldeko testuingururik** ez duten berrikuntza prozesu batzuk sustatzen tematuta ez ote gauden.

**Badakigu noiz hasten den, baina ez noiz bukatuko den:** generoari nahiz beste edozein gairi aplikatu dakiokete esaldi hori. Zilegi da antolakundeak gutxieneko desoreka

batzuk izatea; aldian-aldian ikuskatu beharko da, prozesu bizia den heinean. Antolakunde askok ekiten diete genero edo kalitate prozesuei, itxuraz modako kontua izanik, eta, gerora, horretan burua eta bihotza jartzen duen/duten pertsona/pertsonak sartzen da/dira, prozesu horiek sustatzen dituzte eta handik urte batzuetara antolakundea genero ikuspegia atxikitzen hasten da. Bizipen kontua da, bilakatu egin daiteke, eta asko du subjektibotik.

**Berrikuntza jarrera bat da.** Ez da urrats bat, hasi eta bukatu egiten den zerbait. Prozesu bat baizik. Berritu ondoren, berritzen jarraitzen duzu, egunez eguneko jardueran aldaketak egiten jarraitzen baituzu, eta ez nahitaez prozesuetan. Badira gauza batzuk dagoeneko bereziki edo etengabe egiaztatu beharrekoak ez direnak. Norberaren lorpenak berak zalantzan jartzeko gaitasuna ere jarrera bat da.

## 06 Generoari buruz

Nola lortuko dugu gure metodologiak eta prozesuak berdintasunaren aldeko eraldaketara bideratuak izatea?

Antolakundeek kontuan hartu behar dugu **gizarte sexista batean bizi garela, eta gizartean ez dagoela berdintasunik gizonen eta emakumeen artean, sektore pribilegiadun bati –gizonei– mesede egiten dien botere eta aukera banaketa bidegabe baten ondorioz.** Berdintasunik ezak femeninoa zer den eta maskulinoa zer den zehazten duen eraikuntza du abiapuntu; izan ere, eraikuntza horretan, neurritz gaindiko balioa ematen zaio maskulinoa denari, eta baztertu eta zalantzan jartzen da, aldiz, femeninoa dena. Horrela, metodologiak eta prozesuak bidera daitezke. Abiapuntuko ikuspegi hori gabe, aldiz, ez. Sorkuntzaz aritzen garenean, «femeninoan» hitz egiten dugunez, lausotu egiten dela dirudi. Berrikuntzak tankera maskulinoagoa du; gizonek kudeatu ohi dituzte berrikuntza sailak, I+G sailak, eta beste batzuei baino balio handiagoa aitortzen zaie.

Barne mailari dagokionez, **barne prestakuntza eta sentsibilizazioa** landu behar dira: denbora asko hartu eta ahalegin handia egin beharra dago gauzak zalantzan jartzeko. Eta hortik bertatik eraldaketa dator.

Garrantzizkoa da balioa ematea eta gure jarduteko moduan **kudeaketa femininoko prozesuak** txertatzea (gizonek eta emakumeek bideratuak izan daitezkeenak), baita tradizioz genero femininoari atxiki izan zaizkion **balioak** aldarrikatzen dituzten **metodologiak** ere (entzute aktiboa, sentitzen dugunaz hitz egitea, lan taldearen baitako botere banaketa, erabakiak adostasunez hartzeko bideak bilatzea...), gaur egun oraindik baztertuta daudenak. Horrekin batera, ikuspegi feministari heldu behar diogu; hau da, errealitatea eta errealitate horretara eraman gaituzten arrazoiak zalantzan jarri behar dira, feminismoaren ikuspegitik. Kudeaketa femininoak hobeto lan egiteko erraztasuna dakar. Ez du inolako zerikusirik emakumeekin, baizik eta boterearen kudeaketa eta balio femininoekin.

Interesgarria da talde feministekin lan egin ahal izatea, ikuspegi kritikoa eman diezaguten eta zalantzan jar ditzaten prestakuntzako eta sentsibilizazioko gure kanpo jarduerak eta barne prozesuak.

**Berdintasunaren aldeko metodologia eta prozesu horiek esparru konkretuan saiatzea** (prestakuntzan, materialetan eta abarretan nola txerta daitezkeen ikustea), **aztertzea eta hortik esparru politikora eramatea** (egiteko moduetara, nola egin beharko litzatekeen, etab.). Hala, prozesu horretan urrats hauek bereiz litezke:

1. Metodologia eta prozesu berriak zalantzan jartzea,
2. Horiek aldatzeko jarrera hartzea,
3. Ekintza zehatzetara eramatea (ekintza bat aukeratzea, aztertzea eta berdintasunaren aldekoa ez den guztia aldatzea) eta
4. Teoria berri bat sortzea, praktikari atxikitzeko.

## PRODUKTUAK

---

### **Aurretiko gogoeta batzuk**

Garapenerako Hezkuntzako produktu berriak sortzeko hainbeste urte eman eta ahalgin egin ondoren, GGKEen artean oraindik ikasteko eta hobetzeko irrika dagoela irizten diogu.

Garapenerako Hezkuntzari buruz egin genuen diagnostikoan<sup>3</sup> agertzen ziren ideiak indarrean daude oraindik, denontzat ezagunak direnak, dagoeneko planteatu ditugulako eta askotan irakurri izan ditugulako beste une batuetan. Nolanahi ere, iruditzen zaigu oso zaila dela ideia horiek lantzen diren produktuei aplikatzea eta produktuak etengabe lantzea, beti gauza bera ez egitearren. Berez, ideia soilak dirudite, baina GGKEek badakite zein nekeza den horiek praktikan jartzea.

Urteen joanean, gure lanaren arrakasta «jende guztiarengana» iristean zetzala jo izan dugu. Baina, gure ikuspegitik, Garapenerako Hezkuntzak urundu egin behar du erro sakonak dituzten logika «produktibista» horietatik, eta beste mota bateko prozesuei eman behar die balioa, saiakerak eginez, huts eginez, berriro saiatuz... Gainera, azpimarratu behar dugu, batzuetan, dagoeneko sortuta dauden produktuak baliatzeak ekar dezakeela berrikuntza baina horretarako funtsezkoa dela dagoeneko egin denaren eta dauden antolakundeen diagnostiko egoki bat edukitzea, sarean lan egiteko, esaterako.

Garapenerako Hezkuntza esparru zirrargarria bada ere, jakin badakigu batzuetan guk nahi bezain bizkor garatzen ez diren prozesuak behar direla eta ez ditugula aintzat hartzen loturiko emaitzak. Ildo horretatik, komenigarria da ebaluazio prozesuak gauzatzea, egiten ari garenaren kontzientzia hartzeko eta sendotu nahi ditugun alderdiak identifikatzeko. Gogoeta prozesu iraunkorrek gauza ditzakegu eta gauzatu behar ditugu, gure praktikekin eta horrek ahalbidetuko baitigu produktuekin elkarrekin jardutea, aurrera egitea eta errutinaren ez jaustea, egiten ari garen horrekiko ilusioari eustea.

---

3.— Altamira, F., Canarias, E., Martín, A. (arg. koord.): «Diagnóstico participativo. Una aproximación a la ED en las ONGD de Euskadi», Euskadiko Elkarbidea arg. Sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza saila. Bilbo, 2011.

## 07 Publiko hartzaileei buruz

Zer irizpide ditugu zer publikotara iritsi nahi dugun zehazteko?

Gure antolakundeen irismenez jabetu behar dugu, gizartean eragiteko dugun ahalmenez, ezinezkoa izango baitzaigu noranahi iritea. Horretarako, **ongi identifikatu** beharko dugu aldatu nahi dugun errealitatea zein den, genero ikuspegia kontuan hartuta, besteak beste.

Gure iritzian, antolakundearen estrategian bertan ongi identifikatu behar da zer subjektu-ekin lan egin nahi dugun. Ildo horretatik, kontuan hartu behar dugu identifikatutako xede taldeen **efektu biderkatzaile eta eraldatzailea**.

Talde asko eta askotarikoekin lan egiteak aukera berriak ematen dizkigu, ikusmira berriak erakusten dizkigu eta erronka berriak dakartzkigu. Dibertsitatea ez baita gizon-emakumeei dagokien zerbait soilik; bestelako **dibertsitate** asko ere bai baitaude.

Aintzat hartzeko alderdia da, halaber, Garapenerako Hezkuntzaren produktuen subjektuak **Hegoaldekoak** izan litezkeela, Iparraldeko eta Hegoaldeko antolakundeen arteko aliantzei esker. Gure ustez, Garapenerako Hezkuntzako gure estrategietan txertatu beharko genuke aukera hori, ez baita zaila eta, berez, hori egiteko «nahia» izatea besterik ez baitu eskatzen.

Bestalde, erakunde batzuek gaiari buruz lanean diharduten **gizarte antolakunde**en artean banatzen dituzte beren produktuak, nahiz eta ez izan denak GGKEak. Horrela, aurrera begira proiektuak eratzeko loturak eta balizko harremanak eratzten dira.

Azkenik, antolakundeek nabarmendu dute premiazkoa dela gauzatutako eta erabilitako produktuen **ebaluazioa** egitea, zer subjektutara iristeko aukera dagoen ongi doitzeko.

## 08 Generoari buruz

Nola lantzen dugu genero ikuspegia gure produktuetan (edukiei, metodologiei, haiek lantzen dituzten kideei... dagokienez)?

Produktuka lan egiten da? Edo antolakunde-estrategia mailan??

EGGKEetan, aurrerapenak egin ditugu **hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren** esparruan, baita erabiltzen ditugun **irudietan** ere: emakumeek presentzia nabariagoa dute eta ez dira rol sexistak iraunkortzen. Adibidez, emakumeak egoera jakin baten biktima modura ageri direnean, testuingurua azaldu eta arrazoiak ematen dira, haien berdintasunik ezeko egoeraren egiturazko arrazoiei buruzko sentsibilizazioa sustatze aldera.

Nolanahi ere, nekezagoa da beste kontu batzuk finkatzea, hala nola, berdintasunetik hur-bilagoko eztabaidei bide emango dieten metodologia barne-hartzaileak eta eraginkorra-goak. Gainera, iruditzen zaigu produktuen gaiak emakumeen auzi espezifikoak agerian utzi behar dituztela, eta gai orokorrak aztertzeke garaian ere gure buruari galdetu behar diogula gai horiek emakumei zehazki nola eragiten dieten.

Kontuan hartu beharra dago generoak lotura estua duela egunerokotasunarekin, kontu tekniko soil ez harago doan zerbait dela, eta aldaketak gauzatzeko borondatea eta nahia izan behar ditugula, gutxienez. Gure egin behar dugun **bizi estilo** bat da,

betaurrekoak erabili beharko bagenitu bezala, gertatzen den interpretatzeko, jarrera bat hartzeko, ekiteko...

Gure erakundeetan **generoari buruzko marko teorikoa** finkatu beharko genuke, jakinik gero horrek isla izan behar duela egunerokotasunean, esan dugun moduan. Badakigu ez dela erraza, ez dagoela errezetarik eta norberaren errealitatea hartu behar dugula abiapuntu. Esparru honetan egin diren aurrerapenak gorabehera, gure ustez, antolakundeetan eronka handia da, oraindik, gai honi buruzko prestakuntza.

Kultura alternatiboa duten antolakundeetan ere, gerta daiteke produktu jakin batzuetan gehiengo gizonak izatea –adibidez, informazio ekoizpenean–, eta **sortzen eta ekoizten dena oso maskulinoa izatea, ikuspegi femeninoa** kontuan hartu gabe (interesak, ikuspegia, etab.). Bestalde, kontuan hartu behar da eduki politikoa duten produktuek interes biziagoa sortu ohi dietela gizonei emakumeei baino, eta, beraz, agian emakumeek eta emakumeentzako landutako eduki espezifikoak dituzten programak sortu beharko liratekeela.

Gure ustez, lan taldeak «zirikatzeko» pertsona positiboak falta dira; izan ere, generoaren auziak gatazka eta gaizki ulertuak sortzen ditu oraindik antolakunde batzuetan, aldaketekiko erresistentziaren eraginez. Ildo horretatik, lagungarriak izan daitezke emakume taldeekiko eta antolakunde feministekiko aliantzak.

Bistan denez, generoak prozesu iraunkor bat dakar, prozesu amaigabe bat, eta gero eta eronka berri gehiago.

Antolakundeen xedea da beren produktuen bidez gizartean eragitea; eragin ahalmen hori, ordea, antolakunde bakar batek egin dezakeenez harago doa, askotariko ahalegin eta subjektuen bat-etortzea eskatzen duelako. Ildo horretatik, **ebaluazioa** gure eragin ahalmena balioesteko metodo egokia izan daiteke, hari genero ikuspegia atxikita.

## 09 Itxaropenari buruz

Nola saiheuts dezakegu gure produktuek etsipena eragitea?

Hasteko, azpimarratu behar dugu Garapenerako Hezkuntzan dihardugunok ez dugula zertan denetik jakin, ez garela super gizonak edo super emakumeak. Hori bai: borondate eta erabakimen osoa behar dugu gure lanari ekiteko. Ezinezkoa zaigu toki guztietara bakarrik iristea: beste pertsona eta antolakunde batzuen premia dugu, gauzak partekatzeko, elkar aberasteko, **sarean** lan eginez.

Ongi jabetu behar dugu non gauden eta Garapenerako Hezkuntzako produktuak nondik egiten ari garen. Lantzen ditugun materialek **dimentsio politiko** zehatz bat izan behar dute, gure ustez, eta eredu gainartzaileari aurre egiteko bitartekoa izan behar dute.

Bestalde, **produktu gutxiago** egin behar ditugu, baina **parte-hartzeari nagusitasun handiagoa emanez**, eta lanean ari garen pertsona eta taldeei egokituagoak, haien erritmo, denbora eta testuinguruei hobeto atxikiak, hizkuntza eta mezu soilak, zuzenak eta

haien premiei eta bizimoduari egokituak erabiliz. Gainera, talde horiei materialak erabiltzen **lagundu** behar diegu, beren hezkuntza prozesuak sendotzeko, guk ere haietan ikasteko asmoa dugun heinean.

Gure lanarekiko itxaropenari eusteko, Garapenerako Hezkuntzako produktuen **ebaluazio eta jarraipen errealistak** egin behar dira, eta ez dugu arreta jarri behar ezinezko helburuetan, etsipena sortuko baitigu horrek. Etorkizunaren norabidea zuzentzeko aukera eman diezaguten, kontuan hartu behar dugu zertan huts egin dugun eta zertan asmatu, ebaluazio prozesu kuantitatiboak nahiz kualitatiboak egitea ahalbidetuko diguten tresnak eta irizpideak baliatuta.

Baina ebaluazioa eta jarraipena ez ezik, behar-beharrezkoa da produktuen **identifikazio** egoki bat ere, produktuak errealitateari ahalik eta hobekien egokitzeko.

Eta egiten ari garen hori, ematen ari garen urratsak, eginahalez lortzen ari garena **ikusarazi, gizarteratu eta partekatu behar dugu**.

Azkenik, Garapenerako Hezkuntzako prozesuak modu ludikoan bizi nahi ditugu, **lasaiago**, egiten ari garen horretaz **gozatuz** eta horretan sinetsiz. Baina ez arinkeriaz, baizik eta gure eguneroko jarduerara ekartzeko moduko teknika eta ohitura berrien bidez.

## ERAGIN ETA DIMENTSIO POLITIKOA

---

### 10 Generoari buruz

Nola lortuko dugu gure eragin politikoari genero ikuspegia atxikitzea?

Agian, hasteko, h bat adostu beharko genuke, antolakunde osoak gauza bera ulertzeko generoari buruz, genero ikuspegiari buruz, berdintasunari buruz, berdintasunik ezari buruz... hitz egiten denean, eragin politiko guztia norabide berera bideratzearen.

Eragin politikoa gauzatzen duten pertsonen generoari buruz **sentiberak izateaz eta prestakuntza edukitzeaz** gainera, ezinbestekoa da **genero egitura aitortu** bat edukitzea, kontratupeko langileek nahiz boluntarioek osatutako lan talde bat edukitzea, antolakunde mailan genero ikuspegia lantzeko, eta eragin politiko hori «kalera ater» baino lehen kontrastatzeko kide erreferenteak horiek izatea.

Eragin politikoak atxikita izan behar du genero ikuspegia, **zeharlerro guztien zeharlerroa** baita eta **berdintasunik eza elikatu egiten baita hari aurre egin ezean**. Eragin politikoak berdintasuna aintzat hartzen ez badu, elikatu egiten du. Horrenbestez, alde zurretik gogoeta sakona egin beharra dago. Generoari dagokionez, ez dago helmugarik, gai ziklikoa da eta ez du amaierako punturik, beti dago beste galdera bat, beti dago aurrerago jotzea.

Zergatik ez sustatu genero gaien buruzko eragin politikoa, antolakundearen beraren barruan, lehenik, eta kanpora begira, ondoren? Galderak sortzen dira hori «nola egin» ar-

gitzeko: nork erabakitzen du zer gaitan gauzatu eragin politikoa? Nola? Zer bidetatik? Galdera horien –eta beste batzuen– erantzunen arabera, genero ikuspegia nola atxiki imajinatu ahal izango dugu.

Era berean, ikusten dugu **emakumeok espazio publikoa berrokupatzeko** erronka dugula. Eta **gizonok**, berriz, **espazioa gainokupatzeko pribilegio maskulinoa** dugula aitortu behar dugu, eta hari **uko egin**, **politikoki eta ideologikoki**, eta **hori nola egingo dugun argitu**. Adibidez, talde bateko esku-hartzeak kontrolatu: gizona naizen heinean, oratoria oparoa dudala jabetu behar dut; eta, horretaz jabetzen naizelarik, nire burua kontrolatzen dut eta besteek kontrola dezaten uzten dut, espazioa ez gainokupatzeko. Eta horrek aldaketa dakar.

Ikusten dugunez, benetan zaila da gizonentzako erronka –gizonoi dagokiguna–. Sekulako pagotxa izan eta hari **uko egin beharra** esan nahi du, **prozesu pertsonal latz** bat eskatzen du, eta zaila da horretan ari ez diren gizonak erakartzea. Era berean, ordea, zer irabazi asko dago eta aise ikusaraziko diegu gizonen eredu maskulino hegemoniko honek bizitza hondatzen diela. Ikerketa, idatzi eta material pedagogiko bikain ugari argitaratu dira... Aldi berean, emakumeok ere lan handia egin beharko dugu **espazio publiko hori berreskuratzeko** ikasteko, erosoago sentitzen garelako itzaletan, hori delako ikasi duguna eta horrela gizarteratu izan garelako urte askoan. Horri gehitu behar zaio (patriarkatuaren eraginez) esparru eta sektore jakin batzuetan **emakumeei espazio publikoan parte hartzeko eta esku hartzeko zilegitasun txikiagoa** aitortzen zaiela gizonen baina. Gure antolakundeetan ere, askotan, ez da gauza bera izaten emakume batek hitz egitea edo gizon batek hitz egitea, bereziki emakumea talde teknikoko kidea bada eta gizona Zuzendaritza Batzordekoa. Aipatzekoa da, halaber, **koherentzia falta instituzionala**, genero ikuspegi landua aldarrikatzen duen diskurtsoa saltzen baitu baina benetan agertzen direnak Zuzendaritza Batzordea eta GKEaren zuzendaria izaten baitira, nahiz eta gauzak hobekien azal ditzakegunak kalean ari garenak izan, emakumeak, hain zuzen ere.

Ideia interesgarria iruditzen zaigu, halaber, **gizonek eta emakumeek eragin politikoa zer baliotan oinarritzea proposatzen dugun** aztertzea: balio maskulino hegemonikoe-tatik, balio ez-maskulinoetatik, zaintzatik, hezkuntzatik, etab.; hau da, balio femeninoekin lotuagoak diren balioetatik.

## 11 Subjektuei buruz

Nola bideratu dezakegu eragin politikoa, kontuan harturik zer-nolako egitura zurrunkak dituzten administrazio publikoak, unibertsitateak eta, batzuetan, gure antolakundeek ere, besteak beste?

Eragin politiko hori bideratzeko egokiena zer den imajinatu dugu, jakinik ez dela erraza zurruntasun horri aurre egitea:

- a. **Sentsibilizazio** lanarekin batera (korridoreko lana), **salaketa** egin behar dugu, **proposamenak eginez**. Horretarako, **denbora eta baliabideak** behar ditugu.

- b. Beharrezkoa da antolakundeek **barne eztabaida eta gogoeta prozesu** bat bideratzea, pertsona guztiek adierazteko eragin politikoa bideratu nahi duten, zer-nolakoa, zer gairi buruzkoa... Eztabaida hori antolakundetik kanpo eragiten hasi aurretik egin behar da.
- c. Eragin politiko koherentea bideratzeko, garrantzizkoa da **adituak izatea** eragina gauzatu nahi dugun **gai** horretan.
- d. Garrantzizkoa da, halaber, **antzeko antolakundeekin sareko lana** bideratzea.
- e. Eragin politikoaren bidez aldaketak lortzeko, **prozesu** bat behar da. **Unean uneko ekintzak** (ikasketa amaierako proiektuak, urteko une bereziarako ekintzak, etab.) **eragin prozesuan** txertatu eta hura sendotzera **bideratu** behar dira. Boteregune zurruntara iristeko ezintasunak prozesuka lan egitera eraman gaitzake, eta, horrela, botereguneetan ez dauden baina aldaketa bideratzen duten kideen bidez eraldaketa sustatzera. Prozesu luzea da.
- f. Eragin politikoko gure lanean noraino amore emateko prest gauden zehaztea, **gehieneko eta gutxieneko muga** batzuk finkatzea.
- g. **Eskubideen jabeen lagun egitea**, kide horientzat zubi lana egitea, eragin politikoko subjektu aktiboak diren heinean eta gure egitekoak jabeakuntza prozesuan, borrokan, ikerketan lagun egitea izan behar duen heinean. Batzuetan, gertatu ohi da gureak ez diren borrokez jabetzen garela, baliabideak eta jende gaitua ditugulako; baina ez dugu ahaztu behar eskubideen jabeen berei dagokiela zeregin hori, beren garapenera subjektu aktiboak izaki.

Batzuetan, argi zehaztu beharra dago zenbateraino eragin behar dugun, eta aztertu ea estrategikoki komenigarria den **zurruntasuna saihestea edo hari aurre egitea**. Kontu bat da zurruntasunaren barruan nola moldatzen garen gauzak egiteko, eta beste kontu bat aldatu nahi dugun horren kontra egitea. Batzuetan, **gorputza jarri** beharra dago, eta beste batzuetan, berriz, **modu arinago edo lausoagoan** lagun eta bidera daiteke aldaketa.

Bestalde, antolakunde gisa, **helburu global handinahi** bat izan dezakegu, oraindik beteko ez dena (adibidez, Atzerritartasun Legea ezabatzea eta Atzerritarrak Atxilotzeko Zentroak desagerraraztea), eta, bien bitartean, **bestelako estrategia, baliabide eta ekintza batzuk erabiltzea** (zaintza, salaketa...). Horrek eztabaida sortu ohi du, helburu globalarekin bat ez datozen ekintza batzuekin «gure burua sistemari saltzen» ari garela interpreta daitekeelako. Bestalde, azken helbururainoko prozesuak oso luzeak direnez, era horretako «adabakiak» erosoak gerta litezke, eta antolakundeek sistemari lan zikina egiteko eta haren konplize bihurtzeko arriskua dago. Nolanahi ere, **lanak dimentsio politikoaren ikuspegiari, Giza Eskubideen defentsaren eta sustapeneren aldeko ikuspegiari jarraitzen badio**, elkarte osoak argi badauka eta jabetzen bada, eta gure lana berraztertu, gelditu eta ongi ari garela ikusten badugu... ez gara ari «gure burua saltzen».

Eta, alderdi horretatik, funtsezkoa da **sareko** lana, nor bere esparru eta errealitatetik jardun baitezakegu. Zure indarrak beste indar batzuekin osatzen badituzu –adibidez, gizarte mobilizaziorako gaitasun handiagoa duen indar batekin–, urrunago iritsiko zara.



Elkarteen barruan, **informazioa dute batzuek, eta presioa egiteko ahalmena beste batzuek. Horiek uztartzea da kontua.** Sarean lan eginez, batzuek ikerketa egin dezakete beste batzuk ikerketa horiez baliatuta urrunago iritsi daitezten, esaterako.

## 12 Dimentsio politikoari buruz

Nola lortuko dugu Garapenerako Hezkuntzaren dimentsio politikoa gure lan guztian presente egotea, eragin politikoko lanean ez ezik?

Beharrezkoa iruditzen zaigu partaidetzaren bidez eta ahalik eta aniztasun handiena bilduta definitzea **zer ulertzen duen antolakundeak dimentsio politikoa esaten denean** (aurrerantzean, DP), hizkuntza sinple eta ulergarri batez, nahasmenik ez sortzeko moduan (adibidez, alderdi politikoeekin) eta antolakundearen testuinguruari eta errealitateari egokিত. DPri dagokionez, ezaugarri komun batzuk dituzte antolakunde guztiek, baina badira antolakunde bakoitzaren bereizgarri diren beste ezaugarri batzuk. Garrantzizkoa da azterketa hori egitea, egunerokotasunari erreparatzea, kontuan hartzea zer gai eta norekin lantzen ditugun, horrek atxikiko baitio dimentsio politikoa gure lanari.

Eta definizioa adostutakoan... **barne mailako berrazterketa praktikoa eta teorikoa** egin beharko da: DP presente daukagu gure teorian (egitekoa, gogoeta estrategikoa...) eta praktikan (alderdi pertsonala barne hartuta)? Era berean, garrantzizkoa izango da beste antolakunde batzuen «sukaldean» DPri buruz zer lan egiten ari diren jakitea, **kanpo mailako erkatzeen bidez.**

Hurrengo urratsa litzateke gogoeta teoriko eta praktikoa hori **alderdi ideologikora eta praktikora** hedatzea, eta horretarako bitartekoak jarri beharko dira. Batzuetan, kanpo laguntza beharko da, metodologia egokiarekin batera. Eta oso lagungarriak izango dira jarraipena eta sistematizazioa.

Hemen ere **jabetzea** aipatu behar dugu, garrantzizkoa baita urrats horien guztien bidez antolakundeko pertsona guztiak DPren gaineko gogoeta teoriko eta praktikoa horretaz jabetzea. Horrek ez du esan nahi antolakundeko kide guztiek denean jardun behar dutenik, baina beharrezkoa da denak ordezkatuta egotea lan hori egiten ari diren taldeetan eta ulermena eta jabetzea errazteko hizkuntza soila erabiltzea; arlo orotako kideen egunerokotasunari, formulatzean matrizean adierazitako nahiei estu loturiko planteamenduetatik eta errealitateetatik abiatuta gogoeta egitea... baita probokatzu ere: «dimentsio politikorik gabe, ez duzu ezer eraldatuko».

Beharrezkoa da, bestalde, antolakundearen barruan Garapenerako Hezkuntzarako **aukera, borondate politikoa** izatea, DP funtsezkoa baita Garapenerako Hezkuntzarekin sustatu nahi den eraldaketarako. Aukera horren adierazgarri litzateke, beste gauza askoz gainera, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jartzea gogoetaren lan gehigarriaren zama arintzeko, motibazioa galaraz bailezake bestela.

Eta oso kontuan hartu beharreko alderdia da, orobat, genero ikuspegia. **Genero ikuspegia** nabarmentzeko premia ikusten dugu, eta, DPri buruzko gogoeta propioa eginda ere, harekin lotua litzateke.

Eta, jakina, prozesu hori, bide hori **gozagarria eta motibatzailea izatea eta alai eta atseginez bizitzea** nahi dugu.


Lankidetzaren taldeek Hegoaldearekin loturiko alderdi praktikoei buruzko gogoeta egin ohi dute, baina askoz ere arreta gutxiago ematen diote, edo batere ez, oinarri ideologikoari. Antolakundearen egituraren eraginez, «**Garapenerako Hezkuntzaren ondare**» eta hark sustatzeko arlo gisa ageri da DPri buruzko lana, dimentsio politikoaren definizioa; finantzatzaileen deialdian ere hala zehaztuta dago. Horrek guztiak **Garapenerako Hezkuntza eta lankidetzaren lantzeko modu jakin bat taxutzen du**. Gure ustez, hau da egokiena: DP **Garapenerako Hezkuntzaren eta lankidetzaren atzerkia** izatea.

Hala, erronka handi bat topatuko dugu aurrez aurre: antolakunde osora **hedatzea Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegi hori** eta antolakundearen funtzionamendua eta izaera berdintasunezkoagoa izatea, prozesuetan oinarrituagoa izatea... Bestalde, Garapenerako Hezkuntza alderdi femininotzat hartzen da –boteretik gabekotzat– eta, horrenbestez, handinahia litzateke pentsatzea «boteretik gabekoak» eragingo diola lankidetzari –alderdi maskulinoari, «boteredunari»–, ez garelako botere maila beraz ari. Gauza bera gertatzen da generoarekin: nola eragingo ditu aldaketak boteregunerik ez duen genero talde bategi? Zirikatu egingo du, agian, baina ez aldatu; eta horrek etsipena sortzen du... Ez da ezer eraldatzen, antolakundearen esparru jakin batzuen borondatea ez delako hori, beren pribilegioei eta egiteko moduei eustea baizik. Agian, **estrategiak aldatu beharko dira eraldaketa bideratzeko**.

# HAMABI GAIEN JATORRIA: SYSTEMATIZAZIOA, LAU EREMUTAN

Prozesu honetan zehar, lau sistematizazio garatu dira. Eta lau izan dira, beraz, sistematizazioaren abenturari heldu dioten antolakundeak: SETEM Hego Haizea, antolakunde egitura eta kultura ardatz hartuta; Euskadiko Elkarbidea, metodologiei eta berrikuntzari dagokionez; Euskadi Kuba, produktuetan oinarrituta; eta Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, eragin eta dimentsio politikoaren esparruan.

Ibilbidea, talde esperientzia eta horretatik asko ikasteko gogoia partekatu dute. Hona hemen lau antolakundeek egindako bidea, eta lan horretatik ateratako ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak.





# HEGO HAIZEA-SETEMEN

## SUKALDEKO ERREZETA BILDUMA BERRIA

SETEM Hego Haizea garapenerako GKE bat da, eta tokiko hezkuntza ekintza lantzen du, eraldaketa orokorrerako bitarteko gisa. Garpenerako hezkuntzaren ikuspegi berri bat saiatzen ari gara, metodotik haragoko ondorioak dituen, gure ustez; gure antolakundearen kultura eta egituraren ondorioak dituen, hain zuzen. Horrek bultzatuta, Euskadiko Elkarbidearen proiektuari heltzea erabaki dugu, gure esperientzia sistematizatzeko eta gure bizipenetatik ikasteko aukera emango digula iritzita. Sistematizazio taldean SETEMeko arlo desberdinetako 3 kide aritu gara, baina antolakunde guztiako ordezkariak parte hartu dute prozesuan.



### 1. ANTOLAKUNDE EGITURA ETA KULTURA

## SETEM HEGO HAIZEAREN HELBURUA, XEDEA ETA ARDATZA

Sistematizazio prozesu honetan, hiru galdera giltzarri ditugu gure gogoeta eta analisi kritikoa bideratzeko. Eta horien bidez definitu genuen gure sistematizazioaren helburua, zedarritu genuen haren xedea, denboran eta espazioan, eta zehaztu genuen ardatza, hau da, esperientziaren zer alderditan genuen interes gehien.

### 1. Sistematizazioaren HELBURUA: zertarako sistematizatu?

«Garapenerako Hezkuntzan aurrera egiteko partaidetzari buruzko ikerketa eta pres-takuntza» proiektuak oinarritzko makro helburu bat proposatzen du lau sistematizazio prozesuetarako:

*Ikaskuntzak eskaintzea eta partekatzea, Garapenerako Hezkuntza sustatzeko, SETEMi dagokionez, antolakunde kulturaren eta egituraren arloan.*

SETEMeko sistematizazio taldeak helburu propio hau finkatu zuen bere sistematizazio prozesurako:

*SETEM Hego Haizearen antolakunde estrategia hobetzeko gakoak aurkitzea.*

Antolakunde estrategia esapidearekin hauxe adierazi nahi dugu: zer izan nahi dugun SE-TEM Hego Haizea gisa, eta nola eraman dezakegun hori gure antolakunde jardunera.

### 2. Sistematizazioaren XEDEA: zer esperientzia sistematizatu nahi dugu?

*SETEM Hego Haizea Euskadiren udalerrri etikoen esperientzia, 2009ko urtarriletik 2011ko urtarrilera (12ra).*

Esperientzia horren subjektua SETEM Euskadi antolakundea da (EAEko hiru lurraldeak), haren baitako espazio guztiak barne hartuta:

- Boluntarioen batzordeak
- Arlo teknikoak (sentsibilizazioa, prestakuntza; nazioarteko lankidetzak; komu-nikazioa eta marketinga; administrazioa eta finantzak; zuzendaritza)
- Zuzendaritza Batzordea
- Bazkideak

SETEMek harremana duen gainerako subjektuak (bazkideak, Hegoaldeko partekideak, sentsibilizazioan diharduten beste talde batzuk, sareak, prestakuntza ekimenetako ikasleak, administrazio/erakunde publikoak, gizarte hedabideak) presente egongo dira, antolakundearen lanaren parte diren heinean, baina sistematizazioa ez da subje-ktu horietan oinarrituko, haiek SETEMekin dituzten harremanetan baizik.

### 3. Sistematizazioaren ARDATZA: esperientziaren zer alderdi nagusitan dugu interes gehien?

*SETEM Hego Haizeari, antolakunde gisa, eta sentsibilizazio taldeari lan antolaketaren eta antolakunde ikuspegiaren arloetako barne koordinazioan aurrera egitea ahalbidetzen edo eragozten dieten elementuak.*

- Lan antolaketa diogunean, alderdi logistikoak adierazi nahi ditugu, hala nola arduraldiak, funtzioak, egitekoak, etab.
- Antolakunde ikuspegia diogunean, berriz, alderdi ideologikoak esan nahi dugu; hau da, egitekoa, ikuspegia, jarrera, harremanak, sareak, etab. .

### ESPERIENTZIAREN KONTAKIZUNA

2007az gerotik, hainbat aldaketa saiatu genituen SETEM Hego Haizearen sentsibilizazio-hezkuntza lanean. Izan ere, gure lana «prestakuntza ekimen solteen» hurrenkera soila izan zedin saihestu nahi genuen, eta sentsibilizazio/hezkuntza lanaren efektua areagotzeko bideak bilatu.

2008an, «Udalergi etikoak» programa lantzen hasi ginen. Hezkuntza prozesu bat da, portaeran aldaketak sustatzeko eta epe luzera begirako sareak eratzeko xedea duena. Zer talde edo elkarterekin lanean ari garen, horietako bakoitzaren neurriko harremanak ezartzean eta lantzean datza, norberaren testuinguruari eta lanari egokituriko kontsumo kontzientea eta arduratsua landu eta gauzatu dezaten.

Aldi berean, sentsibilizazio taldeak ikusi zuen marko logikoaren ikuspegia ez zela egokia guk nahi genuen moduan lan egiteko. **Hedadurak Mapatzeko** metodologiaren berri izan genuen, ezustekoan, eta hura ikasteari ekin genion, gure sentsibilizazio lanean txertatzeko. Lehenengo urratsetan SETEM Hego Haizearen zuzendaritzak ere parte hartu zuen, sentsibilizazio-hezkuntza taldeaz gainera.

2009ko urtarrilean hasi ginen, formalki, **Hedadurak Mapatzeko** metodologiari jarraituz lanean. Sentsibilizazio-hezkuntza taldeko kide batek metodologia aztertu, eta taldeko gainerako kideei transmititu zien. Sentsibilizazio taldea bere kasa elkartzen hasi zen, bere lanari atxikitako gai espezifikoak aztertzeke, talde teknikoko gainerako kideetatik bereiz.

Baina zaila zen lan metodo hura estrategia berriari aplikatzea, segurtasunik ezaren, ohiko lanari zekarkion gainkargaren eta marko logikoaren ohitura alde batera uzteak zekarren aldaketaren eraginez (marko logikoa aplikatzen baitzen, izatez, baterako finantzaketan eta antolakundearen gainerako lan arloetan). Aukera berriak ikusten genituen, baina, fase hartan, halako anbiguotasun eta etsipen bat sumatzen ziren, alternatiba argi eta behin betikoa aurkitu ezinaren eraginez.

2009ko apirilean, **SETEM-Hego Haizearen plan estrategikoa** prestatzeari ekin genion. Jauzi kualitatibo nabarmena izan zen aurreko planarekin alderatuta, baina ez zuen etenik ekarri. Ez genuen gure gain hartu, modu esplizituan, Hedadurak Mapatzeko metodoa,

baina horren inguruan sentsibilizazio taldeak egindako gogoeten emaitzak txertatu ziren, eta, horri esker, SETEMen eginkizunari eta egitekoari buruzko ikuspegi berriak agertu ziren. Hala, beste sentsibilizazio eredu bat finkatu zen, erantzukizunak banatuta diharduten sare, partzuergo eta boluntarioena, antolakunde ereduak aldaketa batzuk eragin zituen. Ez zen eredu hori gure gain hartzeko erresistentziarik agertu antolakundean, baina bai zalantzak, ezezaguna zen horri buruz eta hura aurrera eramateko ahalmenari buruz. Nafarroan arlo guztiek eta Zuzendaritza Batzordeak egindako topaketa batean, SETEM Hego Haizea zer den, zer izan nahi duen, zer egin nahi den... eztabaidatu zen. Alderdi ideologikoetan jarri zen arreta guztia, aritzeko erari loturikoak aurreragorako utzita. Partaidetza eta demokrazia nagusitu ziren gune hartan, eta, behingoz, gai horietan sakondu genuela sentitu genuen; handik, gainera, adostasun argi eta sendo samarra atera zen.

2009ko irailerako, plan estrategikoaren aritzeko eraren alderdiari heldu genion, zuzendaritzak proposatu eta arloka eztabaidatutako oinarritzko dokumentu batetik abiatuta. Talde teknikoa sendoa zen, finkatuta zegoen eta oso landuta zeukan dokumentua. Tentsio eta desadostasun handiagoa izan zen, agian, alderdi ideologikoari buruzko eztabaidan baino; seguru asko, denboraz larri izateak ezarri zigan kanpo presioaren eraginez, besteak beste, ezin izan baikenuen osoko bilkuran jardun lanean eta eztabaidan, taldeka baizik. Plana ekarpenek proposatutako aldaketak kontuan hartuta adostu zen.

Urtearen amaiera aldera, sentsibilizazio-hezkuntza taldean «**ez atzera ez aurrera**» geundela sumatzen hasi zen, ezin baitzuten lortu bere helburu guztiak, udalerrri etikoen eguneroko lan dinamikak eskatzen duen arretaren ondorioz. Batera ezintasuna sortu zen abian genituen proiektuen egutegiaren eta hedadurak mapatzeak behar duen malgutasunaren artean. Ohiko lanari Hedadurak Mapatzeko lana eta korrontearen kontra ibili beharra gehitu zitzaizkion. Talde teknikoan ez zen eztabaidatu lan edo zeregin jakin bat zeren arabera den edo ez den lehentasunezkoa, eta tentsioa sortu zen teoriaren eta praktikaren artean. Gorabeherak gorabehera, nolnahi ere, ez zen etenik gertatu sentsibilizazio-hezkuntza taldean.

2010. urtearen hasieratik, kanpo jarduera bizia gauzatu zuen SETEM Hego Haizeak, plan estrategikoarekin bat etorrira, sareetan, partzuergoetan eta abarretan parte hartzearen aldeko apustua egiten baitzuen planak. Igo egin zen SETEM Hego Haizearekiko kanpo eskaria, 2009aren hasieratik goranzko joera zuena.

2010eko otsailean, Hedadurak Mapatzeko metodoari sostengua emateko kanpoko aholkulari baten laguntza jaso zuen sentsibilizazio-hezkuntza taldeak, eta beste kide bat sartu zen talde horretan lanera; eta bi berrikuntza horiek dinamika berri bat sortu zuten. Aurrez adostutako proiektua murriztea erabaki zen, bizitako esperientzian oinarrituta eta proposatutako aldaketak ez lortzeko arrazoen azterketa xehea eginda. Lan horri esker, sendotasun eta gaitasun handiagoa hartu zuen taldeak, nahiz eta zalantzak izan Hedadurak Mapatzeko metodoa talde bazkideekin praktikan jartzeko moduari buruz. Hala, erabaki zen aurrez haiei begira landutako proposamenaren profila murriztea, eta proposamen errealistagoak egitea, monitorizazio tresnak sortzearekin batera. Talde bazkideak zedarritzea erabaki zen, eta barne lanerako dekalogo bat prestatu genuen talde horiekin gaiari buruz agerian hitz egiteko. Sentsibilizazio taldearen bilakaera eta zalantza horiek ez ziren antolakundeko gainerako arloekin eztabaidatu.



Hedadurak mapatzea antolakunde osoaren jardunean eragina izaten hasi zen, sentsibilizazio-hezkuntza taldearen eskari eta ekarpen berrien bidez. Gai horiek talde teknikoaren bileretan agertzen hasi ziren, eta inplikazio eta interes handiagoa sumatzen hasi zen sentsibilizazio taldearen eta gainerako kideen artean; pixkanaka, agendan gero eta tarte handiagoa hartzen hasi ziren «sentsibilizazio» gaiak.

Urtearen erdialdera, bilera egin zen sentsibilizazio-hezkuntza taldearen koordinazioa eta, beraz, eraginkortasuna hobetzeko. Bilera hartan, aritzeko erarekin loturiko neurriak eta konpromisoak hartu ziren. Edonola ere, oro har, alde batera gelditu ziren, gainkargarik ez eragiteko. Era berean, erabaki zen sentsibilizazio taldearen aktak talde tekniko guztiari helaraztea, bilerak aritzeko, begi bistakoa baitzen taldeko gainerako kideek ez zutela interes handirik horretan. Praktikan, kalte egin zitzaion komunikazioari, eta etsipena sortu zuen taldeak ikuspegi berriari halako garrantzia emanik antolakundeak hura oso aintzat hartzen ez zuela ikusteak.

Abenduan, sentsibilizazio-hezkuntza taldeko kide batzuek bidaia egin zuten Alburquerquea (Extremadura), CALA taldeak antolatutako Garapenerako Hezkuntzako jardunbide egokien topaketara. Udalerri etikoen esperientzia aurkeztera joan ziren. Zalantzati joan ziren eta denbora asko eman behar izan zioten aurkezpenari, baina harrera bikaina egin zieten, eta horrek kemena eman zion taldeari, metodoaren eta udalerri etikoen estrategia-riren ikuspegia zuzena zela ikusirik.

## ONDORIOAK, IKASKUNTZAK ETA GOMENDIOAK

### Sarrera

SETEM Hego Haizeak sentsibilizazio estrategia aldatzearen eta Hedadurak Mapatzeko metodoa erabiltzen hastearen garrantziari buruz egindako gogoetak lotura estua du kanpoko testuinguruarekin; izan ere, marko logikoaren ikuspegiaren erabilera nagusitu da kanpoan, baina ikuspegi hori ez dator bat antolakundean egin nahi den lanarekin eta lan egin nahi den moduarekin.

Hedadurak Mapatzeko metodoa lantzen hasitakoan, lan klandestinoan jardutearen sentipena zegoen; ez zegoen horretaz hitz egiterik, inor ez zebilen horretan. Kontua argiago ikusi eta antolakundetik kanpo horri buruz hizketa hasi ginelarik, jendea gutxi asko ados zegoela ikusten genuen, eta horrek sendotasuna ematen zion proposamenari. Konturatu ginen, azkenean, sarean lan eraginkorra egiteko eskari egiaztatuarekin oso bateragarria zen metodologia bat eraiki genuela.

Proposatutako estrategia berria oso dinamikoa denez, pixkanaka aldatuz joan zen SETEM Hego Haizea osoaren «egiteko» modua, bai barne mailakoa bai kanpo mailakoa. Eta oso positiboak iruditzen zaigu ezaugarri hori, etengabeko azterketa eta berregokitzapena egitera behartzen duelako.

Hurrengo atalean, ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak aztertuko ditugu, honako bloke hauetan bilduta:

1. Hedadurak Mapatzeko prozesuaren hasiera
2. Pertsonak, arloak eta barne koordinazioa
3. Efectuak:
  - (I) Hedadurak mapatzearen eta udalerrri etikoen prozesuaren efektuak, sentsibilizazio-hezkuntza arloan, maila teknikoan nahiz praktikoan.
  - (II) Hedadurak mapatzearen eta udalerrri etikoen prozesuaren efektuak, antolakundearen gainerako arloetan eta barne koordinazioan, maila teknikoan nahiz praktikoan.
  - (III) Gizon-emakumeen egitekoa, lidergo estiloak eta genero harremanek antolakundearen dituzten efektuak.

## 1. SETEM Hego Haizean Hedadurak Mapatzeko prozesuaren hasiera

### Ondorioak

- ✓ Abiapuntuko errealitatea sentsibilizazio-hezkuntza taldean eta antolakundearen gainerako arloetan dagoen esperientzien **heterogeneotasuna** da. Hala, taldea ez zen abiatu kontzientzia eta inplikazio maila beretik, sentsibilizazio eredu zaharretik berrira aldatzeko premiari dagokionez. Horrek mantsotu eta zaildu egin zuen aldaketa. Premia hori barneratuta ez zegoenez, partekatu gabeko esperientziak, sentimenez bateratasunik eza eta gogoeta sakonagoa egiteko premia nabarmendu ziren. Denak puntu beretik abiatzeko **hasieran «bateratze lana»** egin izan balitz, asko erraztuko zitekeen barneratze hori.

«Prozesua» modu ez-formalean abiatu zen, **udalerrri etikoen estrategia eta, tresna gisa, Hedadurak Mapatzeko metodoa** nahastuta. Estrategiaren eta metodoaren arteko bereizketarik eza taldean sartu berri ziren kideen artean nabaritzen zen, batik bat. Eta, aldiz, baten eta bestearen arteko desberdintasunak ohartzen zirenak ez ziren jabetzen hortxe zegoela arazoaren parte bat.

- ✓ Antolakundeak hedadurak mapatzearen alde egindako apustua sentsibilizazio-hezkuntza taldera mugatu zen. Antolakunde mailan alderdi ideologikoei loturiko aldaketak gauzatu nahi ziren. Alderdi praktikoan aldaketa, aldiz, ez zen hartzen antolakunde osoaren kausatzat, zer gertatzen zen ikusi arte zain gelditu zen antolakundeak, eta, «sentsibilizazio-hezkuntza taldeko kide baten kontua» balitz bezala hartzen zenez, ez zitzaion lagundu aldaketa haiek abian jartzen, eta ez zen prozesuaren plangintzarik egin helburuak, metodologia, metodoa eta abar zehaztuta.

Jabetzen gara prozesua kide bakar batek sustatzearen ondorioz sortutako zailtasunak eta arazoak (bakardadea, sustatzaileak prozesua pertsonalizatzeko edo monopolizatzearen arriskua, interes eta partaidetza falta, motibazio eza) antolakundearen egiturak hura bere gain hartuta oreka daitezkeela, **planifikazioaren eta erantzukizunaren** bidez. Besteak beste, antolakunde osorako **zehartalde** bat sortzea, hasieran, prozesua bere gain har zezan.

Era berean, **prestakuntza teknikoak** Hedadurak Mapatzeko laneko partaidetza berdindu edo gaintu izango zutekeen. Segurtasuna emango zutekeen, eta mapatzea egiteko orduan izandako zalantza eta neke asko saihestu.

- ✓ Hedadurak Mapatzeko aurrerapausoak beste kide batzuekin eta sentsibilizazio taldeaz bestelako gune batzuetan (SETEM Hego Haizearen batzarra eta boluntarioak, Alburquerqueko CALAren jardunbide egokien topaketa) azaltzeak eta erkatzeak taldearen jabeak sustatu zuen, «gehiago sinesteko» bidea eman zuen. Taldearen barne konfiantza nahiz kanpo konfiantza bermatzeko garrantzizkoa izan zen.

## Ikaskuntzak

- ✦ Era honetako prozesuetan, lagungarria izaten da «**aldez aurretik esertzea**», bulegotik kanpora irtetea, gogoeta eta plangintza egiteko. Halaxe egin zen antolakunde osoan, Plan Estrategikoa lantzeko, eta SETEM Hego Haizea osoak plana bere gain hartzea ahalbidetu zuen. Horrela, sentsibilizazio-hezkuntza taldeak udalerrri etikoen prozesuari eta Hedadurak Mapatzeko metodologiari buruzko **sentimenduak eta estrategiak lerrokatu** ahal izango ditu.
- ✦ Abiapuntuko **diagnostikoa** egiteko, aldaketaren premia agerian uzteko eta nabarmentzeko eta taldearen eta antolakundearen barruan lerrokatzeko denbora hartzeak erraztu egiten du baldintza berdintasuna eta, beraz, partaidetza. Era berean, garrantzizkoa da antolakundearen barruan **gogoeta partekatzea** (zentzu zabalean: boluntarioekin eta zuzendaritza batzordearekin, edo arlo guztietan, gutxienez), baita prozesuaren **plangintza** egitea ere, **helburuak** argi adierazita eta barneratuta, antolakundearen apustu politikoa barne hartuko duten eta jendeari prozesuaren premia eta baliagarritasuna transmitituko dioten metodologia, prozedura eta tresna egokiekin, eraginkorrekin.
- ✦ Kontrastea eta norberarekiko konfiantza eskain dezaketen **kanpo baliabide, erreferente, laguntza eta aukerak** identifikatzea. Garrantzizkoa da kanpoan norbait izatea, laguntza **metodologikoa** emateko eta egoerak desblokeatzen laguntzeko.
- ✦ Hona hemen prozesu batel antolakunde egitura eta kultura aldatzen laguntzeko bidea ematen duten elementu batzuk:
  - Prozesuaren **ardura duten pertsonak edo zehartaldeak definitzea**. Kasu honetan, beharrezkoa da udalerrri etikoen estrategia **guztiok beren gain hartutako plan batean gauzatzea**, sentsibilizazio-hezkuntza taldera mugatu gabe.
  - Ez galtzeko, **metodologia argia eta plangintza izatea** (zehazteko nork zer egingo duen, eta zer epetan).
  - Gainerako arloekin **ikaskuntzak bateratzea** –hedadurak mapatzeari dagozkionak, kasu honetan–, arlo guztiek parte har dezaten eta bazter geldi ez daitezen.

Elementu horietako batzuk prozesuaren hasieran nahiz aurrerago defini daitezke.

## Gomendioak

- ➔ Zehartalde sustatzaile bat eratzea, askotarikoa, arlo askotako kideek osatua.
- ➔ Zehartalderik eratzerik ez badago, denbora hartzea ikaskuntzak antolakunde osoarekin partekatzeko.
- ➔ Prozesua behar bezala planifikatzea.

- Zehaztutako ardurak eta eginkizunak banatzea, zehartaldean nahiz antolakunde osoan, antolakunde osoaren inplikazioa lortzeko.
- Kanpo laguntza izatea alderdi metodologikoetarako eta korapiloak askatzeko.
- Prozesuarentzat eta antolakundearentzat egokien izango den metodologia erabiltzea, jendeak ez dezan hartu gainkarga gisa, prozesua benetan barneratuta egon dadin.

## 2. Pertsonak, arloak eta barne koordinazioa

### Ondorioak

---

- ✓ Antolakunde gisa asko hazteak jende berria eta indar berria dagoela esan nahi du, baina antolakundearen historiaren esentzia galtzeko beldurra ere eragin dezake. Egoera horretan, funtsezkoa da SETEM Hego Haizearen historia gizarteratzea prozesuan parte hartu ez duen jendearen artean, esentzia ez galtzeko.
- ✓ Bestalde, udalerrri etikoen estrategia eta Hedadurak Mapatzeko metodoa **guztiz bateragarriak** dira SETEM Hego Haizearen **ibilbidearekin eta helburuekin**, baita bere bazkideekiko harremanarekin ere. Sumatu dugu beldurra ematen duela ikuspegi berrien transmisioak, eta zergatia galdetu da.
- ✓ Estrategia eta metodoa elkarri hain estu lotuta egoteak prozesua zailtzen du askotan, baina sendotu ere egiten du. Gainera, sentsibilizaziotik beste arlo batzuetara, pertsonetara, hedatzeko aukera ematen du. Abantaila handiak ditu.
- ✓ Antolakunde egituraren eta kulturaren aldaketa sustatzen duen **talde eragileak** gainerako guztiak inplikatu behar ditu, eta horretarako, ezinbestekoa da argi edukitzea prozesua, plangintza, metodologia, etab. Antolakundeko gainerako espazioak (boluntarioen batzordeak, arlo teknikoak, zuzendaritza batzordea, bazkideak) sekundarioak izango dira, aldi batez, baina gerora buru-belarri ekingo diote aldaketari, eta haren sustatzaile nagusi ere bihur daitezke.
- ✓ Udalerrri etikoen estrategia oinarrian, boluntarioen artean errotzea ez da lantegi erraza, luzera begira atsegingarriagoa gertatu arren. Hala, garrantzizkoa da oinarria eragile aktibo izateko gogatzeta, prozesuan murgilaraztea eta strategiaren partaide egitea. Hala egin ezean, erresistentziak agertuko dira. Nolanahi ere, **boluntarioen inplikazioa** ez da bat-batean lortzen: prozesu esplizitu bat eskatzen du, eta prozesu hori planifikatu egin behar da.
- ✓ Ez zaie berriazko arretarik eman prozesuan zehar kontratupeko langileen eta boluntarioen artean gertatutako aldaketei. Aurrera egin ahala ikusi da zer eragin duten prozesuan eta antolakundean.

### Ikaskuntzak

---

- ✚ Talde eragileko edo zehartaldeko kideek **antolakundearen baitako aniztasuna** islatu behar dute.
- ✚ Garrantzizkoak dira sentsibilizazio-hezkuntza taldeak gainerako arloekiko eta boluntarioekin **gizarteratze eta bateratze lana egiteko guneak**, antolakundeko kideek baztertuta daudela sentitu ez dezaten.
- ✚ Funtsezkoa da **talde teknikoak** abiapuntu hartzea udalerrri etikoen strategiari loturiko premiak, eta, hortik abiatuta, estrategia hori antolakundeak dagoeneko

dituen guneetan nola eta zer uneetan ezarriko den erabakitzea eta planifikatzea. Prozesua modu berean eta aldi berean bideratu beharko litzateke **boluntarioekin**.

- + Boluntarioek udalerriko etikoaren estrategiari buruzko zeharlanak egin dezaten, beharrezkoa da zeregin ia bakartzat udalerriko etikoekiko koherentzia sustatzeko duten kideak izatea lau batzordeetan.
- + Prozesuaren **partaide izatearen** sentipena lortuko da **plangintzan eta hura abian jartzen** parte hartuz gero, nahiz eta aurrera begira ez egon prozesuan hain murgilduta.
- + Taldea txikia izanik, informazioaren transmisioa **informala** da eta, horren ondorioz, galdu egiten da askotan.

### Gomendioak

---

- Informazioa sistematizatzea eta idatziz biltzea, behar bezala gizarteratzeko.
- Gizarteratzeko, inplikatzeko, parte-hartzea sustatzeko estrategia bat (edozein) aurreikustea. Prozesuaren plangintza eta agenda zehaztea.
- Talde eragilean zeharkakotasuna aintzat hartzea, hasiera-hasieratik.
- Egituraren eta aldaketarako aukeraren arteko orekari garrantzia ematea.

### 3. Efektuak (I): Hedadurak mapatzearen eta udalerriko etikoaren prozesuaren efektuak, sentsibilizazio-hezkuntza arloan, maila teknikoan nahiz praktikoan.

#### Ondorioak

---

- ✓ «Gaitasuna gehiago dator bizitaketik, irakatsitaketik baino». Hau da bizipenetik eta esperientzia praktikotik ikasi behar da; gauza berriak ikastearekin batera, aplikatu egin behar dira ikaskuntza berri horiek.
- ✓ Gogobetegarria izan da udalerriko etikoaren lana metodologikoki eta estrategikoki lantzea eta eraikitzea, baina **ahalegin handia** eskatzen du. Ongi orekatu behar dira autoformazioak ematen duen sendotasuna eta nekatzeko arriskua.
- ✓ SETEN Hego Haizeak metodologia eta estrategia berria ofizialki bere ez egiteak eragina izan du sentsibilizazio-hezkuntzaren arloan, segurtasunari dagokionez oro har, eta erakunde finantzazailerik dagokienez, bereziki. Lotura estua du **norberaren bizipenarekin** eta **diru-laguntzen** sisteman sartzeak pentsamendu autonomorako gaitasuna mugatzearekin.
- ✓ Garrantzizkoa da jabetzea prozesu honek arlo askotara ekarritako aldaketek, hala nola, antolakundearen ikuspegira eta egitekora (plan estrategikoko berriak zehaztuta daude), boluntarioen eta kontratupeko langileen arteko lan banaketara eta beste erakunde batzuekiko lankidetzara ekarritakoez.

#### Ikaskuntzak

---

- + Garrantzizkoa da **antolakundearen estilo propiotzat hartzea estrategia eta metodologia**, eta SETEM Hego Haizea edozein instantzian aurkeztean (erakundeak, kide berriak...) askoz ere garrantzi handiagoa ematea udalerriko etikoaren strategiari. Ildo horretatik, funtsezkoa da lan hori ikusaraztea eta SETEM Hego Haizea guztian gizarteratzeko eta finkatzeko plangintza

egitea. Horrela, antolakunde guztiaren baitan gauzak aldatzeko modu hori baneratzten den heinean, askoz ere egokiago sendotu ahal izango da.

- ✚ Lan hori ikusaraziz eta zamak ordezkatzuz, «aurretiko» lana eta hedadurak mapatzetik eta udalerrri etikoetatik eratorritakoa aldi berean gauzatzeak sorturiko **agenda bikoitza** saihestuko da. Agenda bikoitz horrek gainkarga dakar, ohiko lan agendari aldaketa erantsi beharra dakarrelako, eta ez da bideragarria luzera begira.
- ✚ **Urteko Eragikera Plana** (UEP) idaztea, hedadurak mapatzea-udalerrri etikoak oinarri hartuta, talde teknikora eta bermeen batzordera iristeko modu gisa.
- ✚ Prozesuan metodologiari eta estrategiari buruzko laguntza eman duen **kanpo laguntzailearekin** lanean jarraitzea, segurtasuna areagotzen lagun dezan. Premiazkoa da pertsona horrek enpatia izatea strategiaren funtsarekin eta antolakundearen beraren unean uneko egoerarekin.

### Gomendioak

---

- ➔ Kontuan hartzea –ikusaraztean, gizarteratzearen plangintza egitean eta sendotzean– ez dela gauza bera zerbait bizitzea edo beste norbaitek zerbait hori erakustea. Alderdi emozional hori kontuan hartzea prozesuaren transmisioan. Ildo horretatik, gune informal eta ludikoak era daitezen bilatzea eta sustatzea, pertsonen arteko harremanak errazteko eta prozesuen parte direla sentiarazten laguntzeko.
- ➔ Gaitze autodidakta oso baliagarria da, baina kanpo laguntza bermatu beharra dago.
- ➔ Antolakundearen egituraren dauden guneak eta bideak baliatzea, eragiteko.
- ➔ Gizarteratze esparru espezifikoak planifikatzea eta aurreikustea (agenda). Agenda bikoitza izateak ekar ditzakeen bateraezintasunei eta arriskuei aurrea hartzea eta egoera hori konpontzea.Recomendaciones

## 3. Efektuak (II): Hedadurak mapatzearen eta udalerrri etikoen prozesuaren efektuak, antolakundearen gainerako arloetan eta barne koordinazioan, maila teknikoan nahiz praktikoan.

### Ondorioak

---

- ✓ Beste arlo batzuetan aldaketa sustatzeko presioa sentsibilizazio-hezkuntza arlotik dator; gainerako arloetan ez dago halako eskaririk. Sentsibilizazio arloak ez du eskaintza generikorik egin, egoera jakinei begirakoa baizik, eta, une jakin batean, beharrezko jotzen da udalerrri etikoen **estrategia** antolakundearen jarduera guztian **txertatzea**. Ikusten da nolabaiteko **polarizazio arriskua** dagoela: sentsibilizazio-hezkuntza taldea «bere udalerrri etikoekin» bide batetik eta antolakundearen gainerako arloetakoak beste bide batetik doazela. Egokia da polarizazio arrisku hori dagoela igartztea eta adieraztea, hura saihesteko.

Bizitako prozesuaren eraginez, sentsibilizazio-hezkuntza taldeak askoz ere arreta handiagoa eman behar die **beste arlo, estrategia batzuei...** eta haiekin elkarreraginean jardun behar du. Kohesioaren zama guztia sentsibilizazio-hezkuntza arloaren gain gelditzeko arriskua dago, eta kaltegarria litzateke hori. Erritmoak partekatu egin behar dira.

Sentsibilizazio-hezkuntza taldeak modu koordinatuagoan dihardu; ideiak eta lan ildoak argitu ditu, eta bide beretik doaz kide guztiak. Hedadurak Mapatzeko metodologiaz jabetuta, areagotu egin da sentsibilizazio-hezkuntza taldearen **kohesioa**.

Beharrezkoa ikusten da **Hedadurak Mapatzeko metodologia eta udalerrri etikoen estrategia antolakunde guztian txertatzea, aritzeko eran nahiz estrategian**:

- Aritzeko eran, gainerako arloekin, «konpartimendu itxiak» desegitea beharrezkoa delako.
- Maila estrategikoan, zentzua ematen diolako antolakundearen lan guztiari. Horixe izan da sentsibilizazio-hezkuntza arloaren esperientzia..

Kontua ez da antolakunde osora hedatzea «metodologiaz jabetzea» eta sentsibilizazio-hezkuntzaren sendotasuna eta kohesioa. Gainerako arloen ekarpenak hartu beharko dira abiapuntu, eta transmisio hori nola egin behar den aztertu, **ezingo baita besterik gabe batetik bestera estrapolatu**.

- ✓ Hedadurak mapatzeari buruzko plangintzan, ez da planteatu beste arlo batzuetara zabaltzea. **Ez dago bateratasunik udalerrri etikoen logika orokorraren eta plangintzaren artean**, logika hori antolakundearen plan estrategikoan adierazitakotik harago baitoa, plana lausoegia izanik. Horregatik gertatzen da desoreka, eta ona da horri hauteman izana.

Barne mailan ere ez dira beti-beti bereizten **alderdi estrategikoa (udalerrri etikoak) eta metodologikoa (hedadurak mapatzea)**, baina ikuspegi edo adierazpen kontua dela ikusten da, sakoneki zerbait baino gehiago. Garrantzizkoa da hori argitzea, barne mailan lehenik –taldearen baitan-, gerora gizarteratzeko.

- ✓ Estrategia eta metodologia horrekin, **tabu, mito, ohitura... asko hausten dira**, eta planteamenduetan **heldutasun handiagoa** lortzen, modu inkontzientean bada ere, hein handi batean.

## Ikaskuntzak

- ✚ Taldearen **bulegotik kanpoko bizikidetzak** helburu bikoitza du:
  - Jarraipena eta ebaluazioa egitea
  - Konfiantza giroa sustatzea
- ✚ Estrategia eta metodologia gainerako arloetara hedatzeko eta haietan txertatzeko erronka formalizatzea. Formalki adieraztea, eta norbaiti eskatzea beste arlo batzuetan udalerrri etikoen strategiari buruzko eztabaida hasteko edo lehenengo bilera prestatzeko. Udalerrri etikoen ikuspegia **gizarteratzeko eta eztabaidatzeko gune «ofizialak» sortzea**, gure burua ikuspegi hori barneratzera behartzea... dagoeneko eratuta dauden bideak baliatzea...
- ✚ Estrategia eta metodologia arlo guztietan txertatzeko plangintza prestatzea, eta lanak banatzea, proposamen bati jarraituz. Arloei buruz hitz egiten denean, kontratupeko langileak nahiz boluntarioen batzordeak hartzen dira kontuan.

- ✦ Talde teknikoaren bileren antolaketari eta dinamikari buruzko gogoeta egiten jarraitzea, koordinazioa hobetzeari begira eta sistematizazioaren ikaskuntzak txertatzeari begira, funtzionamendurako giltzarri gehiago aurkitu izanari esker.

### Gomendioak

---

- ➔ Kontu handiz ibili beharra dago aldaketa estrategikorako prozesu bat antolakundearen parte baten gain (arloan baten gain) gelditzearekin, kaltegarria izan baitaiteke.
- ➔ Antolakundearen baitako erritmoak aintzat hartzea.
- ➔ ... aurrez emandako gomendioak.

## 3. Efectuak (III): Gizon-emakumeen egitekoa, lidergo estiloak eta genero harremanek antolakundearen dituzten efektuak.

### Ondorioak

---

- ✓ Prozesu honetan, eragin gehiago izan dute rol eta ezaugarri pertsonalek, genero harremanek baino.
- ✓ SETEM Hego Haizean, genero politikaren instituzionalizazioa eta analisia falta dira. Ez dago tresnarik esplizitu zergatik gelditu ez den hautemateko. Litekeena da horren premiarik ikusi ez izanagatik izatea, antolakundea osatzen duten kideak ekitatiboak direla eta berdintasuna sustatzen dutela iritzita.
- ✓ Irizpide komunak falta dira antolakundearen, ez baitago SETEM Hego Haizearen genero diagnostiko bateraturik. Hedadurak Mapatzeko metodologia eta udalerritikoen estrategia lagungarriak dira antolakundearen barne nahiz kanpo ekitatea bermatzeko, horizontaltasuna sustatzen dutelako, baina lan hori ez da modu esplizituan egiten. Hedadurak mapatzeak beste metodologia batzuek baino berme handiagoa ematen du generoa lantzeko. Baina esplizitu egin eta landu egin behar da, ez kanpora begira soilik, baita barnera begira ere.

### Ikaskuntzak

---

- ✦ Kontua ez da genero ikuspegiari atxikitako adierazleak, emaitzak, etab. izatea, generoari loturiko gaien buruzko praktika zalantzan jartzea baizik.
- ✦ Garrantzizkoa da udalerritikoen etikoei eta hedadurak mapatzeari garrantzia ematea SETEM Hego Haizearen genero politikaren instituzionalizazio prozesuan. Gauza jakina da metodologia eta estrategia berriek genero berdintasunaren alde egingo dutela.
- ✦ Gizarteratzean, aintzat hartu behar da, metodologiaz harago, SETEMeko genero ikuspegiatik egindako profilen, funtzioen eta erlazioen analisia, edo pertsonen arteko harreman formal eta informala.

### Gomendioak

---

- ➔ Ohartzea generoaren auziak pisua eta garrantzia duela edozein erlaziotan, edozein prozesutan. Arreta jartzea horretan, errealitatearen analisian, gogoeta egitea zergatiari buruz... Emakume guztiak talde batean egoteak ez du esan nahi berdintasunezko harremanak eratuko direnik.



# GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN EBALUAZIO TRESNA BAT: «EBALUAZIO TXANTILLOIA»

Euskadiko Elkarbidea 1994. urtean sortu zen, eta handik zazpi urtera eratu zen, haren baitan, Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazio Saila. Harrezkero, ekintza asko eta asko gauzatu ditugu, eta gure lanean aurrera egiteko eta hobekuntzak ixertatzeko aukera eman digute ekintza horietatik eratorritako ikaskuntzek.



2. METODOLOGIAK ETA BERRIKUNTZA

Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazioa bitarteko ezin egokiagoa iruditzen zaigu aldatetaren kontzientzia politikoa sortzeko; gai askori buruzko proposamenak egiteko –garapen iraunkorrari, genero nortasunari, etorkinen eskubideen bermeari, talde partaidetzari eta kulturen arteko bizikidetzari buruz, esaterako– gaitasuna izango duten herritar kritiko, parte-hartzaile eta demokratikoak sortzeko.

Gure helburuetako bat Garapenerako Hezkuntza sendotzea da, eta horrek bultzatuta lan egiten dugu, hain zuzen ere, era honetako prozesuetan. Prozesu horiek beharrezkoak iruditzen zaizkigu, lagungarriak zaizkigulako gure praktiketatik eratorritako ikaskuntzak partekatzeo eta Garapenerako Hezkuntzaren arloan dihardugun antolakundeen baterako lanaren kultura sustatzen dutelako.

Oso hedatuta dago berrikuntza nagusiki ideia berriak, proiektu berriak proposatzean dartzala dioen ideia. Gure ustez, berritzeak gure jarduerak berraztertzea esan nahi du, eta aurrez aurre topatzen ditugun testuinguru berrietara egokitzea. Filosofia horri jarraituz, gure esperientziaren azterketatik abiatuta ikasteko tresna gisa sustatzen dugu sistematizazioa, eta gure jardueretako bat sistematizatuz praktikan jarri dugu, beste hiru antolakundeekin egin duten bezalaxe.

Euskadiko Elkarbidea genero berdintasuna lortzeko konpromisoa bere gain hartua duen GKE bat da, eta genero harremanak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera iristeko moduan aldatzearen aldeko apustua egiten du bere tresna metodologikoetan eta diskurtso politiko-ideologikoan.

Euskadiko Elkarbidearen sistematizazio prozesuan honako kide hauek parte hartu zuten: Iraixe Azuaga Fuentes, Mónica Fernández Vidal, Ana González Bringas, Ruth Quintana Esteban, Almudena Martín Parra eta Cecilia Von Sanden Viñoles.

Prozesuan parte hartu nahi duten kide eta antolakunde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, prozesuan egindako lanarengatik eta izandako partaidetza-rengatik.

## EUSKADIKO ELKARBIDEAREN HELBURUA, XEDEA ETA ARDATZA

Sistematizazio prozesu honetan, hiru galdera giltzarri ditugu gure gogoeta eta analisi kritikoa bideratzeko. Eta horien bidez definitu genuen gure sistematizazioaren helburua, zedarritu genuen haren xedea, denboran eta espazioan, eta zehaztu genuen ardatza, hau da, esperientziaren zer alderditan genuen interes gehien.

### **1. Sistematizazioaren HELBURUA: zertarako sistematizatu?**

«Garapenerako Hezkuntzan aurrera egiteko partaidetzari buruzko ikerketa eta prestakuntza» proiektuak oinarritzko makro helburu bat proposatzen du lau sistematizazio prozesuetarako:

*Ikaskuntzak eskaintzea eta partekatzea, Garapenerako Hezkuntza sustatzeko, Euskadiko Elkarbideari dagokionez, metodologiaren eta berrikuntzaren arloan.*

Euskadiko Elkarbideko sistematizazio taldeak helburu propio hau finkatu zuen bere sistematizazio prozesurako:

*Hezkuntza talde gisa, Euskadiko Elkarbidearen Garapenerako Hezkuntzaren ebaluazio tresna makroaren balio praktikoa eta kontzeptuala nabarmentzea (irteerako txantiloia).*

Iruzkinak: tresnarekin adiskidetzeko eta berradiskidetzeko nahia nabarmentzen da, baita tresna landu zuten Euskadiko Elkarbideko hezkuntza taldeko kideek egindakoa berriro bizitzeko nahia ere.

## **2. Sistematizazioaren XEDEA: zer esperientzia sistematizatu nahi dugu?**

*Euskadiko Elkarbidearen hezkuntza taldeak Garapenerako Hezkuntzaren ebaluazio tresna (irteera txantiloia) makroa lantzeko eta erabiltzeko izandako esperientzia (Bilbon, 2008ko otsailetik 2011ko martxora).*

- 2008ko otsaila eta ekaina bitartean egin zen lanketa
- Erabilera aldia 2008ko ekainetik 2011ko martxora bitarteko epera mugatu dugu

## **3. Sistematizazioaren ARDATZA: esperientziaren zer alderdi nagusitan dugu interes gehien?**

*Euskadiko Elkarbidearen ebaluazio tresna makroa prestatzeko zailtasunak eta lorpenak, honako alderdi hauei dagokienez:*

- *Baterako gogoetaren zeregina*
- *Berrikuntza, norberaren esperientziatik ekarpenak eginez eta sortuz (gure jarduna etengabe berrikusiz, garen horretatik abiatuta... lantzea)*
- *Dokumentuaren egitura*
- *Hitzartutako ebaluazio irizpideak*
- *Irizpideen edukia*
- *Planteatutako galderak eta adierazleak*

Berrikuntzari buruz dagoeneko egin diren zenbait iruzkin:

- Ez dago errezetarik (ebaluazio tresna egoera bakoitzaren arabera egokitu behar da)
- Aintzatetsi ondare propioa. Funtsezkoa da barne mailan metodologiarik egokiena zein den aztertzea
- Onartu beharra dago berrikuntzak bide bati heltzea eta beste bat baztertzea eskatzen duela, askotan

- Ona da talde gogoeta egitea
- Ez ahaztu jatorriaz (antolakundea nondik datorren, haren lan ibilbidearen nondik norakoak)
- Edan askotariko kanpo iturrietatik

## ESPERIENTZIAREN KONTAKIZUNA

---

### Aurrekariak

Euskadiko Elkarbidearen Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazio taldeari kezka sortzen zion ebaluazioak, baina artean ez genion heldu buru-belarri auzi horri. Ebaluazioaren aldeko apustua egiten genuen, oso metodo baliagarria iruditzen zitzaigulako proiektuak ikuskatzeko, haiek gauzatzen ari ginen bitartean, aukera ematen zigulako haiek doitzeko, eta, horrela, kalitate, eraginkortasun eta eragingarritasun handiagoa emateko. Bagenituen galdetegiak, testak, elkarrizketetarako galderak, etab.; baina ez geneukan ebaluazioak egiteko abiapuntu gisa erabiltzeko irizpide argirik. Kontuan hartzen ziren eraginkortasuna, eragingarritasuna, prozesukako lana, Garapenerako Hezkuntzaren gakoak, baina ez zeuden ebaluaziorako behar bezala zehaztuta.

### Tresna lantzea

Une hartan, ekintzak ebaluatzeko **EVALUAcción proiektua** koordinatzen ari ginen Euskadiko Elkarbidean, bi aholkularitza etxerekin batera: Kalida de a, Acompañamiento, calidad y desarrollo eta Iniciativas de Cooperación y Desarrollo. Proiektu hori koordinatzen hiru kide aritu ziren, hurrenez hurren: lankidetzat taldeko bi eta Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazioko bat. Proiektuaren lehenengo fasean, sentsibilizazioa landu zen; hain zuzen ere, euskal GGKEetan ebaluazioaren egoera aztertzeko diagnostiko bat egin zen, eta jardunaldi batzuk antolatu ziren. Bigarren fasean, ebaluaziori buruzko prestakuntza landu zen. Eta hirugarrenean, banakako laguntza eskaini zen, ebaluazioa antolakundearen gunere eta jardueretan txertatzeko. Hain zuzen ere, laguntza fase horretan erabaki zuen Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazio taldeak **barne mailako** (prozesuak, taldea) **eta kanpo mailako** (proiektuak, ekintzak) **ebaluaziorako tresna bat sortzea**, Garapenerako Hezkuntzaren oinarri metodologikoetatik abiatuta.

Proiektu hori abian jarri zenetik 2008ko ekainera, EVALUAcción proiektuaren beraren baitako sistematizazio tailerrak egin ziren.

2008ko otsailean, ebaluazio tresna lantzen hasi ginen. Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazio taldeko kideek ilusioz eta pozez bizi izan genuen prozesu hura, igurikapen askorekin, lan askoko unea bazen ere. Barrea, ikaskuntza eta taldea sendotzen ari ginelako sentimendua nagusitu ziren gunere haietan.

Iniciativas de Cooperación y Desarrollo etxeak lagundu zigun tresna prestatzen. Hasieran, elkarrizketa egin zen premiak, kezkak eta lehentasunak identifikatzeko; eta, hortik abiatuta, laguntzarako aurreikusitako ordu kopurua eta esku artean genuen lanaren bolumena aztertuta, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo **prozesuaren ibilbidea** diseinatu zuen.

Martxotik maiatzera, urrats hauek egin genituen:

1. Euskadiko Elkarbidearen erreferentziazko dokumentazioa aztertu genuen —Plan Estrategikoa, Garapenerako Hezkuntzaren sistematizazioa, galdetegiak...—, ebaluaziorako berreskuratu nahi genuenari arreta emanez.
2. **Ebaluazio irizpide** posibleei buruzko eztabaida egin, eta gure irizpideak aukeratu genituen. Honako zortzi irizpide hauek adostu genituen: dimentsio politikoa, pedagogikoa, kulturala, generokoa, berrikuntza iraunkorrekkoa, Hegoaldeko ikuspegiarena, eraginkortasunekoa eta eragingarritasunekoa.
3. Irizpideen **analisirako elementuak** zehaztu genituen. Horretarako, Euskadiko Elkarbidearen dokumentaziotik komeni zena hartu genuen, eta, beste dokumentu batzuekin osatu genuen, hala hola Garapenerako Hezkuntzaren dimentsioei buruzkoarekin.
4. Irizpide bakoitzaren ikuspegitik ebaluazioa egiteko beharrezko **adierazleak eta galderak** landu genituen.
5. Ebaluaziorako egin beharreko urratsak identifikatu genituen, eta, horiekin batera, **ibilbide** eredu bat.
6. Prozesu osoaren **dokumentua** prestatu genuen.

Bi dokumentu lantzea erabaki genuen: bat, EVALUAcción ebaluazio proiektua argitaratzeko, eta beste bat, barnera begirakoa, gogoeta egiten eta irizpideak argitzen jarraitzearen premia nabarmentzen zuena. Ohartzen ginen ordurako aurrerapauso batzuk egin genituela, baina bazegoen zer definitu artean, hala nola, dimentsio kulturala, generokoa, eraginkortasunekoa eta eragingarritasunekoa.

## **Erabilera**

2008ko ekaineko FOCADen, tresna lantzen ari ginen Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazio taldeek **formulazioari** heldu genion: ebaluazio ibilbide bat txertatu genuen, azaldu genuen zer irizpide erabiliko ziren, norekin, etab. Tresna hori lagungarria gertatu zitzaigun, halaber, plangintzaren matrizean sartu behar genituen adierazleak lantzeko.

Euskadiko Elkarbidearen Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazio taldeak, EVALUAcción proiektuari esker, aukera izan zuen Garapenerako Hezkuntzako ebaluaziorako preskakuntza eta laguntza jasotzeko, nahiz eta proiektua bera taldetik kanpoko zerbait balitz bezala bizi izan genuen, lankidetzaren bidez koordinatu baitzen lan ia guztia. 2008ko uztailan, amatasun baimena amaituta lanera itzuli zen Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazio taldeko kideetako bat, eta hark hartu zuen bere gain EVALUAcción proiektua koordinatzeko ardura; aldi berean, ebaluaziorako tresna makroarekin lanean hasi zen, aplikatzeko zaila iruditu bazitzaion ere.

## **Txantiloia erabiltzen aritu garen bitarte honetako esperientziak**

2009ko urtarrilean, baterako ebaluazio prozesu bat hasi genuen «Garapenerako Hezkuntzatik, gizatasunean apustua eginik. Unibertsitatetik hezteko beste modu bat. 2006-2010» proiektuko ikasleekin. Ebaluazio horretan, Euskadiko Elkarbidearen Gara-

penerako Hez-kuntza eta sentsibilizazio taldeak eta Iniciativas de Cooperación y Desarrollo etxeak parte hartu zuten. Ebaluazio taldeak proiektuaren ebaluaziorako adostutako helburuari jarraituz hautatu zituen ebaluazio tresnaren irizpideak eta adierazleak. Oso informazio interesgarria sortu zen (lokala-globala lotura, indibiduala-kolektiboa lotura, ikuspegi politikoa...), eta agerian gelditu zen baterako ebaluazio horretako lan-tegietan parte hartu zuten kideek (proiektu hartako ikasle ohiak) proiektuaren baitan jasotako prestakuntzaren edukia gogoan zituztela handik hainbat urtera eta beren lan-ean aplikatzen zituztela orduko ikaskuntzak.

2010eko apiriletik 2011ko martxora bitartean, Garapenerako Hezkuntzako zenbait proiektu gauzatu ziren, eta txantiloiko elementu guztiak formulazioan, jarraipenerako proposa-menean eta haietako bakoitzaren ebaluazioan txertatu zituen taldeak.

2011ko martxoan, ez da jaso tresnari buruzko **kanpo atzeraelikadurarik**.

## METODOLOGIEI ETA BERRIKUNTZARI LOTURIKO ONDORIOAK, IKASKUNTZAK ETA GOMENDIOAK

---

Ordenamos las conclusiones, aprendizajes y recomendaciones en tres apartados:

### 1. Ebaluazio tresna lantzea.

- (I). Prozesuan ilusioa eta poza zerk sortzen duen eta horrek zer ondorio dakartzan.
- (II). Adostasuna zerk erraztu zuen. Antolakun-dean «garen horretatik» abiatzea.
- (III). Marko teorikoaren eginkizuna, tresna lant-zean eta gerora hura erabiltzean.

### 2. Ebaluazio tresna erabiltzea.

- (I). Tresna, ebaluazioan.
- (II). Tresna, formulazioan eta exekuzioan.
- (III). Taldea eta ebaluazio tresna. Testuinguruaren eragina.

### 3. Generoa, ebaluazio tresnaren lanketan eta erabileran.

## 1. Ebaluazio tresna lantzea (I): Prozesuan ilusioa eta poza zerk sortzen duen eta horrek zer ondorio dakartzan

### Ondorioak

---

- ✓ Anketan ilusioz eta pozez aritzeak lotura estua du tresna lantzeko espazioa ikaskuntza espazioa izatearekin. Era berean, ezaugarri hauek

dituen tresna bat lantzeak zure lanaren funtsarekin lotzen zaitu. Zuk egiten duzu Garapenerako Hezkuntza, eta zugan eragiten du.

- ✓ Illusioa eta poza sortzen laguntzen du, halaber, tresna lantzeko prozesua taldearen apustua izateak, talde osoak beharrezkoa ikusteak, tresna eraikitzeko prozesua ulertzeak eta partekatzeak, eta metodologia eta ibilbidea zehaztuta edukitzeak.
- ✓ Sintoniak, elkar ulertzeak, giro onak eta tentsiorik ezak –illusioari eta pozari esker– lagundu egiten dute lan motibagarriak eta ilusionagarriak garatzen eta errazagoa da tresna lantzeko prozesua.
- ✓ Horretan eragin handia du jasotzen den laguntzak. Egiteko moduarekin lotura izatea, metodologia gustukoa izatea, konfiantza izatea lagungarria da prozesuek fruitua eman dezaten.

## Ikaskuntzak

---

- ✚ Tresnen lanketa prestakuntzarako eta ikaskuntzarako espazio gisa planteatzeak motibazioa areagotzen du eta sendotasuna ematen dio taldeari. Hala, garrantzikoa da hasieratik ikusaraztea era honetako prozesuek ikasteko eta sendotzeko ematen duten aukera paregabea.
- ✚ Tresna planteatzeko garaian premiak abiapuntu hartzeak berrikuspene iraunkor eta kritikoa egitera behartzen gaitu.
- ✚ Funtsezkoa da prozesuaren baitan poza, illusioa, lasaitasuna sortzea.
- ✚ Tresna eraikitzean taldeak giro eta sintonia onean jarduteak haren lanketa errazten eta hobetzen du, baita gerora hari eman dakizkiokeen erabilerak ere: lotura estua dago tresna giro onean lantzearen eta gerora tresnari emango zaion erabileraren artean, tresna hurbileko baliabide gisa ikusten eta lagungarria dela sentitzen laguntzen baitu.
- ✚ Tresna lantzean motibazioa eta giro ona sustatzeko funtsezko alderdia da, halaber, prozesua kide guztiek premiazko jotzea eta taldearen<sup>4</sup> apustua dela sentitzea (are gehiago, sailaren eta, ahal izanez gero, antolakunde osoaren apustua balitz).
- ✚ Garrantzikoa da egitekoa bere gain duen lan taldearen lan egiteko moduarekin bat datozen laguntza eta metodologia planteatzea. Giro ona, hurbileko laguntza eta sintonia Euskadiko Elkarbidearen lan egiteko moduaren bereizgarriak dira, eta asko lagundu dute tresna hobea lantzen.

## Gomendioak

---

- Tresna bat egitea, beharrezkoa duzulako, ez Eusko Jaurlaritzak edo kanpoko beste agente finantzatzaile batek hala eskatu dizulako.
- Laguntzaren arduraduna zehaztea. Tresna lantzeko alderdi teknikoa kontuan hartzea ez ezik, garrantzikoa da prozesua erraztea eta jendea ongi sentiaraztea; eta horretarako, ez du edonork balio. Garrantzikoa da prozesua lagundu edo dinamizatuko duten kideengana hurbiltzea, antolakundearen gakoan ikuspegitik, ikaskuntza GKEarekin bat etor dadin.

---

4.– Tresna hori eraikitzen gehien inplikaturako taldeaz argi gara (sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza saila, guri dagokigunez). Nolanahi ere, hobe litzateke apustu horretan antolakunde guztia inplikatzea.

- Lanketaren metodologiari eta laguntzari begira, teoriaren (pentsatzea) eta praktikaren (egitea) arteko koherentzia zaintzea, garen horretatik eta egiten dugun horretatik abiatzeko eta partaidetza errazteko.

## 1. Ebaluazio fresna lantzea (II):

### Adostasuna zerk erraztu zuen. Antolakundearen «garen horretatik» abiatzea

#### Ondorioak

---

- ✓ Ebaluazio irizpideak adosteko garaian, garrantzizkoa da **denbora** nahikoa izatea eta «zentsurarik» edo akatsak egiteko «beldurrik gabe» askatasunez adierazteko moduko **espazioak** sortzea. Espazio horietan, atzeraldiak onartzen dira, entzute aktiboa gauzatzen da, ozen pentsatzeko nahikoa konfiantza ematen da... Eta «prozesu femeninoekin» lotura dute, orobat, aintzat hartzen dituzten heinean sentimenduak eta enpatia, boterearen berdintasunezko kudeaketa, entzute partekatua, etab.  
Taldekideek elkar ezagutzea eta elkarrekin lan egitea ere adostasunerako baldintza lagungarriak dira.
- ✓ Pertsonen jarrerari dagokionez, honako hauek dira gako nagusiak: adostasuna, ekarpenak, elkarriketa, errespetua, irekitasuna, enpatia, aldaketaren beldur ez izatea, entzuteko gaitasuna. Adostasuna eraikitzeke, garrantzizkoa da, halaber, boterearen kudeaketa, askotariko ibilbideak bereiz badaitezke antolakundearen barruan egindako denboraren arabera.  
Beren lanean genero ikuspegia txertatzearen aldeko interesa eta sentiberatasuna duen emakume talde bat izateak erraztu egiten du prozesua oso femeninoa izatea, sentimenduen eta enpatiaren presentziari dagokionez, boterearen kudeaketari dagokionez, entzutearen ezaugarriari dagokienez.
- ✓ Ebaluazio irizpideak adosteko garaian, lagungarria da alde aurretiko adostasun batzuk finkatuta izatea (nork bere historia eta esperientzia izan arren) eta aurretik Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegi metodologikoa landu izana. Aurretiko horiek ez daude idatzita, baina lidergo partekatua aukera ematen du prozesuan aurrera egin ahala lantzeko, amore emateko eta artikulatzeko.
- ✓ Komenigarria da kanpo laguntza, edonolako formatutan (ez edonolakoa, halere; egokia, baizik), inflexio eta gogoeta puntu gisa. Lanaren esentzia berrikustea eskatzen duten prozesuetan, beharrezkoa da, gainera. Kanpo begiradak gogoeta sustatzen du, eta garen horrekin lotzen gaitu, gure premiei benetan erantzuneko dien tresna bat lantzeko.

#### Ikaskuntzak

---

- ✚ GKEan egindako bidea eta ibilbide profesional edo/eta pertsonala edozein dela ere, kide guztiek dute zer emana, asko gainera.
- ✚ Aurretiko adostasun komunak baliagarriak dira, baina ez ezinbestekoak, espazioaren kudeaketa «femeninoa» egiten bada (sentimenduak, entzutea, enpatia, etab. aintzat hartuta).
- ✚ Lan egiteko modu, espazio, jarrera «femeninoak» (entzutea, enpatia, irekitasuna, beldurrik eza...) pertsonen jabetzara laguntzen du, nork



bere buruarekiko duen konfiantza areagotzen du eta bidea zabaltzen du ikasteko, proposamenak egiteko gaitasuna areagotzeko.

- Garrantzizkoa da kanpo laguntzak ere taldearen barne partaidetza kudeatzea; hain zuzen, Garapenerako Hezkuntzaren lan egiteko moduaren ezaugarrietako bat da, eta adostasunak lortzen ere laguntzen du.

## Gomendioak

---

➔ Kanpo laguntzari dagokionez:

1. Adostasunak bideratzea, baterako gogoeta oinarri hartuta.
2. Aintzat hartzea antolakundea zer den, zer bide egin duen, eta hortik abiatuta lantzea tresna.
3. Garrantzizkoa da tresna batzuk sortzeko eta koherentzia lortzeko.

➔ Prozesua «feminizatzea», arrakasta izan dezan.

➔ Edonork askatasunez parte hartzeko moduko espazioak eratzea eta kudeatzea.

## 1. Ebaluazio tresna lantzea (III): Marko teorikoaren eginkizuna, tresna lantzean eta gerora hura erabiltzean

### Ondorioak

---

- ✓ Tresna propio bat sortzeko prozesuan, funtsezkoa da ongi uztartzea antolakundearen jakintzak, hau da, taldearen ezagutzak eta ikaskuntzak –ebaluazioari buruzkoak, kasu honetan– eta antolakundeak bere egiten duen Garapenerako Hezkuntzaren marko teorikoa. Horrela, metodologia propioak sortuko dira, teoriaren adierazpen praktikoa eta taldearen jakintza guztiaren laburbilduma gisa. Tresna lantzeko talde gogoeta eta analisiak eta tresnaren erredakzio propioa egiteak teoriaren eta praktikaren arteko koherentzia errazten dute.
- ✓ Tresna lantzeko lana koherentea izan da harekin, hura erabili gabe bada bere (lanketan ez egon izanaren ondorioz) biak (lana eta tresna), biak bat datozelako marko teorikoarekin eta marko horrek taldeko kide guztiak biltzen dituelako.
- ✓ Funtsezkoa da ebaluazio irizpideak modu integralean lantzea, eta ez sail bereizitan, baita Garapenerako Hezkuntzaren alderdiak zeharlerroekin gurutzatzea ere, teoriaren eta praktikaren artean koherentzia lortzeko.
- ✓ Tresna irekia, dinamikoa, moldagarria eta ez-estatikoa izan dadin, garrantzizkoa da, hala izateko borondatea edukitzea ez ezik, taldean saioak antolatzea tresna marko teorikoaren arabera berrikusteko, haren funtzionamendua egiaztatuz eta ebaluatzeko eta hura aberasteko.
- ✓ Tresna lantzeko ardura duen taldeko kide izateak pista gehigarriak ematen ditu tresna ulertzeko, unean uneko lanketetan subjektibotasunak eta sentimenduak agertzen direlako.
- ✓ Tresna lantzen parte hartu ez duen kiderik badago, tresna ongi gizarteratu eta hura praktikan jartzeko laguntza eman beharra dago. Gizarteratze horretan, funtsezkoa da tresnaren idatzi gabeko ezaugarriak aintzat hartzea: prozesuko

afektibitatea, gogoeta, motibazioa, etab. Alderdi horiek laguntzen baitute taldeak bere burua tresna horretan islatuta ikusten eta harekiko atxikimendua sortzen.

Tresna lantzen parte hartu ez duen kiderik badago, tresna ongi gizarteratu eta hura praktikan jartzeko laguntza eman beharra dago. Gizarteratze horretan, funtsezkoa da tresnaren idatzi gabeko ezaugarriak aintzat hartzea: prozesuko afektibitatea, gogoeta, motibazioa, etab. Alderdi horiek laguntzen baitute taldeak bere burua tresna horretan islatuta ikusten eta harekiko atxikimendua sortzen.

Hala, tresna gizarteratuta, errazagoa izango da gero hura erabiltzea, eta, gainera, harekin bat egiteko aukera ematen die tresna lantzeko prozesuan parte hartu ez duten kideei.

### Ikaskuntzak

---

- ✚ Era honetako tresnak lantzeak egin nahi den Garapenerako Hezkuntzaren marko teorikoaren berrikuspena dakar, eta, praktika ez ezik, teoria ere eraikitzen jarraitzeko bidea ematen du.
- ✚ Tresnaren abiapuntuko marko teorikoa ongi ezagutzea funtsezkoa da tresna hobeto ezagutzeko eta erabiltzeko.
- ✚ Gizarteratzean, alderdi objektiboenaz gainera (eduki kontzeptuala), IDATZITA EZ DAGOEN parte hori ere zabaldu behar da, une horretako kideen konplizitatea bilatu. Datu transmisio soiletik harago joan behar dugu, eta jabetu beharrezkoa dela konpromisoa eta ekiteko proposamenak uztartzeko denbora hartzea denentzat, tresna lantzeko prozesuan parte hartu ez dutenek denbora behar baitute hura barneratzeko.
- ✚ Teoria praktikarekin lotzea, soiltasunean oinarrituta. Garrantzizkoa da erabilera ibilbide erraz eta argi bat proposatzea, tresna lantzen parte hartu dutenentzat nahiz ez dutenentzat. Lanketan aritu ez diren kideek errazago bereganatuko dute tresna, eta errazagoak izango dira, halaber, gizarteratzea eta berrikuspena.
- ✚ Tresnak jarraipena eskatzen du, eta berrikuspen: noiz eta nola berrikusi behar den proposatzea (aztertzea ea erabiltzen den edo ez, ulertzen den edo ez, irizpideei eusten zaien, zer irizpide aldatzen diren...).

### Gomendioak

---

- ➔ Tresna lantzeko, berrikusteko eta erabiltzeko, komenigarria da Garapenerako Hezkuntzaren marko teorikoak lantzea: antolakundearena berarena eta abian diren beste gogoeta batzuk, marko propioa aberasteko bide gisa.
- ➔ Tresna lantzen aritu ez diren kideekin egin beharreko gizarteratze lana ez litzateke mugatu behar datu objektiboak transmititzera; haren lanketan agertu diren eta hura erabiltzeko lagungarri izan daitezkeen alderdi subjektiboak partekatzeko espazioak ireki beharko lirarteke.
- ➔ Taldeko kide berriekin eta beste gogoeta gune batzuekin egin beharreko gizarteratze lana tresnaren berrikuspenerako baliatzea: horrela, praktikatik abiatuta ikasi eta tresna bereganatuko dute (jabetzea). Kide berriek ez badago, hura berrikusteko espazioen egutegi bat prestatu beharko da.
- ➔ Bitartekoak jartzea generoa zeharlerroa izan dadin, ez baita automatikoki hala gertatzen.

## 2. Ebaluazio tresna erabiltzea (I): Tresna, ebaluazioan

### Ondorioak

---

- ✓ Unibertsitateko ikastaroen ebaluaziorako erabilitako tresnak ez dira erabili gerora. Eraginaren ebaluazioa egiteko ahalegin bat izan zen.
- ✓ Zenbait tresna prestatu beharra dago txantiloiko irizpideen araberrako ebaluazioa egiteko, lantzen den guztia aintzat hartuta: ez soilik edukiak, baita alderdi subjektiboak ere; ez soilik ahozko hizkuntzaren edo hizkuntza idatziaren bidez, beste hizkuntza batzuk ere txertatuta baizik (hala nola, gorputz hizkuntza, Garapenerako Hezkuntzako prozesuetan oso garrantzizkoa).
- ✓ Tresna beste talde batzuekin erabiltzean zurruneji jokatzeko arriskua dago, talde guztiak ez baitira berdinak.
- ✓ Ebaluazio txantiloien bidez lortutakoa, ebaluazioen datuak eta emaitzak oso baliagarriak dira, diagnostiko gisa hartuta, prozesuei jarraipena emateko, eta beste proiektu batzuk formulatzeko.

### Ikaskuntzak

---

- ✚ Ebaluazio tresnak prozesurako bitarteko ondasunak ematen ditu. Ebaluazioen datuak informazioaren oinarri modura erabil daitezke formulatzeko asmoa dugun proiektu berrien diagnostikoetan.
- ✚ Alderdi subjektiboa aintzat hartzea txantiloiko irizpideen ebaluazio tresnak lantzeko.
- ✚ Garrantzizkoa da ebaluazioen datuak gizarteratzea, beste kide batzuekin erkatzeke eta ikaskuntza berriak sortzeko, baita gai edo auzi bati buruz eragiteko edo sentiberatzeko aukera gisa ere.
- ✚ Tresnak ahozko hizkuntzaz bestelako hizkuntza batzuk bildu beharko lituzke, alderdi emozionala eta subjektiboa aztertu ahal izateko.

### Gomendioak

---

- Ebaluaziorako tresnak prestatzeko garaian, lantzen den guztia aintzat hartzea, baita alderdi subjektiboa ere.
- Tresnak ematen dituen emaitzak prozesuari jarraipena emateko bitarteko ondasun gisa erabiltzea.
- Ebaluazioen datuak gizarteratzea eta horretarako espazioak eta aukerak sortzea sentibilizaziorako edo eragin politikorako tresna izan daiteke.
- Ebaluazioz ebaluazio erabilitako tresnak kontuan hartzea eta berreskuratzea baliagarria izan daiteke beste prozesu batzuetarako, eta ez soilik ebaluaziokoetarako.

## 2. Ebaluazio tresna erabiltzea (II): Tresna, formulazioan eta exekuzioan

### Ondorioak

---

- ✓ Horretarako pentsatua ez den arren, ebaluazio tresna funtsezkoa da koherentziaz eta modu antolatuan formulatzeko. Landu nahi den hori

egituratzen eta haren muinari eusten laguntzen du, ez baitu ezartzen inprimaki bat betetzeko edo finantzatzailearen interes eskusiboei begiratzeko betebeharririk. Euskadiko Elkarbidearen antolakunde kulturaren parte da.

- ✓ Tresna baliagarria da exekuziorako, proiektuaren zentzua beti presente edukitzen laguntzen baitu, eta ekintzak helburu gisa hartzea saihesten.
- ✓ Ebaluazio tresnak proiektuaren ebaluazioa errazten du, urrats argiz adierazitako ebaluazio ibilbide bat biltzen duelako, formulaziotik bertatik proiektura transmititzen dena.
- ✓ Nabarmentzekoa iruditzen zaigu taldearekin partekatutako ebaluazioak egitea, eta ez soilik ebaluazio indibidualak.

### Ikaskuntzak

---

- ✚ Tresnak ikuspegi globalari jarraitzen dio, proiektuaren ibilbide osoari baitagokio: formulazioa, exekuzioa eta ebaluazioa. Ildo horretatik, ebaluazio tresnak aukera ematen du proiektuaren zikloko fase guztietako (identifikazioa, formulazioa, exekuzioa eta ebaluazioa) jarduna hobetzeko, diseinatutako esku-hartzeari koherentzia ematen dion heinean eta esku-hartzearen nondik norakoa beti begi-bistan izatea ahalbidetzen duen heinean.
- ✚ Garrantzizkoa da era honetako tresnetan alderdi subjektiboa biltzea, ebaluazioa kualitatiboagoa izan dadin laguntzen duelako.
- ✚ Tresnan ebaluazio prozesuaren ibilbide erraz eta argi bat finkatuta izateak tresnaren erabilera praktikoa eta ebaluatzeko eginkizuna errazten du.
- ✚ Garrantzizkoa da tresna modu egokian sozializatzea eta haren aplikazioaren berrikuspen kolektiborako guneak gordetzea.

### Gomendioak

---

- ➔ Eredutik abstraktu edo zailei jarraitzea baino komenigarriagoa da tresna erraz bat sortzea, denek ulertzeko modukoa, denek dakigun hizkuntza batean, eguneroko lanean betetzen ditugun irizpideetan oinarritua, eta tresna hori elkarrekin lantzeko espazioak sortzea.
- ➔ Garapenerako Hezkuntzan marko teoriko argi bat izateak eta ebaluazio tresna hortik abiatuta lantzeak hura erabiltzeko beste aukera batzuk ematen ditu, eta erabilera areagotzen lagun dezake, formulazioa koherentziaz eta modu antolatuan egiteko bidea eman dezakeen heinean.
- ➔ Oso praktikoa da proiektuaren exekuzioan zehar tresna erabiltzea, proiektuaren esentziara bideratzen duelako jardura.
- ➔ Interesgarria da txantiloia taldean erabiltzea –taldearekin partekatutako ebaluazioen bidez, tresna eratzeko, berrikusteko eta hari ekarpenak egiteko; edo tresnaren erabilera buruzko talde azterketen bidez, haren erabilera buruzko ikuspegi globalagoa izateko-, errazago erabiliko eta etengabe aberastuko baita horrela.
- ➔ Garrantzizkoa da ebaluazio prozesuan ibilbide argi bat zehaztuta edukitzea, zer urrats egin behar diren ongi adieraztea, tresnaren erabilera optimoa bermatzeko.

## 2. Ebaluazio tresna erabiltzea (III): Taldea eta ebaluazio tresna. Testuinguruaren eragina

### Ondorioak

---

- ✓ Tresna lantzeko prozesuan parte hartuta prozesu horretan parte hartu gabe baino sendoagoa izango da jabetzea.
- ✓ Prozesuan parte hartu ez duten kideak tresnaz ongi jabetzeko, hura behar bezala gizarteratu beharra dago, datu kuantitatiboak ez ezik, sentipenak, sentimenduak... transmititzuz, tresnarekiko afektua lantzearen, taldean egindako zerbaiten ilusioa eta, aldi berean, norberaren ahaleginaren fruitua dela sentiaraziz.
- ✓ Unean uneko lan kargak eta norberak bizi duen egoerak tresnaren erabileran eragiten dute, batzuetan: (i) zenbat eta lan karga handiagoa, orduan eta gutxiago erabiliko da tresna; (ii) norberak tresnan duen protagonismoari dagokionez norbera taldean nola sentitzen den eta besteek nola sentiarazten duten, horren arabera izango da tresnaren erabilera.
- ✓ Taldeko kideen aldaketek eragina dute tresnari ematen zaion balioan eta erabileran, eta positiboa da aldaketak egitea, aberastasunari eta gauzak zalantzan jartzeko gaitasunari dagokienez. Eta kideen aldaketak ez ezik, eragina izaten du testuinguru aldaketak ere, orduan agertzen baita tresna berrikusteko eta ikuspegi berriei eta ohiko lan zamari egokitzeko premia, baita haren jabetza sustatzeko ere.
- ✓ Kanpo baremaziorako irizpideek baldintzatu egin dezakete tresnaren erabilera, baldin eta irizpide horiek ez badute behar den moduko loturarik tresnarekin. Garrantzikoa iruditzen zaigu finantzatzailer nagusien baremazio irizpideak Garapenerako Hezkuntzaren dimentsioetan oinarrituak izatea.

### Ikaskuntzak

---

- + Kontuan hartzea tresna lantzeko prozesuan parte hartzeak hura ulertzeko laguntza gehigarri bat ematen duela.
- + Tresna prestatzen parte hartu ez duten kideekin tresna gizarteratzeko lana egitea funtsezkoa da kide horiek hartaz jabe daitezen.
- + Tresnaren erabileran eragina duten zenbati faktore daude, hala nola lan karga eta norbera taldearen barruan nola sentitzen den....
- + Testuinguruak zuzeneko eragina du haren erabileran. Garrantzikoa da adi egotea ikusteko nola alda daitekeen baremazioen errealitatea eta horrek Garapenerako Hezkuntzaren dimentsioekin duen erlazioa.

### GOMENDIOAK

---

- Ongi zaintzea tresna lantzen parte hartu ez duten kideekin hura gizarteratzeko egiten den lana, gizarteratzea lagungarria izango baita hartaz jabe daitezen.
- Tresna erabiltzean, kanpoko faktoreei erreparatzea, hala nola, lan kargari, norbera taldean sentitzen den moduari... Lan karga tresnaren erabilerarekin bateratzen saiatzea.
- Kontuan hartzea testuingurua, tresnaren erabilerari kalte egin badiezaiokie. Zuzeneko eragina duela ohartzea.

### 3. Genero ikuspegia, tresna prestatzeko eta erabiltzeko garaian

#### Ondorioak

---

- ✓ Ebaluazio tresnan, landu beharreko dimentsio gisa ageri da generoaren auzia. Horrek ez du esan nahi genero ikuspegia irizpide guztien zeharlerro modura ageri denik. Zeharkakotasun hori ez da halabeharrez gertatzen, eta, antolakundearen apustu politiko argia bada, lehentasuna eman behar zaio.
- ✓ Bitartekoak jarri behar dira generoaren auziari buruzko adierazleak finkatzeko: generoaren gaia ongi neurtzeko adierazle koherenteak izan behar dute, eta aintzat hartu behar dituzte, kuantitatiboak ez ezik, alderdi kualitatiboak ere.
- ✓ Tresnaren jarraipena egiteko orduan, genero harremanetan eraldaketa efektua eragiten den edo ez aztertu behar da, eta baiezeko kasuan, hori agerian utzi.
- ✓ Kontuan hartu behar dira genero ikuspegia era integralean txertatzeko ditugun zailtasunak, horiek gainditzera bideratutako neurriak hartzeko.
- ✓ Beharrezkoa da Garapenerako Hezkuntzan genero ikuspegia txertatzeari buruzko proposamen teorikoetan sakontzea (esparru formaletik eta lankidetzaren esparrutik harago), marko teorikoa zehaztea eta zeharlerroak lantzea, teorion nahiz praktikan eragin dezaten.

Era berean, garrantzizkoa da feminismoaren iturrietatik edatea, ikuspegi hori txertatzeko tresnan nahiz sustatzen diren aldaketa jardueretan.

- ✓ Bestalde, ez da aski generoaren auziarekiko sentiberatasuna. Beharrezkoak dira, halaber, aurretiko analisia eta lan espezifikoak, zehazteko generoaren auziari dagokionez noraino iritsi nahi dugun eta nola txertatu nahi den genero ikuspegia lanean (Garapenerako Hezkuntzan eta antolakundearen), ez baita berez gertatzen den zerbait. Beharrezko bitartekoak jarri behar dira hori bermatzeko.

#### Ikaskuntzak

---

- ✚ Garrantzizkoa da aztertzea genero ikuspegiarekin nora iritsi nahi dugun edo nora iritsi gaitzkeen, eta horretarako neurriak jartzea.
- ✚ Generoaren inguruko prestakuntzarekin eta sentsibilitatearekin batera, laguntza espezializatua bilatzea komeni da (ez du edonolako laguntzak balio).
- ✚ Sakondu egin behar da Garapenerako Hezkuntzan –eta ez soilik lankidetzan– genero ikuspegia txertatzeari buruzko proposamen teorikoetan. Horretarako, Garapenerako Hezkuntzarekin lotura duten iturri feministetara hurbildu, eta horietatik edan beharra dago.

#### Gomendioak

---

- Norberaren neurriko feminismoa irakurtzea.
- Genero ikuspegia txertatzen lagun dezaketen baliabideak (beste GKE batzuenak, gizarte mugimenduenak, emakume taldeenak, heziketakoak) eta eraikuntza teorikoak eta praktikoak bilatzea.
- Nork bere buruari ezartzen dizkion muga kulturalak eta gizarte patriarkalak ezartzen dituenak gainditzea, egunez egun.

# CUBAINFORMACIÓN:

## KUBAREKIKO KOMUNIKAZIORAKO

### ETA

## ELKARTASUNERAKO NAZIOARTEKO SAREA

EUSKADI-CUBA elkarteak Kubarekiko adiskidetasun eta solidaritaterako euskal elkarteak da, eta 1989az geroztik dihardu lanean. Gure solidaritatea politikoa da, funtsean, eta, hortik abiatuta, askotariko ekintzak garatzen ditugu esparru askotan, betiere Kubako iraultzaren sostengua eta gizarte garapenerako proposatzen duen programaren defentsa ardatz hartuta.



### 3. PRODUKTUAK

Hala, Kubarekiko elkartasun politikoaren kontzeptuan oinarritzen da EUSKADI-CUBA elkartearen jarduera, honako bi lan ildo nagusi hauek egituratuta: laguntza materiala, garapenerako lankidetzaren bidez, laguntza humanitarioaren bidez eta emaitza materialen bidez; eta eragina, zuzeneko sentsibilizazio ekintzen eta hedabideetako lanaren bidez. Hain zuzen ere, azken esparru horretako ekimen gisa eratu zen **Cuba-información** proiektua.

Hainbat saretako kideak gara, hala nola, Coordinadora Estatal de Solidaridad con Cuba koordinakundekoak eta Euskadiko GKEen koordinakundekoak. Kubarekiko Nazioarteko Elkartasun Mugimendua deritzoguna Kubarekiko adiskidetasuna lantzen diharduten 2.000 elkarte osatuta dago, eta horietako bat da Euskadi-Cuba. Bestalde, azken urteetan, Kubako iraultza babesten duten eta gure oinarriekin bat datozen Kubako etorkinen elkarteekiko lan estrategia bat eraiki dugu.

Hala, Euskadiko Elkarbidea harremanetan jarri zen Euskadi-Cubarekin, Cubainformación esperientzia sistematiza genezan proposatzeko, eta gonbidapena onartzea erabaki genuen, gure elkartearentzat nolako aukera eta erronka izango zen ikusirik. Beti hartu ditugu oso kontuan gure ekintza solidarioen gaineko gogoeta, autokritika, ebaluazioa, jarraipena eta, kasu honetan, sistematizazioa, baina gutxitan eduki dugu era honetako prozesu bat hain modu baliagarri, motibatzaile eta eraginkorrean gauzatzeko tresnak erabiltzeko aukera eta pribilegioa.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko Elkarbidea, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo eta Una Gestión y Comunicación taldeetako kideei, gure ekintza solidarioa hobetzeko bide berrietan gidari, aholkulari eta irakasle izan ditugulako.

Euskadi-Cubako kide hauek parte hartu zuten sistematizazio prozesuan: Amaia Ruesgas, Pilar Sáenz de Ugarte, Andoni Iturbe, Salvador González, Arkaitz González, José Manzaneda eta Daniel Cubilledo. Kide horiek zuzenean dihardute, gainera, Cubainformaciónekin lankidetzan.

## ESKADI-CUBA ELKARTEAREN HELBURUA, XEDEA ETA ARDATZA

---

Sistematizazio prozesu honetan, hiru galdera giltzarri ditugu gure gogoeta eta analisi kritikoa bideratzeko:

- zertarako sistematizatu? (Helburua)
- zer esperientzia sistematizatu nahi dugu? (Xedea)
- esperientziaren zer alderdi nagusitan dugu interes gehien? (Ardatza)

Eta galdera horien bidez definitu genuen gure sistematizazioaren helburua, zedarritu genuen haren xedea, denboran eta espazioan, eta zehaztu genuen ardatza, hau da, esperientziaren zer alderditan genuen interes gehien.



## 1. Sistematizazioaren HELBURUA: zertarako sistematizatu?

«Garapenerako Hezkuntzan aurrera egiteko partaidetzari buruzko ikerketa eta prestakuntza» proiektuak oinarritzko makro helburu bat proposatzen du lau sistematizazio prozesuetarako:

*Ikaskuntzak eskaintzea eta partekatzea, Garapenerako Hezkuntza sustatzeko, EUSKADI-CUBAri dagokionez, PRODUKTUEN arloan.*

EUSKADI-CUBAko sistematizazio taldeak HELBURU propio hau propio hau finkatu zuen bere sistematizazio prozesurako:

*Sentsibilizazioaren eta hedabideen esparruan egiten dugun lana sendotzea, Cubainformación esperientziaren bidez*

Euskadi-Cubak bi esparrutan bereizten du Kubarekiko egiten duen lan solidarioa: garapenerako lankidetzeta eta eragin politikoa. Eragin politikoa esparruan, bi arlo bereizten ditugu: sentsibilizazioa eta hedabideak. Eta, hain zuzen ere, hedabideen arloari dagokio Cubainformación produktua. Edonola ere, nabarmendu behar da bi arloek helburu bera dutela: informazioa, gogatzeta, prestakuntza ematea eta sentsibilizatzea, Kubarekiko elkartasunaren eremuan eta haren gizarte proiektu alternatiboari buruz. Cubainformación sentsibilizazio tresna bat da, beraz.

## 2. Sistematizazioaren xedea: zer esperientzia sistematizatu nahi dugu?

*Cubainformación esperientzia, hasieratik (2006ko martxoa) gaur egun arte (2011ko ekaina).*

## 3. Sistematizazioaren ARDATZA: esperientziaren zer alderdi nagusitan dugu interes gehien?

*Cubainformaciónek «jendearekin» (xede taldeak) egiten duen lanaren gizarte eragina*

Interesgarria da, halaber, ardatz hau lantzean kontuan hartzea Euskadi-Cubako **boluntarioek nola parte hartzen duten** Cubainformación esperientzian. Elkartearen produktu horrek, izan ere, erakarpen indar handia du, prestakuntza eta informazioa uztartzen dituen heinean.

Boluntarioen partaidetzara» aipatzen dugunean, zera esan nahi dugu:

- Ideiak eta gogoeta lantzea.
- Ekintza zehatzak gauzatzea (albisteen webgunea, telebista, irratia, paperezko egunkaria eta hedapen lana).
- Gauzatzen ari den horretaz jabetzea eta horretan inplikatzeta.

## ESPERIENTZIAREN KONTAKIZUNA

2006ko martxoan, ametsetan hasi, eta Cubainformación sortzea bururatu zitzaigun. Elkarteko kide bat buru-belarri jarri zen horretara, eta asmo berriak eragin nabaria izan zuen, ez soilik kanpora begira, baita Euskadi-Cuba barnera begira ere. Hasieratik gaur arte, José Manzaneda izan da proiektuaren aitzindaria.

Helburua zen Interneten hedabide alternatibo multimedia bat sortzea, euskarri nagusitatzat telebista bat izango zuena; bitarteko horiekin, Kubako iraultzaren kontra hedabideek zabaltzen dituzten manipulazio eta kanpainei erantzun nahi zitzaie, eta baita Kubako gizarte proiektuaren lorpen sozialei buruzko informazioa zabaldu ere, Hegoaldeko beste herrialde batzuetan dituen solidaritate programak barne, nazioarteko hedabideetan zentsuratutako gaiak izanik.

Euskadi-Cubak Kubarekiko Nazioarteko Elkartasun Mugimendu osoaren zerbitzura (2.000 erakunde solidariotik gora biltzen ditu) eta kubatar etorkin aurrerazaleen zerbitzura jardungo zuen hedabide bat izan behar zuen, gainera. Cubainformación, beraz, ez da Euskadi-Cuba elkartearen hedabide bat, goian aipatutako nazioarteko bi mugimenduen baizik.

Handik denbora batera, 2007an, igurikapenak sortzen hasi ginen, Interneteko zenbait hedabide alternatiboren bidez. Kanpaina bat egin genuen, sustapen bideo batean oinarritua: bideo hartan, Cubainformación aipatu gabe, esaten zen maiatzaren 1ean garrantzi handiko zerbait gertatuko zela Kuban, eta data horretan webgune jakin bat bisitatu behar zela. Jende askok pentsatu zuen hainbat hilabeteko gaixotasun baten ondoren Fidel Castro berriro jendaurrera agertuko zelako iragarpen informala zela hura.

2007ko maiatzaren 1ean egin genuen Cubainformaciónen eta haren webgunearen aurkezpen ofiziala, gure web berrian egindako prentsaurreko birtual baten bidez. Hain zuzen ere, gure hedabidearen sorrera zen Kubari buruz iragarri genuen «garrantzizko albistea». Egun hartan egin zen, halaber, lehen irratsaioa, eta paperezko gure egunkariaren lehen zenbakia banatu genuen Espainiako estatuko zenbait manifestaziotan. Estreinaldi biribila izan zen: zerbitzaria kolapsatu egin zen, eta mundu osoko ehunka mezu elektronikoko jaso genituen zorionak emanez.

Hasieratik jakitun izan gara gure helburu utopikoa hurbilekoa eta aldekoa ez den publiko batengana ere iristea dela, baina oraingoz ezinezkoa dela, gure baliabide xumeak direla eta, ez daukagulako hedabideen enprekin lehiatzerik. Hortaz, honako xede publiko hauek ditugu oinarri: Kubarekiko publiko solidarioa –bere ingurunean Kuba defendatzeko argudioak izan ditzan, datuetan oinarrituta eta zorroztasunez-, kubatar etorkinak eta, nagusiki, «mugakoa» deritzogun publiko bat, hau da, ez dena nahitaez Kubaren aldekoa baina ez duena konfiantzarik hedabide handiek ematen duten informazioarekin eta jabetzen dena talde handi horiek manipulatzeko duten boterearekin. Publiko hori da, ugaria eta gero eta zabalagoa, gure jomuga nagusia.

Nabarmentzekoa iruditzen zaigu –eta gainditu beharreko ahultasun modura aipatzen dugu– Cubainformación nahiko «maskulinoa» dela, batez ere irratian eta albistean.

Paperezko euskarria (egunkaria), dena den, ez da hain «maskulinoa», eta emakumeen eta gizonen ikuspegi orekatsua lortu dugu.

2008ko maiatzean, bi une interesgarri izan ziren. Alde batetik, Telesurrek bideo batzuk eman zituen FARCEk Kolonbian bahitutako pertsonen auzian Chávezek egindako bitartekaritza buruzkoak, eta jarraitzaile asko izan zituzten Cubainformaciónen.

Bestalde, proiektuaren lehen ebaluazioa egin genuen. Bilbon eztabaidarako asteburu bat egin genuen, Espainiako estatuko lankideekin, forma, eduki eta estrategiei buruz.

2009an zehar, lehenengo barne bilerak egin genituen, ikusteko nola finantza genezakeen proiektua, nola euts geniezaiokeen...; gainera, aurreikusita litekeena zela euskal erakundeek proiektua ez onartzea, «zero euroko» agertoki bat ere pentsatu genuen. Eta dei orokorra egin genion Elkartasun Mugimendu osoari, boluntario eske. Hauxe zen asmoa: zenbat eta boluntario gehiago, orduan eta finantzaketa premia gutxiago. Filosofia horrek indarrean jarraitzen du proiektuan, boluntario asko ari baitira askotariko egitekoetan lanean (hainbat herrialdeetako 80 lagun inguru).

Une hartan, kezka asko sortu zitzaizkigun, gure hedabidearen eraginari buruzkoak, besteak beste. Jabetzen ginen nolabaiteko eragina lortu genuela, entzuleriaren adierazleek eta bestelakoek adierazten zutenez, eta erreferentziako hedabidea ginela munduko milaka lagunentzat.

Aipa ditzagun gure lanaren eragina agerian uzten duten zenbait pasadizo. 2009ko ekainean, ETBko «Pásalo» saioak hiru emanalditan esan zuen Kuban espetxeratu egiten dituztela homosexualak. Bideo bat egin genuen, gure «Lecciones de manipulación» sailean, eta gure ikus-entzuleei eskatu genien telebistako saio hartara mezuak bidaltzeko, protesta eginez. Ekimen horien ondoren, gure bideoa aipatu gabe bada ere, tertulia bat egin zuen saioak, ezustekoan, eta Kubako gobernuaren kontrako salaketa hura gertzatu zuten; saio hartan Euskadi-Cuba elkarteak kide batek eta Aldarte zentroaren ordezkari batek parte hartu zuten. Nolabaiteko zuzenketa izan zen, bada.

Handik gutxira, 2009ko abenduan, Cubainformaciónek aintzatespena jaso zuen Iraultza-aren aldeko kubatar etorkinak biltzen dituen European Bizi diren Kubatarren IV. Topaketan. Harrezkero, solidaritatearen eta emigrazioaren nazioarteko topaketa guztien amaierako adierazpenetan, Cubainformación mugimendu horientzat erreferentziako hedabidea dela aipatu dute.

2010eko maiatzean, garrantzi handiko bi laguntza izan zituen Cubainformaciónek. Unión de Periodistas de Cuba (UPEC, Kubako Kazetarien Batasuna) elkartearen «Medalla Félix Elmuza» domina eman ziguten, egiten dugun lanarengatik, eta sari horrek gure lanaren aitortza morala adierazten du.

Azkenik, beste pasadizo edo une adierazgarri bat aipatu nahi genuke. Haitin kolerak eragindako hondamenari buruzko Espainiako telebistaren albiste saio batean adierazi zuten herrialde hartako osasun laguntza %80 Mugarik Gabeko Medikuek (MGM)

elkartea bideratzen zuela, Kuba aipatu gabe. Bideo bat egin genuen, erakusteko Kubak bideratzen duela Haitiko koleraren kontrako osasun laguntzaren %40, mundu osoan ezagutzera emateko moduko Hego-Hego lankidetzaren eredu dela iritzita. Ordukoan ere, zuzenketa eskatuz telebistara mezuak igortzeko deia egin genuen. Mezu horiei esker, gure bideoaz eta protestez ezer esan ez arren, TVEk Haitiri buruzko saio oso bat egin zuen eta aurreko informazioa zuzendu zuen, de facto; saio hartan, luze eta zabal aritu ziren Kubak Haitin eskaintzen duen osasun arloko elkartasunari buruz.

Horrela eraiki dugu, urtez urte, Cubainformaciónen historia. Eta ibilbide horretako une adierazgarri batzuk besterik ez ditugu bildu hemen, garrantzizkoenak, gure esperientzia sistematizatzeko lagungarri izan daitezkeenak.

## ONDORIOAK, IKASKUNTZAK ETA GOMENDIOAK (OIG), PRODUKTUEI BURUZKO ZAZPI GALDERAREN BIDEZ

---

Euskadi-Cubak prestatu dituen ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak (OIG) oinarritzko lau kategoriatan bildutako zazpi galderaren bidez adierazi dira.

1. **kategoria: Cubainformación, produktua; Euskadi-Cuba, elkartea**  
Kategoria honetan azaldu nahi da elkartearentzat zein garrantzizkoa izan den orain sistematizatzen ari den produktu hau asmatu eta gauzatu izana.
2. **kategoria: Cubainformación eta haren partaideak**  
Bigarren kategoriak produktuan murgilduta dauden kideei egiten die erreferentzia: lankideei.
3. **kategoria: Cubainformación eta generoa**  
Hirugarrenak generoari egiten dio erreferentzia, garrantzi handiko alderdia baita elkartearentzat, baina barne eztabaida asko eta erronka handien iturria.
4. **kategoria: Cubainformación, kanpora begira**  
Eta laugarren kategoriak, azkenik, eraginari (aho txikiarekin esanda) buruzko erronkak –hau da, tokiko gizartean eta gizarte globalean eragiteko gaitasunari loturikoak– planteatzen ditu.

### **1. kategoria:**

#### **Cubainformación, produktua; Euskadi Kuba, elkartea**

*1. Zer ekarpen egin dio Cubainformaciónek Euskadi-Cuba elkarteari?*

#### Ondorioak

---

- ✓ Cubainformación produktua elkartasun mugimenduaren bidez, hedabide txiki baten bidez Kubarekiko laguntza bideratzeko dugun aukera da. Euskadi-Cuba elkartearen irudia hobetzen lagundu eta Kubarekiko Elkartasun Mugimenduaren baitan lider bihurtu du.
- ✓ Elkartearen ahaleginari esker, jende askorengana iristea lortu dugu produktu honen bidez. Urteak generamatzen iritzi publikoaren parte bat gogatzeko eta sentiberatzeko ahalmena emango zigun produktu baten bila. Eta Cubainformaciónek askotariko baliabide material

eta giza baliabideak eskaini dizkigu, baita kazetaritza eta ikus-entzunezkoen estaldura hobea ere, helburu hura gautzeko.

- ✓ Jende askoren konpromisoari esker gauzatu ahal izan da, zeinek bere aukeren, trebetasunen eta gogoaren arabera lan boluntarioa errazago bideratzeko guneak eskainita.
- ✓ Nolanahi ere, ohartzen gara benetan daukaguna baino sentsibilizazio ahalmen handiagoa daukagulakoan gaudela, agian. Gure «subjektibotasun militantea» dela eta, agian.

## Ikaskuntzak

- ✚ Garrantzikoa iruditzen zaigu Cubainformaciónen elkartearentzat funtsezkoak diren gaiei buruzko barne gogoetarako eta prestakuntzarako prozesuak planteatzea, periodikoki:
  - Alde batetik, lidergo partekatuak sustatzeko eta ardura hori kide gutxi batzuen gain ez uzteko.
  - Bestetik, lan metodologiei eta eduki berriei buruzko ikuspegiak eta iritziak eguneratzeko eta bateratzeko.
  - Baita lankide berriei eta boluntarioen eginkizunari dagokienez ere. Alderdi horretatik, kontuan hartu behar dugu egiten dugun lana eta lantzen ditugun gaiak direla eta, lankideekiko irekitasunak, haiekiko konfiantza areagotu nahiak zaurgarritasun handiagoa dakarkigula, elkartearentzat oso positiboa izan arren eta sendotasun handia ematen duen arren. Gaur egun, mundu osoan diharduen dozenaka laguneko boluntario talde bat dugu, eta Kubaren kontrako gerra mediatikoan ziber eraso larriak egin litzaketen infiltratuak sartzeko arriskua dago.
  - Eta genero ikuspegia gure prozesuetan txertatzeko moduari buruz, alderdi zehatzenetatik hasi eta alderdi estrategikoenetara.
- ✚ Bestalde, Cubainformaciónek teknologia berriei buruz (Interneteko tresnei buruz, adibidez) eta hedabideekiko lanari buruz eskaintzen digun esperientzia eta ikaskuntzak baliatu behar ditugu Euskadi-Cuban. Baita Cubainformaciónen baliabide materialak (kamerak, ordenagailuak...) elkartearen beste lan edo proiektu batzuetarako baliatu ere.
- ✚ Azkenik, azpimarratu beharra dago Cubainformaciónentzat adierazle egoki eta objektiboetan oinarrituriko ebaluazioak egiteak duen garrantzia.

## Gomendioak

- Gurearen tankerako prozesuak abian jarri nahi dituzten antolakundeei biziki gomendatzen diegu antolakundearen beraren barruan proiektuak eta produktuez «jabetzeko» prozesu bat bideratzea.
- Garrantzikoa iruditzen zaigu, halaber, sarean lan egitea kideko antolakundeeekin eta beren proiektuarekin eta produktuekin bat egiten dutenekin. Nahiz eta oso argi eduki behar dugun norbaitek hartu behar duela egitasmoaren lidergoa eta aitzindaritza.

## **2. kategoria: Cubainformación eta haren partaideak**

### *2. Zer ekarpen egiten die Cubainformaciónek lankideei*

#### Ondorioak

---

- ✓ Cubainformación bereziki ahalegintzen da lankideei sentiarazteko proiektu humanoago baten eta beren ideologiaren hurbileko proiektu baten partaide direla. Gainera, Kubarekiko solidaritatearen esparruko militantzia gauzatzeko sarbide errazeko eta malgutasun handiko bidea iruditzen zaigu. Boluntarioek hainbat egiteko dituzte, askotarikoak, eta era askotara bidera daitezkeenak: etxetik, ordenagailuarekin; ekintzetan bertatik beratarra parte hartuz; lokalean edizioa prestatuz, etab.
- ✓ Gainera, Cubainformación Kubaren errealitateari buruzko informazio iturri eta prestakuntzarako tresna osagarria da lankideentzat.

#### Ikaskuntzak

---

- ✚ Cubainformaciónen bidez, isilpean diharduten militante banakoak inplikatzeko lortu dugu; baina, gure ustez, garrantzi handikoa da militantzia «pentsalariagoa» eta presentegoa izatea.
- ✚ Bestalde, iruditzen zaigu lankideei Cubainformaciónen lana gauzatzeko formazio «teknikoa» eman behar zaiela (teknologia berriei buruzkoa, bideo edizioa....).

#### Gomendioak

---

- ➔ Interesa duten lankideek proiektuetan modu aktiboagoan jarduteko, beharrezkoa iruditzen zaigu prestakuntza. Horrekin batera, produktueta parte hartzeko askotariko bideak eskaini behar zaizkie, hala nola, «telemilitantzia».

## **3. kategoria: Cubainformación eta genero ikuspegia**

*3. Nola lortu Cubainformación femeninoagoa izatea? (edukiak, gaiak, formatua...)*

*4. Cubainformaciónen gizarte eragina iraunkorra da, generoaren ikuspegitik? Edo genero rolak eta estereotipoak erreproduzitzen ditu?*

#### Ondorioak

---

- ✓ Cubainformaciónen ikuspuntu femeninoa barnerratzeko premia dugula iruditzen zaigu, gaiak, partaidetzari eta produktuaren antolatetari dagokienez. Ildo horretatik, gure taldean gai horiei buruzko erresistentziari aurre egiteko erabateko ezintasuna dugula ikusi dugu.
- ✓ Besteak beste, prestatzen ditugun albisteak hobeto landu behar ditugu, informazioa emakumeen ikuspegitik emateko, gure saioetan agertzen diren gaietako bakoitzak haiengan zer eragin duen aztertuta.

#### Ikaskuntzak

---

- ✚ Gaitze eta analisi prozesu bat abian jarri behar dugu, genero ikuspegiari buruz eta hura abiapuntu hartuta; eta prozesu hori kanpoko norbaitek lagundu behar du, elkarteko kide feministen sostenguarekin.

## Gomendioak

---

- Gure ikuspegitik, genero ikuspegiari buruzko gogoeta prozesuak sustatu behar dira antolakundeetan.

### 5. Zergatik da maskulinoa publiko hartzailea («jendea»)?

## Ondorioak

---

- ✓ Auzi horri buruz bi ikuspegi bereizten dira. Batetik, elkarteko kide batzuen aburuz Cubainformación ez da gizonentzat egindako produktu bat, eta gizonengana nahiz emakumeengana berdin iristen ahalegintzen gara. Beste batzuen aburuz, ordea, gizonek gizonentzat egindako produktu bat da. Nolanahi ere, kontua da ez dauzkagula tresnarik gure publikoa maskulinoa edo femeninoa den neurtzeko.
- ✓ Edonola ere, denok gatoz bat honetan: gure publikoa maskulinoa da, batik bat, gainerako hedabide ofizial nahiz alternatiboena bezala. Horregatik diogu Cubainformación ez dugula aintzat hartzen genero ikuspegia.

## Ikaskuntzak

---

- ✚ Hedabide alternatiboa izan nahi badugu, alde batera utzi behar dugu hedabide konbentzionalen pentsamolde androzentrikoa. Protagonismoa eman behar diegu genero ikuspegiko eduki eta formatuei.
- ✚ Eta beharrezkoa iruditzen zaigu entzuleria neurtzea, zenbat gizonek eta zenbat emakumek jarraitzen gaituzten jakitea.

## Gomendioak

---

- Gizarte antolakundeek kontuan hartu behar dugu genero ikuspegia, produktuak sortzeko eta sentsibilizazio jarduerak garatzeko orduan.

### 4. kategoria: Cubainformación, kanpora begira

#### 6. Zergatik dauka arrakasta Cubainformaciónek?

## Ondorioak

---

- ✓ Cubainformaciónek Kubaren egoerari buruz dagoen informazio gabeziari aurre egiten laguntzen du, hedabide konbentzionaleri aurre egiteko erantzun sistematiko gisa.
- ✓ Gure ustez, arrakastaren gakoa albisteak emateko formatuaren originaltasuna da, argudio bideo laburrak erabiltzea, beste bitarteko batzuek gainera. Kubari buruzko «europar tankerako» hedabide alternatibo bat gara, nolabait esateko.

## Ikaskuntzak

---

- ✚ Internetek eta gizarte sareek eskaintzen diguten aukera paregabea baliatu behar dugu.
- ✚ Gainera, hedabide alternatibo orokor indartsuagoekin ditugun aliantzak sendotu behar ditugu, Cubainformaciónen mezua jende gehiagori helarazteko.

- ✚ Egiten dugun lanean arrakasta dugula jabetzen garen arren, orobat uste dugu garrantzizkoa dela gure ustez arrakasta zer den definitzea eta arrakasta neurtzeko adierazle propioak lantzea.

### Gomendioak

---

- Antolakundeentzat, funtsezkoa da Interneteko gizarte sareei etekina ateratzea.
- Eta garrantzi handikoa da, halaber, jende gehiagoarengana eta askotarikoarengana iristeko ahalmena duten hedabide alternatibo indartsuagoekin lankidetzaz sustatzeko aliantzak bilatzea.

## **7. Zer egin dezakegu «publiko orokorrera» (Kubarengandik hain hurbil ez dagoenera) iristeko?**

### Ondorioak

---

- ✓ Ezagutzen ez gaituztenek oro har diote gure diskurtsoa oso bat datorrela Kubako gobernuarekin, Iraultzaren hurbileko hedabide alternatibo bat garena.
- ✓ Gure ustez, hedabide handietara iritsi beharko genuke gure materialekin, entzuleria handitzeko; horrek jauzia egiten lagunduko lioke Cubainformacióni. Baina kontraesana da hori ia, gure lanaren gakoa hedabide horien gezurrak eta manipulazioa indargabetzea baita, hain zuzen ere.
- ✓ Bestalde, eduki berriak sortu eta Cubainformaciónen diseinua eta atalak hobetu behar ditugu. Batetik, umorea tresna gisa erabili beharko genuke, eta bestetik, Kuban eztabaida sortzen duten eta gaurkotasuna duten gaiak landu, hango eztabaidak eta Iraultzaren baitako joera askotarikoak agerian uzteko.

### Ikaskuntzak

---

- ✚ Garrantzizkoa da une honetako publikoaren zirkuluak identifikatzea eta zeren bila ari garen zehaztea, elkarrekin.

### Gomendioak

---

- Lehen esan bezala, une honetako xede publikoaren zirkuluak identifikatu behar ditugu, elkarrekin, baita zer publikotara iritsi nahi dugun ere (orokorragoa eta gure mezuekiko halako atxikimendurik ez duena).
- Bestalde, eskura ditugun indarrei eta bitartekoei buruzko ebaluazio prozesuak egin behar dira, baita helburuak zorrotz finkatzea, iritsi ezinezko xederik ez hartzeko.



# ZER DA ERAGIN POLITIKOAREN KONTU HORI?

## UNIBERTSITATE IKUSPEGIA

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (aurrerantzean, ISF-MGI) garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bat da, giza garapen iraunkorrerako teknologiaren alde lanean diharduena eta modu aktiboan defendatzen duena komunitate bakoitzari bere premiak (elikadura, osasuna, etxebizitza, energia eta hezkuntza) asetzeko behar dituen baliabideak eskaintzen dizkion gizartea. Gainera, gizarte eraldaketako prozesu bat sustatzen ahalgintzen gara, eraldaketarako hezkuntza lantzen beste antolakunde batzuekin eta gizarte mugimenduekin sarean lan eginez.

### 4. ERAGIN ETA DIMENTSIÓ POLITIKOA

Zerk bultzatu gaitu sistematizatzeraz? Plangintza estrategikoa prestatu eta barne gogoe- ta egitea zegokigun urte hartan. Aurrez Euskadiko Elkarbiderekin lan eginak ginenez, abentura erakargarria iruditu zitzaigun haiek egindako gonbita, aukera emango zигulako sistematizazioaren bidez agerian uzteko gure hemezortzi-hemeretzi urteko historian eta, sakonago, azken hamar urteetakoan egindako lana. Horrela ohartu ginen non geunden eta nora joan nahi genuen, eragin politikoari zegokionez, goi mailako hezkuntzaren esparruan Garapenerako Hezkuntza taldeak bideratzen dituen ekimenekin.

Aukera modura bizi izan dugu prozesua: tresna bihurtu nahi genuen elkarreak bizi zuen unea (inoiz onartzen ez ziren formulazioak, elkarteko kide batzuek egonkortasun ekono- mikoa bilatu nahi izatea jarduera batzuk sendotzeko), inflexio puntu batera iristeko, puntu horretan eten bat egiteko eta ginen horretatik edo eraiki genuen horretatik abiatuta zer egin nahi genuen pentsatzeko.

Une hartan, Almudena (Euskadiko Elkarbidea) agertu zen elkartean, Antonio Sandák eta Sandra Fernándezek (biak ere kide aktiboak ISF-MGI Garapenerako Hezkuntzako taldean) ilusioz hartu zuten ideia, eta, jakinik elkartean oro har nolako lan karga handia izaten dugun, guk biok baino ibilbide luzeagoko jendeak osatutako sistematizazio talde bat sort- zeko lanari ekin genion, gure historia agerian uzten eta elkarre gisa, talde gisa zer garen hobeto ulertzen lagunduko zигulakoan.

Gure eginahalek fruitua eman zuten eta ekimenean aktiboki parte hartzen hasi ziren Jose- ba Saiz de Murieta, UPV-EHUko irakaslea eta ISF-MGIko Garapenerako Hezkuntza taldeko kide aktiboa; José Manuel Corcuera, Mondragon Unibertsitateko irakaslea, elkarrearen so- rreran parte hartu zuena; eta Aitziber Uriarte, gaur egun antolakundearen koordinatzaile nagusia eta ikerketa arloen taldeko kidea.

Prozesuan zehar, beste une batzuetan presente egondako kide askoren laguntza izan dugu (horietako batzuek aktibo jarraitzen dute gaur egun eta beste batzuk munduko beste toki batzuetatik ari dira), hala nola: Mónica Oyarzábal, Susana López, Raúl Larriba, Amaia Arrinda, Unai Villena eta Aitor Gómez. Eta horiei guztiei eskerrak eman beharrean gaude, prozesuari egin zizkioten ekarpen aberasgarriengatik.

## INGENIERÍA SIN FRONTERAS – MUGARIK GABEKO INGENIARITZAREN (ISF – MGI) HELBURUA, XEDEA ETA ARDATZA

---

Sistematizazio prozesu honetan, hiru galdera giltzarri ditugu gure gogoeta eta analisi kritikoa bideratzeko. Eta horien bidez definitu genuen gure sistematizazioaren helburua, zedarritu genuen haren xedea, denboran eta espazioan, eta zehaztu genuen ardatza, hau da, esperientziaren zer alderditan genuen interes gehien.

## 1. Sistematizazioaren HELBURUA: zertarako sistematizatu?

«Garapenerako Hezkuntzan aurrera egiteko partaidetzari buruzko ikerketa eta prestakuntza» proiektuak oinarritzko makro helburu bat proposatzen du lau sistematizazio prozesuetarako:

*Ikaskuntzak eskaintzea eta partekatzea, Garapenerako Hezkuntza sustatzeko, Euskadiko Elkarbideari dagokionez, metodologiaren eta berrikuntzaren arloan.*

ISF-MGIko sistematizazio taldeak helburu propio hau helburu propio hau finkatu zuen bere sistematizazio prozesurako:

*ISF-MGIk unibertsitate komunitatearen eta GGKEen arteko sareko lanari dakarkion eragin politikoari begirako balio erantsia azterzea.*

## 2. Sistematizazioaren HELBURUA: zer esperientzia sistematizatu nahi dugu?

*LISF-MGIk 2001eko urtarriletik 2011ko urtarrilera EAEn unibertsitate komunitatearen eta GGKEeren artean egindako zubi lanaren esperientzia.*

ISF-MGIren zubi lana gure eginkizun hauei dagokie:

- Topalekuak, trukerako eta prestakuntzarako guneak sortzea
- Unibertsitateak eraldaketa eragile gisa duen ahalmena transmititzea
- GGKEen, ikasleen eta unibertsitateko gainerako esparruen arteko transmisioa eta lotura bideratzea.

Nabarmentzekoa da ISF-IMGk profila hiruak duela —GGKEa, unibertsitate elkarte eta elkarte boluntarioa, betiere, alderdi «teknikoa» ardatz duena— eta horrek zubi lanean duen eragina.

EAE: Bilbo, Arrasate, Donostia.

2001eko urtarriletik 2011ko urtarrilera: 1996. eta 2000. urteen artean gertatutakoa hartuko dugu kontuan, aurrekari gisa.

## 3. Sistematizazioaren ARDATZA: esperientziaren zer alderdi nagusitan dugu interes gehien?

*ISF-MGIk unibertsitatean egiten duen eragin politikoko lana errazten eta zailtzen duten elementuak.*

Unibertsitatean eragin politikoa errazteko funtsezko elementu batzuk identifikatu genituen ardatzarekin. Eta horietan sakondu genuen sistematizazioan. Hauek dira, hain zuzen:

- Boluntariotzaren ahalmena.
- ISF-MGIren ibilbidea.
- «Gauzak beste modu batera» egin daitezkeela sinesten zuten irakasleekin harremana izatea.
- Sentsibilizazioari ekitea.
- Beste antolakunde eta erakunde batzuekin sarean lan egitea, epe luzera begira.
- Unibertsitate esparruko askotariko eragileekin lan egitea: irakasleak, ikertzaileak, errektoreordeak...
- Aitortza akademikoa.

## ESPERIENTZIAREN KONTAKIZUNA

Gure kontakizuna 1993an hasten da, urte hartan sortu baitzen Ingenieria Sin Fronteras País Vasco– Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI). Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU) lehen ikastaroa eginez ekin zion lanari.

1995ean, ISF Valencia esparru ez-formalean Garapenerako Hezkuntza lantzen hasi zen, lankidetzari buruzko prestakuntzaren bidez.

1996an, Estatuko ISF guztien arteko bilera egin zen, Artean; gai filosofikoak eta teknologikoak jorratu ziren. Artean ez zegoen lan talderik.

1998-99 ikasturtean, ISF-MGIren lehen mintegia egin zen, UPV-EHUn. Mintegi hori, ikastaroekin batera, urtero egiten da gaur egun. Garai horretan, era berean, irakasgaia sortu zuten Mondragón Unibertsitatean (MU).

Ikastaroetan nahiz mintegietan, ISF-MGIk hartzen du bere gain giza garapenerako teknologien atala. Programaren gainerako atalei dagokienez, beste GGKE batzuei eta unibertsitateko irakasleei gonbita egiten zaie.

Urte horietan (95-99), Garapenerako Lankidetzaren Zentroa sortu zen Katalunian, baita Garapenerako Lankidetzaren Sarrera irakasgaia ere, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan. Urte haietan Kataluniako eta Estatuko gainerako lurraldeetako ISF taldeak martxan jartzen jardun zuten pertsonak unibertsitateko kudeaketa eta erabaki postuetara iritsi ziren, jokabide kodeak, lankidetzarako institutuak... sortu zirelarik, eta kide haiekin topo egin zuen gerora ISF-MGIk ikastaro, mintegi eta jardunaldietan.

1999-2000 ikasturtean, ez zen atera irakasgaia Mondragón Unibertsitatean, ikasle kopuru jakin baten eskaria behar baitzen eta ikasturte hartan ez baitzen lortu kopuru horretara iristerik. Beste urte batzuetan, aldiz, atera izan da.

2000. urtean, Nazio Batuen Garapenerako Programaren giza garapenerako teknologiei buruzko txostenaren harira, garapenerako unibertsitate lankidetzaren gaia zabaltzen hasi zen eta unibertsitateek lankidetzarako bulegoak sortzeari ekin zioten, zeinek bere baliabideen arabera, aginte guneeetan zeuden kideen arabera, etab. Espainiako garapenerako unibertsitate lankidetzaren estrategia (ESCUDE) sortu zen.

2000-2001 ikasturtean, Garapenerako Hezkuntza eta prestakuntza kooperatiboa uztartuta irakasgai bat sortzeko ahalegina egin zuten ISF-MGIk eta Debagoienako beste GGKE batzuek, Gasteizko eta Tolosako lankidetzak ikastaroak unibertsitate kanpo ere eskaintzeko asmoarekin. Elkarrean partzuergo horren baitan, lehen eta bigarren hezkuntzetan lan egin zen; ikastaroak antolatu ziren; Mondragón Unibertsitatean irakasgaia sustatu zen eta eskualde hartako talde eta antolakundeekin lan egin zen; kanpainak irekiak egin ziren (kanpo zorra, legegintzako herri ekimena, Irak...).

2001ean, UPV-EHUn Garapenerako Lankidetzak Bulegoa sortu zen (OFICOP). Handik urtebetera, eguzki energia bidezko sukaldeen gaineko ikerketa egin zen; ekimen hark oihartzun handia izan zuen kanpoan. Urteek aurrera egin ahala, gida bat prestatu zen, erakusketak egin ziren, beste GGKE batzuei lagundu genien, eguzki sukaldearen antolatu zen (urteroko ekimena), etab. Prozesua unibertsitatean aintzatespena lortzeko abiapuntu bihurtu zen.

2003an, OFICOPek UPV-EHUko ikasleentzako Garapenerako Lankidetzako Praktikak programa eratu zuen, gizarte ikasketei begira.

Lankidetzan egindako ikasketa amaierako proiektuen arloan ISF-MGIk OFICOPekin bidertatutako lankidetzak 2005ean hasi zen. Urte horretatik aurrera, GGKEen eta unibertsitatearen arteko lankidetzak bilatu ziren, 2006-07 ikasturtean «hitzarmena» ezartzeari begira.

2006an ikasketa teknikoetarako IAPeko programa bat sortzea planteatu genien OFICOPi. Unibertsitate irakasleen babesak bilatu genuen datu base baten bidez, irakasleek IAP horien tutore izateko beren burua eskaini zezaten. Eta aurrera atera zen. Programa hori gizarte zientzien ikasketen praktikumaren barruan sartuta dago, IAP atala barne, eta ikasketa teknikoak biltzen ditu. Ikasleek eta proiektuen kudeaketaz ISF-MGI arduratzen da. IAPen bidez, kate bat osatzen da ikasleek eta GGKEen artean. Unibertsitate lankidetzaren ikuspegi soziala zedarritu zen, eta, ISF-MGIren eskutik, teknologiak lankidetzan duen egin-kizuna nabarmendu zen. Gora egin zuen ISF-MGIko boluntarioen kopuruak.

2007an, ISF-MGIk zabalduzako jokabide kodea sinatu zuen UPV-EHUk. Aurrerantzean, gauzak ez ziren egingo erabaki ahalmena duten postuetan dauden kideen arabera, diskurtsioa dagoeneko idatzita baitago.

Urte horretan bertan, Energia Berriztagarrien Jardunaldiak egin ziren; eta irakasle modura aritu ginen Euskadiko Elkarbidearen «Apostando por lo humano. Otra forma de educar desde la universidad» ikastaroetan. Ikerketaren esparruan, profil teknikoaren ikasketen eta GGKEen arteko lankidetzari buruzko analisia egin zen. OFICOPek finantzatu zuen, eta unibertsitate esparrua eta GGKEena uztartzen ditu. Teknikaren eta GGKEen arteko lankidetzaren ahalmena aztertzeo ideia kanpora zabaltzeko, hitzaldiak, jardunaldiak... egin ziren unibertsitatean eta GGKEen artean.

2008an Teknologia, Garapena eta Gizartea jardunaldiak egin ziren, lehen aldiz. ISF-MGIk egoitza zabaldu zuen Donostiako Unibertsitate Politeknikoan eta ISF-MGIko kidearen kontratua amaitu egin zen.

Gizarte Erantzukizuneko Errektoreordetza sortu zen, eta hark hartu zuen bere gain unibertsitateko garapenerako lankidetzeta (Erasmusetik bereizi zen, Seneca). ISF-MGIk 2005az gero OFICOPekin batera egiten zuen «korridoreko lanaren» eraginaren aitortza izan zen.

2010ean Lankidetzeta Kontseilua sortu zen; funtzioak, eraketa, zer egin nahi den zehaztuz parte hartu zuen ISF-MGIk kontseilu horretan.

2004tik aurrera, askotariko kontratu eta postuak dituzten pertsonekin edo bekadunekin lan egin ahal izan dugu. Horri esker, areagotu egin da unibertsitatean dugun presentzia eta han dugun eragin politikoa. Era berean, boluntario aktiboek kopurua igoarazi du.

2008tik gaur egunera, ISF-MGIk zubi lana egiten du, askotan, GGKEek unibertsitatean gauzak egin ditzaten (ekologistak martxan...). Alderdi teknologikoaren ahalmena agerian utziko zuten ikasketa amaierako proiektuak egiteko aukera aztertu zen GGKEko koordinakundearen ezohiko batzar batean, eta arrakasta itzela izan zuen: Iparraldeko eta Hegoaldeko GGKEak ISM-MGIrekin harremanetan jarri ziren proiektu horiek aurrera ateratzeko.

Hauek dira ISF-MGIk unibertsitatean duen eragin politikoa buruzko mugari nagusiak:

- Urteko ikastaroak eta mintegiak: ikasleei begira.
- Ikasketa amaierako proiektuak (IAP): ikasleei eta GGKEei (sarea) begira.
- Profil teknikoko ikasketen eta GGKEen arteko lankidetzari buruzko analisiaren gaineko ikerketa: kanpo hedapenari begira.
- OFICOPekin batera egindako «korridoreko lanaren» eragina, unibertsitate lankidetzaren aitortza ekarri zuena eta Gizarte Erantzukizuneko Errektoreordetza sortzeko bidea zabaldu zuena.

## ERAGIN POLITIKOARI BURUZKO ONDORIOAK, IKASKUNTZAK ETA GOMENDIOAK

---

Sistematizazio prozesutik ateratako ondorioak, ikaskuntzak eta gomendioak honako bost atal hauek antolatuta ditugu:

1. Eragin politikoa... baina zer da guretzat? ISF-MGIren eraginguneak.
2. Unibertsitatearekiko erlazioa. Nola aurre egiten diogu unibertsitatearen zurruntasunari?
3. ISF-MGIren ikusgarritasuna.
4. Eta eragiteko egiten dugun lanak... aintzat hartzen du genero ikuspegia?
5. Nola uztar ditzakegu alderdi teknikoa eta humanoa? Pertsona boluntarioen eta kontratupekoen eragina. Diskurtso ideologikoa eta eragina.

### 1. Eragin politikoa... baina zer da guretzat? ISF-MGIren eraginguneak

ISF-MGI, unibertsitatearen barruan eragiteko lau gune bereizi genituen sistematizazioaren hasieran: ikerketak, ikastaro eta mintegiak, ikasketa amaierako proiektuak (IAP)

eta «korridoreko lana». Eta gure kezka nagusietako bat izan da lau gune horietan egiten dugun lanaren bitartez benetan eragin politikoa lortzen dugun eta zein diren horretarako gakoak. Honako ondorio, ikaskuntza eta gomendio hauek atera ditugu azterketa horretatik, besteak beste:

## Ondorioak

- ✓ **Ikerketak**, ikastaro eta mintegiak, eta IAPak sakoneko lanak eta tresnak dira eta horien bidez sendotzen dira sentsibilizazioa lantzeko jarduerak eta ekimenak; baina zalantza dugu hori zenbateraino ote den eragin politikoa. Bide horietatik aitorza akademikoa lortzen dugu, bai, eta baliagarria da eragiteko, erabaki organoetan parte hartu ahal izateko (hala nola, Lankidetzako Kontseiluan, Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza –aurrerantzean, Errektoreordetza-, eta ikastegietako zuzendaritzan).

Badakigu ikertzen dugula eta informazioa zabaltzen dugula.

Baina horrekin eragiten ari gara? Zalantza dugu horri buruz.

Ohartu gara ez dela gauza bera eragitea eta sentsibilizatzea.

Ikerketak argitaratuta, eragin egiten dugu? Batzuetan, eragin politikoa gauzatzeko, informazioa behar da, aurretiaz azterlana egitea, ikerketa egitea... eta horixe da unibertsitateetik eragitearen egitekoa. Gure ikerketak zabal ditzakegu, beste batzuekin sarean lan eginez eragin politikoa bideratzeko, informazioa ematen duen alderdiaren zeregina betetz, beste erakunde batzuek ikerketa hori erabiltzeko eta ekintza ikusgarria «gorputzeko».

- ✓ **Ikastaroak** guk ematen ditugu, edo norik eman behar dituen aukeratzen dugu. Gure esku dago eraginaren gaineko prestakuntza ematea, jendearengan eragiteaz gainera.

Garapenerako Hezkuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak ez dute bideratzen eragin politikoa. Jarduera horiei esker gero eta gehiago inplikatzeko diren eta Kontseiluan, Errektoreordetza edo ikastegietako zuzendaritzan eragiteko adinak aitorza lortzen duten boluntarioek egiten duten lanak bidera dezake eragina.

- ✓ **Unibertsitatean lankidetzako IAPak** sortu izanari esker, gizarte eragina bideratu ahal izan da eremu horretan. Lankidetzako IAP bat baliagarria izateko sentsibilizatu egiten du lana egiten duen pertsona, ukitu egiten du epaimahaia eta eragin egiten du unibertsitate politikan. IAParen defentsa egiteko erabil daitezkeen hamabi minutuetan ez dago unibertsitatean eragin politiko zabalagorik bideratzerik. Hortaz, presio handiagoa egin beharko genuke nola halako kontratu, enpresetako praktika eta IAP batzuk ez onartzeko.

IAPek kontaktuak egiteko aukera ematen dute, eta unibertsitatean nahiz kalean dugun presentzia sendotzen dute, IAP hori egitean hainbat erakunderekin sortzen diren aliantzen eta egiten den bidearen bitartez. Sareak ehundu eta eragina gauza daiteke (i) hezkuntza formalean kontzeptuak txertatuz eta garai batean onartzen eta aitorzen ez ziren proiektuak aintzat hartuz (GGKEekin hitzarmenak sinatuta) eta (ii) unibertsitate honetatik kanpo bada ere eragiteko aukera emango duen beste erakunde batzuekiko erlazioaren bidez.

- ✓ «Korridoreko lanak» atek zabaldu dizkigu, zeregin horretan jarritako indarrari esker. Pertsona jakin bat «konbentzitu» eta bere arloan jardun dezan lortuz eragiten da, baina eragin horrek ez du arrasto sakonik uzten, maila indibidualeko eragina baita, eta ez kolektiboa.

Ikerketek, ikastaro eta mintegiek, eta IAPek aitortza akademikoa dakarte, eta aitortzak eragin politikoa bideratzeko atea zabaltzen duten organoetan parte hartzeko aukera ematen du, era berean: Lankidetzak Kontseiluan, Errektoreordetzan eta ikastegietako zuzendaritzetan parte hartzeko, hain zuzen ere. Era berean, elkarteekin aliantzak eginez eta harremanak sortuz presioa egin dezakegu organo horien gainean.

### Ikastaroak

- ✚ Ez geneukan argi ISF-MGI gisa zer den guretzat eragin politikoa, eta sistematizazioaren ondoren argiago ikusten dugu. Erakunde gisa eragin politikoa guretzat zer esan nahi duen definitu beharra dago.
- ✚ Unibertsitatean eragiteko behar den ikusgarritasunari aitortza akademikoa atxiki behar zaio, eta, hori lortzeko, beharrezkoa da ikerketa itzaltsuak egitea eta unibertsitateko irakasleen eta organoen sostengua izatea.
- ✚ Ikastaroak, mintegiak, ikerketak, hainbat urteko ibilbideak laguntzen dute aitortza izaten. Horrela iritsi ginen OFICOPera, eta hortik sortu zen IAPen aukera. «Gero eta aitortza handiagoa» ekarri duen hurrenkera horri esker, unibertsitateko botere organoetan eragiteko modua dugu: IAPek botere organoekin lotzen gaituzte, hala nola, Lankidetzak Kontseiluarekin, Errektoreordetzarekin eta ikastegietako zuzendaritzekin.
- ✚ «Korridoreko lanak» ez du eragin politikorik, berez, erakundeetan botereari buruzko erabakiak hartzen dituzten organoetan egiten baita eragin politikoa. Lagungarria gertatu zaigu, ordea, botere karguetan zeuden pertsonak edo «sarbide beroek» sostengua eman ziezaguten unibertsitatean eta atek zabal ziezazkiguten kanpoan.
- ✚ Unibertsitate politiketan eta unibertsitate lankidetzan eragiten dugu, irakaskuntza teknikoaren esparruan. Ohartu gara alderdi teknikitik itzal akademikoa handia izateko moduko ikerketak egin behar ditugula, urari, energiari eta abarri buruz, munduan gertatzen diren egiturazko indarkeria egoerei arretea emanez. Hau da: egiten dakigun hori ardatz hartu. Horrela lortuko dugu aitortza eta horrek emango digu eragin politikoa gauzatzeko bidea.

### Gomendioak

- ➔ Eragin politikotzat zer hartzen den definitzea.
- ➔ Eragin edo sentsibilizatu egin nahi den zehaztea.
- ➔ Garrantzizkoa da aztertzea zertan, zergatik eta nola eragin nahi dugun.
- ➔ Eragiteko, prozesu jakin batzuk bete behar dira eta gune guztiak dira garrantzizkoak.



## 2. Unibertsitatearekiko erlazioa

### Nola aurre egiten diogu unibertsitatearen zurruntasunari? (I): Unibertsitate lankidetzako bulegoarekin (OFICOP) izandako esperientzia

#### Ondorioak

---

- ✓ Hainbat faktore daude unibertsitatean eragiteko bidea ematen duen ISF-MGIren eta OFICOPen arteko lankidetzazko erlazio hori laguntzen dutenak. Besteak beste, (i) ISF-MGIko boluntarioen interesa, IAPetarako akuilu gisa diharduena, (ii) OFICOPen bertan ISF-MGIko kideak egoteak dakarren hurbileko eta konfiantzazko harremana, (iii) ISF-MGIri atxikitako kideek interesa izatea lankidetzako IAPa egiteko, eta (IV) Cara Murguialdayk OFICOPen unibertsitate lankidetzaren alde egindako lana.
- ✓ OFICOP eta UPV-EHUn dauden garapenerako unibertsitate lankidetzako beste espazio batzuk unibertsitate erakundeetan ISF-MGI sendotzeko eta aitortzeko lagungarriak dira. Gure jarduera errazagoa edo nekezagoa izaten da «sarbide bero» deritzen guneetan ari diren pertsona jakinen inplikazioaren arabera.
- ✓ OFICOPen ISF-MGIko kide bat egoteak erraztu egin zuen sarean lan egiten ikasteko prozesua eta horrek informazio jariora hobetu eta IAPak sendotu zituen.
- ✓ IAPak direla eta «mundu akademikoaren» eta gizarte erakunde edo mugimenduen artean sareko lana bideratzeko sorturiko ekimenek sendotu egiten dituzte garapenerako unibertsitate lankidetzako jarduerak eta harreman berriak sortzeko aukera ematen diete ISF-MGI eta beste elkarte batzuei.
- ✓ Funtsezkoa da zer esparrutan eragin nahi dugun zehaztea eta gure elkarrearen historia edo jatorria aintzat hartzea, gure bidea ikuskatzeko edo/eta berbideratzeko.
- ✓ IAPen lanak, UPV-EHUko beste elkarte eta erakunde batzuekiko aliantzekin batera, aukera eman digu Jokabide Kodea sortzeko lanean eta Lankidetzak Kontseiluan eragiteko.

#### Ikastarokak

---

- + Denek dugu zer egin! Gauden tokian gaudela.
- + Eskura ditugun espazio instituzionaletan parte hartu beharra daukagu eragiten jarraitzeko, baita «sarbide beroko» deritzon motako jenderik ez dagoenean ere. Era berean, garrantzizkoa da guk dakigun edo landu dugun horretan oinarritzea, «espazio beroetan» eta horien bidez eragiteko.
- + Bestela badirudi ere, azken urteetako ISF-MGIren ekimenak fruituak ematen ari dira. Badago unibertsitate politiketan nola eragin!
- + Presioaren bidez, beka lor daitezke garapenerako unibertsitate lankidetzari lotutako ikerketak edo jarduerak gauzatzeko.
- + Garapenerako unibertsitate lankidetzako jarduerak eta ikerketak honako eragile hauek bildu behar dituzte: (a) erakundeak, (b) unibertsitate elkarteak, (c) GGKEak eta (d) ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak (II), administrazio eta zerbitzuetako langileak (AZP), lan kontratudun ikertzaileak (LI).
- + Ez gaude bakarrik! Beste ISF, elkarte eta erakunde batzuekin batera ari gara lanean, ikasketa teknikoetan unibertsitate lankidetzak sustatzeari begira.

## Gomendioak

---

- Urrats txikiak ere laguntzen dute aurrera egiten: norbaitek beka ateratzea, IAPak egiteko laguntzak izatea... lagungarriak izan dira Lankidetzaren Kontseilua sortzeko, besteak beste. Ez uztea gauzak egiteari, gauza txikiak direla iruditu arren.
- Nondik gatozen, non eragin nahi dugun eta horretarako zer tarte eta zer indar dugun aztertzea.
- Egin nahi dugun horretan ahalik eta eragile gehien inplikatzeko eta ahalik eta etekin handiagoa ateratzen saiatzea.
- Eskuragarri dauden guneak aintzat hartzea eta horietan parte hartzea, dena delako esparruan eragiteko.

## 2. Unibertsitatearekiko erlazioa

### **Nola aurre egiten diogu unibertsitatearen zurruntasunari? (II): Unibertsitatearen egitura, ideologia eta zurruntasunarekin eta garapenerako lankidetzaren ulertzeko modu desberdinekin moldatzea**

## Ondorioak

---

- ✓ Unibertsitatearekin eta unibertsitatean lankidetzaren egiteko ikuspegi asko har daitezke abiapuntu. Batzuek ez dakite zer den garapenerako lankidetzaren, eta iruditzen zaie ez dagoela hura unibertsitatean txertatzerik, unibertsitatean lan jakin bat egitea dagokiela eta lankidetzaren arloko lana denbora librean egitekoa dela. Beste batzuek, berriz, gaiaren jakitun izan arren, uste dute lankidetzaren ez dela unibertsitatean egiten duten jarduerarekin bateragarria. Ikuspegi horiekin batera, badira garapenerako lankidetzaren beren unibertsitate zereginaren parte gisa hartzen dutenak eta zeregin hori ikerketaren bidez gauzatzen dutenak.
- ✓ Edonola ere, garapenerako unibertsitate lankidetzaren ereduak eta lankidetzaren horri buruz unibertsitatean edo/eta erakunde publiko nahiz pribatuetan dauden ideologiek ez gaituzte eraman behar iparra galtzera edo gure ideologia alde batera uztera, finantzaketa lortzearren. Eragiten jarraitu behar dugu, garapenerako unibertsitate lankidetzaren buruz dugun ikuspegitik. Funtsezkoa da gure ideologia, kontzeptua... defendatzea, edonoren aurrean. Horretarako, garrantzizkoa da mezua pertsonalizatzea (hizkuntza, jendearengana iristeko modua, etab. egokitzea), ahal den neurrian, erlazioa dugun espazioaren, sektorearen, egituraren arabera. Horrela, askotariko egituretan presentzia eduki genezake. Eta lagundu egingo liguke identifikatzen zer sektoreri begira ez dagoen gure mezua bere horretan ongi egokituta eta, bide horretatik, hura «moldatzen».
- ✓ Unibertsitate egiturak eta garapen ereduak baldintzatu egiten dute. Eta baldintzatu hori aldatu egiten da, UPV-EHUn, unibertsitateko zuzendaritza karguetan dauden pertsonen arabera. Horregatik iruditzen zaigu beharrezkoa dela arrastoa uztea (ekintzen, hitzaldien eta abarren bidez), gure hurbileko pertsona unibertsitatearen esparrutik ateratzen denean lanari begira ez dadin hain erabakigarria izan kargu horietan era bateko edo besteko kideak aritzea.
- ✓ Garrantzizkoa da unibertsitatean aurpegi ezagunak izatea, pertsona berdinak garenean errazagoa baita «unibertsitateko

aginte sarbideekin» elkarrizketa izatea. Bi aurpegi ezagun edukitzea litzateke onena: emakume bat eta gizon bat.

### Ikaskuntzak

---

- + Ez dugu denok gauza bera ulertzen garapenerako unibertsitate lankidetzari buruz ari garenean.
- + Garrantzizkoa da garapenerako unibertsitate lankidetzaz ulertzeko askotariko moduak identifikatzea, ahalik eta modurik egokienean lantzeko.
- + Borroka luzea gelditzen da oraindik unibertsitatean (aukera askeko kredituak: ikastaroak, mintegiak...).
- + Borroka luzea gelditzen da oraindik garapenerako unibertsitate lankidetzan, oro har. Eta unean-unean arlo horretan lanean ari den pertsonaren mende egongo ez den lankidetzaz estrategia bat sendotu beharra dago.
- + ISF-MGIk, elkarte gisa, garrantzia eman behar dio garapenerako unibertsitate lankidetzaren gaitan parte hartzeko unibertsitate espazioetan presentzia izateari: Lankidetzaz Kontseilua, OFICOP...
- + Bidea, ekinez egina.
- + Zerbait bururatzen bazaigu eta bideragarria bada, bururaino eraman, ez gelditu erdibidean. Ziklo guztian iraunkorki aritu (ideia bururatzen zaigunetik ebaluatzen duguneraino), eta ez ahaztu horri buruz iraganean egindako lana (dokumentazioa kontsultatu...).

### Gomendioak

---

- Ez etsitzea erakundeen eta boterearen ideologia gurearekin bat ez datozelako.
- Pazientzia izatea. Unibertsitatean, gauzak mantso doaz. Denborak infinituak dira.
- Ez gutxietea unibertsitateko Lankidetzaz Kontseiluko presentzia eta OFICOPekiko harremana.
- «Ez etsi».

## **3. ISF-MGIren ikusgarritasuna**

### **Nola gobernatu dugun unibertsitatean dugun ikusgarritasuna.**

**«Alderdi teknikoaren antolakunde» modura aitortza izatearen eta eragin politikoaren arteko erlazioa.**

### Ondorioak

---

- ✓ Unibertsitate elkarte batek, ISF-MGIk esaterako, ahalik eta etekin handiena atera behar dio unibertsitate komunitatearen baitan duen ikusgarritasunari, ikasleen artean duenari bereziki, hura baita bere harrobia. Gure esperientziak irakatsi digunez, ez ditugu ikusgarriak izateko erabil genitzakeen bide guztiak erabiltzen, eta erabiltzen ditugunak ez ditugu zuzen erabiltzen. Barneratu eta egunerokotasunean txertatu behar dugu ISF-MGIren hedapena eta ikusgarritasuna (logoak, elastikoak...), ikasleekin egiten ditugun ekimenetan: hitzaldietan, mintegietan, lokaletako argibideetan, IAPei buruzko informazioan, etab.

- ✓ Unibertitatean garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza lana egiteko ikusgarritasunak irakasleen eta unibertitateko komunitate osoaren laguntzaren premia du.
- ✓ Baina eragin politikoa bideratzeko, salaketaren arrazoia utzi behar dugu agerian, egin behar dugu ikusgarri, eta ez gu, erakunde gisa; are gehiago, beste antolakunde batzuekin sarean edo aliantzan lanean ari garenean.
- ✓ ISF-MGIren alderdi teknikoa ezinbestekoa da eragiteko, maila instituzionalean alderdi horrek duen aitortzari esker, eta baita horixe delako ere organo horiek (Hegoa, OFICOP, GGKE) guregandik lor dezaketen laguntza «berdingabea», «alderdi teknikoa» ikuspegi humanotik lantzen dugunak gu garen heinean. «Berdingabeak» gara, elkarte tekniko gutxi daudelako. Teknologia egokia posiblea da, eta hori «egiaztatu» beharra dago.
- ✓ Alderdi teknikoak atea irekitzen eta ixten ditu. Hobeto moldatzen laguntzen digu (unibertitatea, egitura, kontaktuak...), gehiago ezagutzen dugulako. Era berean, diziplina teknikoez bestelako diziplina batzuk txertatu ahala, hobeto zabaltzen eta hedatzen gara beste eremu batzuetara: ikuspegi tekniko soilaz bestelako ikuspegi bat ematen dugu, bestelako prestakuntza duten kideak sartzen dira, ohartzen laguntzen du ISF-MGIk ez duela teknikoa soilik izan behar.

### Ikaskuntzak

- ✦ Hobetu egin behar dugu ISF-MGI ikasleen eta unibertitateko kideen aurrean ikusgarri egiteko lana, baita eragin politikoaren arrazoia ikusgarri egitekoa ere.
- ✦ Ez dugu lortuko antolakunde bideragarria izatea, baldin eta barnera begira ikusgarri izatea lortzen ez badugu (adibidez, boluntarioen bila goazenean; eguzki sukaldeen erakusketetan, standetan...). Garrantzizkoa da barnera begira ikusgarri izatearen garrantzia barneratuta edukitzea.
- ✦ Unibertitate barruko elkarte teknikoa gara, eta baliatu egin behar dugu gure ahalmen berdingabea.

### Gomendioak

- ➔ Egiten badakigun hori ardatz hartzea. Elkarte asko gara, eta zeinek bere espezialitatean nabarmendu behar du.
- ➔ Gure lana nahiz beste antolakundeena ikusgarri egiteko sareak osatu behar ditugu, lana ez bikoizteko, zeinek bere espazioa izateko eta lankidetzan jardun ahal izateko.
- ➔ Antolakunde gisa ikusgarri izateko nahiz salatzen duguna ikusgarri egiteko zer publikorengana jo behar den jakitea eta bereiztea.
- ➔ Nor garen eta nora goazen jakitea, irudi argi bat ikusarazteko.

## **4. Eta eragiteko egiten dugun lanak... aintzat hartzen du genero ikuspegia?**

### Ondorioak

- ✓ Generoaren auzia ez daukagu guztiz barneratuta ISF-MGI. Ez daukagu garbi genero ikuspegiak zeharlerro modura diharduen elkartean. Egiten dugun lanaren bidez generoan nola eragin dezakegun pentsatu beharra

daukagu beti. Elkartean generoaren araberako diskriminaziorik ez dagoela uste dugu, eta horregatik ez diogu garrantzirik ematen arlo horretan gure burua «eraldatzeko» prestakuntza hartzeari (formulatzeko prestatzen gara). Botere erlazioak presente daude egunerokotasunean, egunez egun, baita ISF-MGIIn ere, baina ez gara gai hori ikusarazteko. ISF-MGIIn kontuan hartzen dugu parekidetasuna, kopuruei, estatistikei eta abarri dagokienez, baina horren guztiaren oinarrian zer dagoen aztertu beharko genuke.

- ✓ Unibertsitateko botere karguetan, gizonak dira gehiengoak, oraindik. Guri dagokigunez, unibertsitate lankidetzak gai sozial bat garatzera bideratzen dugunez, alderdi humanoari lotuagoa, zerbitzuko (femeninoa), emakumeekin erlazionatzen gara, batik bat. Orain arte ez dugu aztertu «sarbide beroetan» emakumeak edo gizonak egoteak eraginik baduen. Errealitate matxistarekin bat ez gatozen arren, ikusten dugu unibertsitateko organo eta espazioekiko harremanak errazagoak direla ISF-MGIko ordezkariak gizon bat eta emakume bat izanik.

### Ikaskuntzak

- ✦ Unibertsitateko botere organoetan, emakumeekin hitz egiten dugu, oro har. ISF-MGIren aldetik haiekin harreman gehien izan dutenak gizonak izan dira, batik bat; hori dela eta, ekarpen «teknikoagatik» ez ezik, aitortza jaso dute. Orain dela gutxira arte, ez da landu ISF-MGIko emakumeen ikusgarritasuna antolakundearen beraren baitan.
- ✦ Ideia ona da bi lagun (gizona eta emakumea) joatea, denak egon gaitezen ordezkaturik.
- ✦ Genero auzia bigarren mailakoa da beti. Genero ikuspegia falta zaigu eragin politikoan, ez baitugu beti presente.
- ✦ Egiten dugun lanaren bidez generoaren auziari buruz nola eragin dezakegun pentsatu beharra daukagu. Proiektuetarako eskakizunek bultzatuta hasi gara generoaren gaia aintzat hartzen, eta formulatzeko prestakuntza hartu dugu, beste xede bat lortzeko tresna osagarri gisa.

### Gomendioak

- ➔ Pertsonak gara, eta denok egon behar dugu ordezkaturik.
- ➔ Generoaren gaiak presente egon behar du eragin politikoa gauzatzeko. Garrantzizko auzia da, are gehiago unibertsitate esparruan ari bagara eta alderdi «teknikoa» maskulinitasunari lotzen zaiola kontuan hartuta.
- ➔ Teknologiak ez dira neutroak. Prestakuntza behar dugu arazo bakoitza eta genero ikuspegia atxikita duten alternatiba teknikoak ikusgarri egiteko.

## **5. Nola uzta ditzakegu alderdi teknikoa eta humanoa? Pertsona boluntarioen eta kontratupekoen eragina. Diskurtso ideologikoa eta eragina.**

### Ondorioak

- ✓ Pertsonak eragina dugu zer, zergatik eta nola galderen erantzunetan. Bizi dugun unea eta bizi garen gizartea aldatuz doa, elkartean

dihardugun pertsona boluntarioak bezala. Hala, garrantzizkoa iruditzen zaigu egiten ditugun gogoeta ideologikoak ISF-MGI osoan ezagutzea eta bizitzea. Kontratupeko kideek laguntzen dute hori lortzen.

- ✓ Diskurtso ideologikoak huts egin izan du, batzuetan –lau errei desberdinetan ibili garelako sentipena dugu-; baina ari gara hobera egiten. Sendotu egin behar dugu diskurtso ideologikoa, elkarteak ez dadin aldatu hartan diharduten kideak aldatu ahala, eta argi izan dezagun non gauden, zer egingo dugun eta nola egingo dugun.
- ✓ Gure ideologiarekin bat etorriko den eragin baterantz goaz. Horretan, bidelagun ditugu plangintza eta sistematizazio prozesuak. Diskurtsoa definitu beharra dago, koherentzia areagotzeko. Azken urtean, sendotu egin da kide batzuek –ez antolakunde osoak– erabiltzen genuen diskurtsoa, eta gaur egun garapenerako unibertsitate lankidetzak eta giza garapenerako teknologiak ardatz dituen diskurtso sendoa dugu antolakundean.

### Ikaskuntzak

---

- ✚ Diskurtso ideologikoa definitu behar da, ISF-MGI osoari komunikatu behar diogu eta guztiok gure egin behar dugu. Horrela, argi izango dugu eragin politikoari loturik zer, non, nola eta zergatik ekin nahi dugun.
- ✚ Egoitza guztiak eta Bilboko egoitzako taldeek bi norabideko eta norabide anitzeko erlazioa izan behar dute beraien artean, eta diskurtso ideologikoa bera.
- ✚ Garrantzi handikoa da kontratupeko langileak bat etortzea diskurtso ideologikoarekin.
- ✚ Garrantzi handikoa da kontratupeko langileak izatea. ISF-MGIren irudia zentralizatzea eta eragin politikoaren esparruaren erreferentzia izatea dakar.
- ✚ Pertsonak –kontratupekoak eta boluntarioak– egiten dugu eragin politikoak, eta garrantzi handiko baliabidea gara. Pertsonak ez badakite idatzita dagoena transmititzen, aldatu egiten da diskurtso ideologikoa eta eragin mota.

### Gomendioak

---

- ➔ Eragin politikoak landu aurretik, antolakundearen diskurtso ideologikoa zein den ongi aztertzea.
- ➔ Aldian-aldean diskurtsoa berrikustea –egitekoa, ikuspegia, balioak–, eta kide guztiak haren parte senti daitezela sustatzea.
- ➔ Diskurtsoaren komunikazioa zaintzea. Komunikazioa nola egiten den, askotariko interpretazioak ekar ditzake.
- ➔ Unibertsitatean kontratupeko langileak lortzen saiatzea, eragin politikoak finkatzeko funtsezkoa den heinean.

# ESKER EMATEA



## GKEAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK

---

- ALAMBIQUE bazterketaren kontrako elkarte
- CEAR-Euskadi
- Euskadiko Elkarbidea
- ACNUR Euskal Batzordea
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Mugarik gabeko ekonomistak
- Elkarbanatuz
- EUSKADI – KUBA
- Hegoa
- Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal
- Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
- Inurri Gorriak
- Jolasetakin (Serso San Viator, Tierra de Hombrés, Save the children)
- Munduko Medikuek
- medicumundi Nafarroa
- Mugarik Gabe
- Oreka sarea
- Save the Children
- SETEM Hego Haizea

## PERTSONA PARTE-HARTZAILEAK

---

- Federico Abreu
- Irune Alija
- Iñaki Alonso
- Miguel Argibay
- Amaia Arrinda
- Beatriz Asenjo
- Iratxe Azuaga
- Itziar Caballero
- Alazne Camiña
- Laura Castresana
- Raquel Celis
- Gema Celorio
- Alicia López de Munain
- Alberto Cereijo
- José Manuel Corcuera
- Jesús Chocarro
- Daniel Cubilledo
- Lidia Eguskiza
- Sandra Fernández
- Mónica Fernández
- Zuriñe Fernández
- Greta Frankenfeld
- Paula Garbayo
- Aitor Gómez
- Ana González
- Arkaitz González
- Salvador González
- Estíbaliz Gil
- Laura Imaz
- Laura Iruetagoiena
- Andoni Iturbe
- Raúl Larriba
- Leire Lasa
- Susana López
- Mercedes de Madrazo
- José Manzaneda
- Mónica Oyarzabal
- Nahia Pérez de San Román
- Ana Pichel
- Roberto Porras
- Edurne Pujana
- Amaia Ruesgas
- Belén Ruiz
- Iñaki Ruiz de Olano
- Toño Sandá
- Janire Sáenz de Buruaga
- Eva Sáenz de Ugarte
- Pilar Sáenz de Ugarte
- Joseba Saiz de Murieta
- Silvia Tejerina
- Aitziber Uriarte
- Paola Vargas
- Lut Vasant
- Unai Villena